

ITZULPEN ETA TERMINOLOGIAZKO ALDIZKARIA

senez

ITZULPENA ETA HIZKUNTZ-IRAKASKUNTZA

3 urtea

2-3

zenbakiak

1986

Portada: LAURA ESTEVE

ISBN: 84-7086-198-0

Depósito Legal: S.S. 725-87

Imprime: Itxaropena, S.A. - Araba kalea, 45 - Zarautz

SENEZ

Itzulpen eta Terminologiazko Aldizkaria

6

III urtea 2. zenbakia

Aldizkari honen erredakzio batzordea ez dator bat, derrigor, artikulugile bakoitzak bere lanetan azaltzen dituen iritziekin.

Itzultzaile Eskola

SENEZ

Itzulpen eta Terminologiako Aldizkaria

Erredakzio Batzordea:

Zuzendari:

Jesus M. Zabaleta (Itzultzaile Eskolako irakaslea)

Hizkuntz arduradun:

Aintzane Ibarzabal (Itzultzaile Eskolako irakaslea)

Batzordekideak:

Tere Barrenetxea (Elhuyarreko lankidea)

Gotzon Nazabal (UZEIko lankidea)

Andoni Sagarna (Elhuyar eta UZEIko lankidea)

Helbidea:

Itzultzaile Eskola

Lanbide Eskola

Barkaiztegirako bidea z/g

MARTUTENE – DONOSTIA

Tfnoa. 461990

Itzultzaile Eskola

Aurkibidea

Ale honetan	11
Gaiak	
Itzulpena hizkuntzen irakaskuntzan: humanitateen "bertsio" modernoa. <i>Jean-René Ladmiral</i>	15
"Itzulpena" eta hizkuntzen didaktika. <i>Henri Besse</i>	39
Itzulpena eta hizkuntz pedagogia. <i>Xabier Mendiguren</i>	59
Hizkuntzen kontaktoaz eskolan. <i>Goi-zikloko</i> <i>Erreformako Koordinataldea</i>	63
Neurolinguistika, psikolinguistika, elebitasuna eta itzulpenaz. <i>Jose Luis Agote</i>	77
Itzultzailearen elebitasuna. <i>J.M. Zabaleta</i>	83
Itzulpen pedagogikoa eta itzulpen profesionala. <i>Xabier Mendiguren</i>	97
Itzulpena haurrentzako liburugintzan. <i>Iñaki Zubeldia</i>	101
Erdal literatura euskaraz. <i>Joxerra Garzia</i>	109
Itzulpen literarioaz. <i>Itzultzaile Eskolako zenbait ikasle</i>	113
Antologia de la narrativa vasca actual: itzulpenaren gorabeherak. <i>Juan Mari Becerra</i>	121
Itzulpen baten eta bere zuzenketaren arteko konparazio-azterketa. <i>Joseba Mikel Garmendia</i>	139
Itzultzaileen eta itzulpenen babes juridikoaz. <i>Pello M. Zabaleta</i>	193
Samaniegoren fabula edo alegien itzulpen bilduma. <i>Lurdes Auzmendi</i>	199
Esperantoa eta itzulpengintza. <i>Xabier Mendiguren</i>	203
Iruzkinak	
Itzulpenari buruzko zenbait aldizkariren berri ematea	213
Bibliografia	227
MICHEL BALLARD: La traduction de la théorie à la didactique.	
Berri eta Albiste	
Journées européennes de la traduction professionnelle	235
Euskal Herriko Itzultzaileen Elkarte (EHIE)	237
Itzultzailearen etxeak European. <i>Xabier Mendiguren</i>	241

GAIK

Ale honetan

Lehenik eta behin esplikazio bat zor dugu ale honek dakarren atzeramenduaz. Eta esplikazio hori ezin izan daiteke aldizkari honen ardura eta erantzukizun nagusia duen Donostiako Itzultzaile Eskolaren egoera besterik. Urte osoa iragan bait du berriro bere izan nahi eta ezinean. Alde askotatik bere premia aitortu izan zaion arren, egiazko irtenbiderik ez zaio eman oraindik, eta horren ondorioz bertako irakasle goa erabat urriturik aurkitzen da, aldi berean bere gain hartu ohi zituen gainerako lanetarako (aldizkari hau barne) ia ezindua. Hala eta guztiz ere, ordea, beste urtebeterako gutxienez Donostiako Itzultzaile eskola bizirik izango da, bertako ikasle eta irakasleen borondatez eta lehiaz, enpeinuz eta temaz, beste ezerez baino gehiago. Neurri horretan, aldizkari hau ere, Eskolaren gorabeherak pairatzera kondenaturik dagoela dirudienez, biziko da.

Ale honen edukietara igaroz, ia monografikoki itzulpenak hizkuntzen irakaskuntzan eduki behar duen tokiari eta zereginari buruz dihardu. Ale honetan ez da ahitzen gaia, nahiz eta bikoitza izan. Are gutxiago, hala ere, gai honek gurea bezalako herri batean dauzkan hainbat eta hainbat ikuspegi arakatu, ikertu eta aztertze dagoen sailari begiraturaz gero.

Zenbait fenomeno nabariak bait dira gure artean:

Lehenik eta behin, ez da ahaztu behar oraindik urte asko ez dela arte irakaskuntzak ez zuela eragin handirik euskararen transmisioan, edo hobeto esanda, irakaskuntzak eragin ezezko nabaria zuela euskararen transmisioan, famili bidezko transmisioz jaso zen hizkuntza hainbatetan eta hainbatetan gaztelania edo frantses hutsez burutzen zen irakaskuntzak oztopatu eta ahaztarazi egiten bait zuen.

Gaur egun ezin esango da gauzak alderantziaz direnik, baina bai irakaskuntzak eragindako hizkuntz ikasketak berebiziko eragina duela euskararen iraupenean eta zabalkundeetan. Alde batetik haurrentzako irakaskuntza euskarak leku handia hartu duelako, eta oraindik ere leku askoz ere handiagoa hartuko dela espero delako. Bestetik pertsona larrirentzako ere hizkuntz irakaskuntzak hizkuntz egoeraren aldatketan eragin handia duelako: inork ez du aipatu beharrik izango HABE edo AEK bezalako instituzio publiko edo erdi-publikoek duten pisua, lanpostuak sortzeko besterik ez bada ere, gauza horiek bro-matarako kontuak ez diren garaiotan.

Esan nahi da, labur beharrez, hizkuntz irakaskuntza formala, euskararena bereziki, herri honen enpresarik handienetako bat izatera iritsi dela, hitzaren zentzu zahar eta berrian. Alde horretatik begiratuta, herri honek apustu handia du egina eginkizun eta zama hori bere gain hartu duenean, eta lupaz begiratu behar dio hizkuntzen —euskararen— irakaskuntzari dagokion guztiari, egindako inbertsioari behar duen etekina jarrai dakion.

Zentzu horretan adi egon beharra dago hizkuntzen irakaskuntzari dagokionean gertatzen ari den orori. Eta gaur egun gertatzen ari da, itzulpena hizkuntzen irakaskuntzatik urrunduen —uxatuen?— eduki izan duten tokietan bereziki, Frantzia eta Alemanian batez ere, berriro dagokion tokia hartzen ari dela, hizkuntz-didaktikaren berrikuntza-
ren testuinguruan.

Bestaldetik gertatzen da herri honetan dagoeneko euskara dakien guztia —edo ia guztia— elebiduna dela euskaraz eta gaztelaniaz edo euskaraz eta frantsesez. Elebiduna izatea eta itzultzaile izatea gauza bera direla pentsatzea oso zabaldurik dagoen nahasmendua da, tamalez; askotan salatu izan dugu aldizkari honetatik bertatik. Baina gizarte elebiduna den batetan elebidun den pertsonari maiz gertatzen zaio itzultzaile ere izan beharra, hain maiz hala ere, non berebiziko eragina ukan bait dezake egoera horrek, maitasunaren beraren kau-

saz, hizkuntzen arteko interferentziak ugaltzeko berorien ezagutze autonomoaren kaltetan.

Gu bizi garen gizartearen askotan esana dugu, baita ere, aldizkari honen orrialdeetan—gizarte elebidun edo eleaniztun izatera beharturik dago etortzeko diren urteetan. Horretaz duda gutxi dago egiterik.

Guztiarekin ere, jakinaren gainean egonda ere, ordea, oso ahalegin gutxi egin da hemen behar izango diren hizkuntzak—gizarte elebidunak dituenak eta beharko diren gainerakoak— batera, beren batera izatean, beren esistentzia gertatzen den modu bateratuan, irakasteko. Hizkuntzak banaka irakasten dira, banaka ez daudela kontutan hartu gabe, eta ikaslearen kontu uzten da hizkuntza batetik besterako zubien eraikuntza; egin egiten bait da, nola ez bada hala, zubi hori, metodoek begiak ixten badituzte ere. Itzulpenerako trebetasuna da, hizkuntz-switching abilezia hori da, azken finean, hizkuntz baten ertz batetik beste hizkuntzaren besteko ertzerainoko joan eta etorrian mezuzaren esanahiezko irazki-harien artetik elebitasunezko mintzoa ehuntzen duen ainezka.

Gai-mataza horren albainu lepa-mehea besterik ez den honek hari luzea ekarri behar du oraindik, euskararen irakaskuntzaren hoberako.

Itzulpena hizkuntzen irakaskuntzan: humanitateen “bertsio” modernoa.

Jean-René Ladmiral

0. Hizkuntzen irakaskuntzan itzulpenari bere lekua berriro ematera zuzenduko dira hemen azalduko ditugun erreflexioak (1), era horretara orain dela urte batzuk argitaratu genituen zenbait azterketei (2) jarraipena emanez. Baina hizkuntzen pedagogian mugatu beharreko aurrerapen bateratuak izan behar duenari (eta izan daitekeenari) doakionean guk dugun kontzepzio globalaren hesparru zabalagoan kokatu behar dira baita ere itzulpenaren defentsa eta azalpen hauek. Izan ere bertsioa (Herübersetzung) genuen hemen batez ere gogoan, izenburua jartzerakoan hitz hori erabiliz adierazi nahi izan dugun bezala. Izanik, beste alor askotan ere ikus daitekeenarekin batera, denbora apur batetik honuntza, sarritan aipatzen den “berrikuntza pedagogikoa” berriro sorburuetara itzultzeko bidean jarri da, eta hizkuntza arrotz bizien irakaskuntza berriro aztertzeraz jo du puntu askotan, hizkuntza zahar (edo “hil”)-en tradizioa (hau da “latina-greko” arenera) hurbiltzeko (modu analogiko edo ez analogikoan) beldurrik gabe.

1. Hizkuntzen didaktika itzulpenaren aurka

Itzulpen ariketen kritika ez da arean egiteke. Aspaldiko urte luzetan itzulpenaren balio pedagogikoa gaitzesten eta kritikatzan aritu izan

da hizkuntzen didaktika naharoki (naharoegi) eta gogor, eta hainbeste aritu ere da non itzulpena hizkuntzen irakaskuntzatik izkutatu kasik egin bait da Frantzian, azalpen ofizialei kasu egin ahal badiegu bederen (3). Eta egoera hau ez da funtsean ezertan aldatzen Alemanian edo beste inon ere. Guk geuk ere azaldu izan dugu zertan gerta daitezkeen temak eta bertsioak ariketa atzerakoiak (J. R. Ladmiral, 1979, 26 orr.) hau da, itzulpena "metodo aktiboak" (4) izen generikoaz izendatzea proposatu dugunak erabiltzen dituen ondoan aipatzen diren hiru metodologi-printzipioen aurka doan neurrian:

- ahozkoaren erabateko lehentasuna.
- hizkuntza arrotzean (L2), ama hizkuntzarekiko (L1) zerikusi oro itzuriz barruratzea, interferentzien arriskuari ihes egitearren.
- ikaslea heziketa aktiboaren metodoetan edo oinarritutako animazio baten bidez (espresio/situatze/komunikazio edo motibazio) mugierazi eta "inplikatzeko" (5).

Egia da, baita ere, bestalde, gaur egun halako "berpizte metodologiko" bat ari dela gertatzen eta itzulpenaren ukatu ezin den come-back bat jarri dela martxan. Bestela ere joera hau ez da atzo sortua. Honen banakako adierazpenak agertu izan dira hirurogeigarren hamarkadaz geroztik ere zenbait espezialisten lanetan (J. Darbelnet, 1963), azken urteotan iritzia arras zabaldu baino lehen (6). Bestenaz, bada, metodologoen itzulpenaren aurkako anatema egin badute ere, irakaskuntzan ari direnek ez diote guztiz uko egin itzulpena, gehiago edo gutxiago baina betiere erabiltzearen heresia xumeari (7). "Metodo zuzenak" berberak, Frantziako agindu ofizialek definitzen duten moduan, permititzen du guk "gutxieneko itzulpen" deitu dugun pekatu arina, hizkuntzako klasean landutako testua ondo ulertu den ala ez ziurtatzearen (J. R. Ladmiral, 1979, 28... orr.).

Gainera, joera orokor horren barruan aldaerak daude aztertzen ari garen hizkuntza arrotzak irakasten diren gizarte industrialetako (hizkuntza bakarrekoak suposatzen direnak) "instituzio pedagogiko"-en hesparru zabal samarrean. Horrela, bada, itzulpena baztertzen duen debeku metodologikoa, badirudi, paradoxaz, lehentxeago hautsi izan dela, erauzi ez bada, Alemania Federalean Frantzian baino. Badirudi, beraz, historiaren erlojua Rhin-aren beste aldean azkarrago ibiltzen saiatzen ari dela, denbora joana berriro irabazi eta hizkuntzen didaktikan mende honetako debatean zegoen egoerari buelta eman nahiean edo -ez gara ordea hemen berriro ekinahal berean arituko, pedagogi

arloan oraingo honetan, "d calage historiko" (alde baterako edota besterako) delakoaren tesia argitzen; tesi horren berorren argitara (?) saiatu bait da hainbat historilari, soziologo eta bestelako "zibilizaziolari" Frantzia eta Alemaniaren arteko erlazioa ulertu nahiz... Gogora dezagun bidebatez estudio hau berau hasiera batean binomio horren gainean kokatua dagoela, izan ere edozein gogoeta egoera jakin batean ematen bait da, ingurumari sozio-historiko -eta linguistiko ere bai kasu honetan- batetik abiatzen, alegia. Hipotesia, jakina, izango da, proposatutako analisi horiek berak beste edozein hizkuntzak harreman pedagogikoan jartzen dituzten abagunetara ere zabal daitezkeela orohar (8).

Horrela, bada, "alemanerazko bertsioa" da bereziki hemen darabilguna, hau da: hizkuntza arrotza den alemanerazko sorburu hizkuntzatik (L2) ama-hizkuntza den frantzesezko xede hizkuntzara (L1) egin behar den itzulpen pedagogikozko ariketa. Betiere ikuspuntu horretatik, adieraz daiteke gainera itzulpena bi herrialdeetako bigarren mailako eskoletatik kanporatua izan bada ere orohar, alemanek gogo hobez hartzen dutela bertsioa, eta frantzesek berriz tema dutela nahia-go. Edukazio sistema biek duten arazo larria (agian Alemaniak larriagoa, halere) da, ordea, unibertsitatea -non itzulpena dextente erabiltzen den ariketa bait da- eta bigarren mailako eskola -non alde batera utzi nahi den erabat itzulpena- ez datozela bat; horrek bi kalte-modutarako bidea dakar berekin: eskolako haur direnak prestamen eskaseko unibertsitari bihurtuko direla garaia datorkienez, eta hauek beren aldiak irakasle "desfasatuak"...

Baina hemen aipatu nahi dugun berpizte metodologiko hori, itzulpena berririo ezartze hutsera baino askoz harago iristen da. Orain arte ukituezinak iritzita zeuden printzipio asko ukitzen ditu eta hizkuntzen didaktikan gaur egun nabarmentzen eta sentitzen ari den mugimendu orokorrean parte hartzen du. Areago, berpizte hau, hezkuntz arazoa bere orokorrean jotzen ari den krisialdiaren testuinguruan kokatzen da, eta krisi hau, askotan esan den bezala, "zibilizazio krisi" bat izateraino hedatzen da. Hortik, bada, eta gisa bereko terrorismoari jarraiki "iraultza linguistizista" bat, "kontrairaultza" neo-humanista baten tentazioa edo, metaforaren hariari jarraitzeko, "fashizazio" teknizista edo agian "miserabilista" besterik ez dena, hizkuntzen didaktikan.

Zehazki esateko, metodo modernoek "ordezkoa ziurtatzea" da arazoa (J. R. Admiral, 1975 a, 13 orr.). Metodo hauek oso eragin

haundia dutela egiztaturik geratu da, bai bigarren mailako ikasketetan, bai eta helduen prestakuntzan ere, bigarren hizkuntza baten hasierako ikasketak segurtatzeko, baina aitortu beharra dago derrigor, ordea, hasierako fase horretatik aurrera, guk kasu honetan "hegal-dapen zikloa" (ibid.) deitu dugunetik aurrera alegia, onartu beharra dago, bada, psikopedagogia aktiboak eta hizkuntzalaritza modernoak bultzaturiko metodo horiek, indar gabe gelditzen direla berehala. Puntu jakin batetik aurrera, bigarren mailako ikasketetan bigarren urtearen amaieran gutxi gora behera koka genezakeen puntu batetik aurrera alegia, erabiltzen duten metodologiak eramaten du, ez bakarrik "hain ohitura mental gogaitkarria den hur ematea" bultzatzera (J. Darbelnet, 1963, 351 orr.), baina baita psitazismoa ere, errazten duela suposatzen zaion "komunikazio gaitasun" sona haundiko eta enigmatikoko hori alegia, azkenean (stricto sensu) interakzio bat besterik ez dena, hau da "portaeren sinkronizazio mimetiko" hutsa (J. R. Ladmiral, 1975 a, 16 orr. eta beste). Ukatu ezin den aurrera-erazintasun bat gertatzen da, eta badirudi aipatutako materiale pedagogikoen inolako optimizazioak ere ez duela zuzentzen (9) progresio pedagogikoa, une horretatik aurrera atalase maila izango duen puntu horretatik haruntzago eraman ahal izateko.

2. "Kehre"-aren printzipioak

Ordezkatze hori ziurtatzearen estrategia pedagogikoa bete betean itzulikatzea, biratzea, edo areago itzulinguratzea proposatu dugu guk, hizkuntzen didaktikaren alor honetan, oso bestelako erregistro batean, zenbait iruzkilarietara Heidegger-en lehenengo filosofiari bigarrena oposatzeko aukera ematen dien Kehre famatuak garrantzia berbera duena (10). Analogia filosofiko hau, bestalde, konparazio erretoriko hutsa baino gehixeago da: "Bigarren Heidegger"-ek (der späte Heidegger) Sein un Zeit etengabeko erreferentzia duen bezala, era berean metodo aktiboen aurrean dagoen alternatiba hau ez da hizkuntzen irakaskuntzak dituen arazoentzako "beste" erantzun bat, "bigarren" hain zuzen kronologikoki besterik ez bait da; diskurtso filosofikoa nola erabiliko dugun azaltzeko bidea ere badugu... Zentzu berean jarraituz, printzipio orokor batzuk aintzat hartzea proposatuko dugu:

(I) Lehen eta... ororen gaineko printzipioa da, hasieratik bertatik adierazi dugun bezala, ez hainbeste "tema eta bertsioa" berriro onestea (Darbelnet, 1963, 352 orr.), "itzulpena" berriro onestea baizik; eta esaten badugu gainera "pedagogia eraberritu" egin behar dela, esaten dugu batez ere, alde batetik "tema eta bertsioaren arteko asimetria" dagoelako (Ladmiral, 1979, 43... orr.), eta asimetria hau kontutan eduki behar da, gure ustez, bertsioari lehentasuna biziki emanaz temaren aldean, eta beste aldetik guk defendatzen dugun "alemaniar bertsioa" delakoa aurretik kritikatu dugun itzulpen pedagogikozko ariketa neurri batean edo bestean artifiziala inolaz ere izango ez den heinean. "Itzulpen mintegia" deituko dugunaren alorrean itzulpen "itzulpenezko"-ren ikuspideari jarraitu beharko zaio (11). Osterantzean, oinarrizko adosgune zabal batetik aurrera, ez goaz gu, Jean Darbelnet bezala "tema eta bertsioa bueltatze" hutsera (J. Darbelnet, 1963, 354 orr.), zeren banakako esaldi isolatuei dagokien gramatika eta itzulpenezko deitzen zen metodo zaharretik aldendu besterik ez bait du egiten, (cf. Ladmiral, 1979, 166... orr.) eta beraren "oso bestelako asmo" delako hori ez bait litzateke itzulpen unitateak mugatzea besterik izango, hau da, hitzez hitzezkoak sortzen dituen errebeskeriei itzuri egin diezaieketen "hitz multzoak" mugatzea besterik ez (J. R. Ladmiral, 1979, 203... orr.).

Era berean ez da nahikoa, maina edo "habilezia" (Fertigkeit) berezi eta meneragaitz bat bailitzan ulertutako (K.R. Bausch, 1977, 526... orr.) itzulpen pedagogiko edo "komertzial"-eko "eskol-ariaketen" alde mintzatzea (J. Darbelnet, 1963, 351 orr.). Horrela, bada, garrantzia haundiko arazoa da hizkuntzen irakaskuntzaren bostgarren helburu (bostgarren skill edo Fertigkeit) bezala ez ote litzatekeen ezarri behar itzulpenarako gaitasun edo itzultzaile gaitasun (translatorische Kompetenz) kasik profesionala: ez al litzateke, bada, beharrezkoa, gure ikasleek mintzatzen eta ulertzen, irakurtzen eta idazten jakitea bai, baina itzultzen ere jakitea (F.R. Weller, 1977, 485... orr.)? Arazo honek, faktore pedagogiko eta sozial asko dakar berekin, itzulpenaren eta hizkuntzen irakaskuntzaren arazo bikoitzaz haraindi; eta ezin da esan bostgarren helburu honen alde mintzo diren autoreek, nahasmenduari erabat itzuri egiten diotenik, beraien lumaren puntan "itzulpenak" esannahi zabalegia hartzen bait du, non sar bait daiteke hala hizkuntzarteko bitartekotza orohar, nola hizkuntzen didaktika bere ere ("oro da orotan eta alderantziaz" printzipioari jarraituz!). Nola-

nahi dela ere, eta debatearen hondoraino jaitsi gabe, uste dugu gutxienez alde batera utzi behar dela itzulpena ariketa moduan instituzio pedagogikoaren ghettoan gordetzen duen banakera (J. R. Admiral, 1979, 40... orr.) eta "itzulpen mintegian" egiazko egoeren itxura egin behar dela, non itzulpena, nahiz eta ezin esan egiaz "profesionala" denik, parametroak definituak eta gertagarritasuna zehazki ziurtatua dituen komunikazio-estrategia baten barruan esplizituki kokatuko bait da.

Arlo honetako literatur espezializatuan maiz aurki daiteke itzulpena kontrolerako prozedura dokimologiko bezala edo ikastearen eragile pedagogiko bezala, elkarren kontra jarriak; autore gehienak lehenengo aukeraren alde azalduko dira, baina bigarrena berriz ez dute, ahalik eta modu mugatuenean besterik, onartzen. Argi dago, beraz, guk hemen agertzen dugun geure tesia, joera orokor horren aurka doala. Eta adierazi behar dugu, baita ere, geure aldetik hori ez dela pedagogiazko hautapen bat besterik, hau da: oraindik frogatzeke dagoen postulatu bat. Guk, hala eta guztiz ere, hiru oharpen ekarri nahi ditugu hautapen horren alde. Hasteko: itzulpena kontrolerako bide soil bat izan ordez eragile pedagogiko ere bilaka daiteke, hemen azalduko kondiziotan bada, eta zehatzago esanda aurrerago definitu asmo dugun "itzulpen mintegia"-ren hesparruan. Bigarren: horrela ez izatekotan hobe da hautapen biak baztertzea, guk "interferentzia dokimo-pedagogiko" deitu dugunaren eragin kaltegarriei itzuri egingo badiugu: azken azterketa itzulpen baten bitartez bideratzen baldin bada, era berean bukatu ohi da ikastaroen iharduna ere, era horretara ikasketak hori edukin dokimologikoz betetzen delarik (J. R. Admiral, 1979, 69... orr.), ez baldin bada behintzat irakasleak bere kargu utzi dizkieten ikasleen eskol-etorkizunaz batere ez arduratzea hautatzen duelako... Azkenik, bada, ikuspuntu psikolinguistikotik ikusita, gure hipotesia da itzulpenak (itzulpen mintegiaren bitartez beraren pedagogia "eraberritu" ondoren, noski) berak ematen duela aukera ikasketaren prozesuan hizkuntzaz "jabetze"-aren lekua hartuko duen "ikastea" gerta dadin.

(II) Benetako "bertsioa" ez bada ere, gutxienez hizkuntza arrotza (L2) jatorri-hizkuntzatzat (Herüberstzung) duen itzulpena bada, inplizituki erabateko lehenetasunaz tratatzeko gehiegizko joera dagoen sorkuntza gramatika delakoaren oso bestelakoa den jasotze-gramatika

baten berarizkotasunean ezarri beharko da azentua. Areago, "jasotze-gaitasuna" sustatzea komeni du, horrela "hiztegi pasibo"-aren aspal-diko ideiarekin topatzen gara. Bestenaz, temaren aurka zuzentzen dira batez ere itzulpen pedagogikoari egotzi dakizkiokeen kritikak (J.R. Ladmiral, 1979, 47... orr.). Horrelako hautapena egitea, alegia, metodo modernoek lehenengo mailan garatzen duten oinarrizko gaitasunaz haraindi, bigarren mailarako batez ere jasotzailea izan behar duen gaitasun baten (12) aldeko aukera egitea, soluzio errealista da, errealitatei begiratzen badiegu, hau da: hizkuntzen irakaskuntzak topatzen dituen eragozpenei begiratzen bazaie. Hartu beharreko erabakia da hau dudarik gabe, jaso ditzakeen baina erantzuteko toki egokiena hau ez den objektio guztiak arren. Argi dago, bestalde, xede-hizkuntzatat ama-hizkuntza (L1) duen itzulpenean erabiltzen dela batez ere halako gaitasuna. Itzulpenak garrantzia haundiko lekua zuen aintzinako hizkuntz-irakaskuntza moduak ematen digu horren exenplu argia, bertan tema ez bait da, argi dago, egituren finkatzaile besterik, jatorrizko mintzalarien eta gaurkotze-egoeren faltaz...

(III) Ikuspegi horri jarraituz, ahozkoaren lehentasuna berriro auzitan jarri beharko litzateke eta idatziari aintzinako hizkuntzen irakaskuntzan lortu duen lehen mailako lekua berriro eman. Jasotze-gaitasunaren hautapen errealistak suposatzen du, testua ikuspuntu ezberdinetatik aztertu ahal izateko, eta bigarren mailako gaitasun honek berez duen metahizkuntz-kontzientziak erabilgarri bihurtuko dituen erredudantziak hatzematete aukera ematen duen euskarri materiala dagoela (13). Itzulpena ikuspuntu honetatik irakurketarekin identifikatu ohi da, haren egikunea da (14), ahalezko izatetik izatezkora pasatzea. Hizkuntzalaritza hutsari zibilizazio ikasketak (Auslandsunde), literaturazkoak... lotzen dizkion **filologia** baten osagarria hizkuntzen didaktikari inposatzen dion bitartekoa da idatzia. Itzulpena ere "filologia aplikatua" izanik, Humanitate klasikoen bertsio modernoa da dudarik gabe (15).

(IV) Hizkuntzen irakaskuntzan metahizkuntza gramatikal edo linguistikoa berriro ezartzea ere komeni da, bai eta ezagutze-prozesuei gero eta leku zabalagoa egin ere, metodo aktiboak direla eta lehenengo hegaldatze-fasea karakterizatzen duen eta guki siltasun metalinguistikoa izena eman diogunaz haraindi (16). Horrela, bada, ez

dago zertan itzulpenean atzeramendu bat ikusterik, guk hizkuntzen didaktikan defendatzen dugun "errealismoa" etsimena bailitzan. Izan ere, hizkuntzen pedagogiaren plan orokorrean ez du metahizkuntzak bakarrik izan behar, halabeharrez, ikasketa esplizitu baten gaia, besterik ere bada. Ez dugunez gaurdaino, hizkuntzalaritzak oraindik ezin eman duen hizkuntza irakatsien behar bezalako deskripziorik (17) "egoeran" jarritako, hau da, itzulpenak elkarren ondoan jartzen dituen hizkuntz-sistemen konparaketa izango da metahizkuntz-kontzientzia lortzeko lokarrik onena. Irakasleak horrela, metahizkuntz-maieutika bat eraman ahal izango du aurrera, itzuri eginez era berean linguistizismo positibistaren arriskuari, nolabaiteko lantxo praktikoegei eta enpirikoegienari eta, nola ez, alde batera utzi behar izan duen isiltasun metalinguistikoari. Hizkuntzalaritza kontrastibotik estilistika konparaturainokoa (18) itzulpena piskana-piskanaka filologia hatzematera iristen da azkenik.

(V) Ikusten da, beraz, ama-hizkuntzak (L1) duen garrantzia, eta ez da nahikoa hegaldak ondorengo bigarren fasean jasaten duen debekua altxatzea; baina haruntzago joan beharra dago. Erronkazale samartzat har nazaten arriskuan jartzen banaiz ere esango dut, hizkuntza arrotzen irakaskuntzan bertan ere ez duela hizkuntza arrotzak zertan izanik derrigorrez gauzarik funtsezkoena; areago, gutxi falta zait esateko nor beraren hizkuntzaz hobeto jabetu ahal izateko ematen den buelta bat besterik ez dela hizkuntza arrotza... Dena den paradoxa hau ez da hasiera batean irudi dezakeen bezain nabarmena, tautologia litzateke gogora ekartzea orain hizkuntzen irakaskuntza ez dela hezkuntzaren testuinguru orokorrean ezartzen den elementu osagarri bat besterik, eta haren menpe egon behar duena. Bertsioa, sarritan esan bezala, frantzesezko ariketa da (19) kasu honetan ama-hizkuntzan burutua, alegia, eta hala da a fortiori "itzulpen mintegia" ere. Baina eduki dezagun betiere kontutuan ama-hizkuntzaren erabilera-aren berebaitakoa den hizkuntzaren funtzioa dela itzulpenaren irakaskuntza Humanitateak deituriko hesparuan sartzen laguntzen duena... eta horrela gertatzen da zentzuzkoa kontsideratzea Frantzian hizkuntza klasikoetako irakasleek latina eta grekoa frantzesarekin batera irakastea, edota Alemanian ohizkoa gertatzea irakasleek beren Fächer ("irakasgai" "Irakaspide")-ren artean alemanera (L1) eta beste hizkuntzaren bat (L2) izatea, etab.

Oraingoan, aurretik azaldu ditugun printzipioei buruzko ohar batzuk egin behar ditugu. Lehenik: zerrenda irekia dugu hau, noski (20) eta elkarren arteko lotura formulazio kontua da, izan ere argi bait dago denak elkarrekin loturik daudela, eta elkarrekin dauden aldetik jokatzen dute hemen aztertzen ari garen itzulpenaren berriroko onenaren alde ere. Bestela ere, printzipio hauek ez dira erabat berriak, han-hemenka agertuak bait dira nahas-mahas, orokorrean azaldu dugun berpizte metodologikoan. Horrela, bada, metodo berriei kontra egiteko erabakia, beharra (psikologikoa) bertute (pedagogikoa) bihurtzea baino zerbait gehiago nahi duen proiektu orokor eta sistematiko baten barruan kokatzen da. Defendatzen dugun estrategiaren itzulikatze hau (Kehre) —behin ikasleek maiztasun haundiko tasá duten oinarritzko egiturak hartzen dituzten elebitasun koordinatuzko uharte tartean (oinarrien automatismoak) bereganatu dituztenean (21) itzulpena lehen planura ekartzen duena— metodo modernoek topatu ohi duten atalaseak berekin dakarren arazo pedagogikoarentzako erantzun bat da.

Dena den, hautapen pedagogiko honek badu eutsiko duten pedagogian onargarri bihurtzen duten zenbait elementu. Argi eta garbi egiaztatu da hizkuntza baten ikaskuntza (lato sensu) aldizkako fenomeno dela (J. R. Ladmira, 1979 a, 14... orr.). Era berean, S. Krashen-ek inguru formal edo instituzionaleko ikaskuntza (learning), inguru ez-formal edo naturaleko jabeakuntzari kontrajarrit egiten dituen hipotesien barruan (1976, etab.) badirudi itzulpena den eragingailu pedagogikoak ordezkatzailer bezala funtziona dezakeela, edota ikaskuntzaren "input"-ak (elebitasun compound), benetako jabeakuntza baten gai izateko aukera emango dien barruko umotze psikolinguistikoaz aurretik, biltzen dituen galbahe bezala. Printzipio hauek aurrera eramateari doakionean berriz, esan beharra dago argi ikusi dela, metodo modernoek bidez, hizkuntz-laborategia bera ere erabiliz, latina eta grekoaren irakaskuntza berritzeari ekin diotenen egin dituzten esfortzuen pare parean (J. Debut, 1974) eta beraien alderantziz, oin buruka, eramaten gaituela hizkuntza bizien irakaskuntza aspaldiko hizkuntzen irakaskuntzara hurbiltzera.

3. "Itzulpen mintegia"

3.0. Itzulpena berriro garai batean izan zuen lekura ekartzea eta beraren pedagogia berritzea, berriz ere esango dut, ez da "iraultza" pedagogiko berririk aldarrikatzea, aurrean egin ditugun analisisien asmo "erreformistan" dago gehiago, zenbait gehiegikeria gogora ekarri eta gehiegi gaitzetsi izan diren ohizko ihardunen jasotzeak ekar zezakeen onaz ere, neurri batean behintzat, ohartaraztea. Honen betetzeko proposatzen dugu hizkuntzen irakaskuntzan lehen mailako lekua egitea (bigarren fasean halere, hau da: behin "hegaldapena" ziur dagoenean, lehen esan dugun bezala) guk itzulpen mintegi deitu dugunari. Berau ohizko "bertsiozko L.P. (lan praktikoa)"-etatik be-reiziz definitzen dugu, nahiz ez erabat kontrario bezala. Aurrean azaldu ditugun printzipio guztiak aurrera eramateko joera duela nabari zaio betiere. Praktiko gara honetan eta nahikoa dugu unibertsitate mailan izan dugun iharduera pedagogikotik estrapolazioa egitea, hizkuntzen pedagogia experimentalista baino klinikoagoa den bat burutu asmoz.

3.1. Testuen hautapena

Hartu beharreko lehenengo erabakia itzultzeko testuari dagokiona da. "Testu laburpen"-ak berekin dituen eragozpenak gainditzearen gaur egun "benetako dokumentu" izenarekin ezagutu ohi denaren alde jokatu dugu, hau da: hartzen ditugun testuetan beraietan daude emanak itxitura-erizpideak, eta horrela "pedagogoaren artaziei" ihes egiten diegu, bai eta halako "testuinguruaren neutralizatze sistematikoari" ere, zeinaren eragozpenak hainbatetan aipatu bait ditugu (J. R. Ladmira, 1979, 64... orr.).

Horrela, bada, hizkuntza (L2) ingurunean ezarrita dago berriro -ingurune hartzaren bi zentzuak hartuta, hau da: bai mezuaren egiazko "ingurua" (hizkuntzaz kanpoko), bai anglosaxoiek "ko-testu" deitu ohi dutena ere-. Puntu hau oso kontutan hartzekoa da motibazioaren planuan, ikasteko hain beharrezko delarik, lehenengo saiotoako baliapide ludikoak agortzen direnean eta hegaldaren lehen fasean egin daitezkeen aurrerapen ikusgarriak ezinezko bihurtzen direnean mantentzen hain zaila dena. Testu hauek, horrela, multzo zabalago baten

barruan kokatuak, pedagogiazko ardura faltaren "ontzi itxia" deitu dugun horretatik kanpora aterako dira (ibid. 73... orr.) eta motibazio elementuaz gain, ikasleen funtsezko heziketarako laguntza ekarriko dute.

Testuak, gutxi gora behera garai honetako "filosofo" direnen lanetatik hartu ditugu –"filosofia" hitzak Frantziako Institutio pedagogikoan duen zentzu zabalean hartuta, hau da: bere baitan hartzen dituelarik zientzien logika, antropologia psikoanalitikoa, pentsamentu politiko orokorraren eta giza-gaien zati haundi bat, etab. Esandakoaren haritik aukeratu ditugu, bada, Freud edota Marx, E. Fischer edo W. Reich, Max Planck, Kant edo Heidegger-en "artikuluak", saio edo hitzaldiak... edo oraindik ere hobea dena, Nietzsche-ren eta Th. W. Adorno-ren aforismoak.

Diskurtso filosofikoaren hautapena irizpide linguistiko, pedagogiko eta "instituzionaletan" oinarritzen da. Aldi berean zailak, zorrotzak eta tinkoak (edo "sakonak") diren testuak nahi ditugu, astiro egin beharreko irakurketa eskatzen eta merezi dutenak, testua landuko (zentzu etimologikoari jarraituz) duen irakurketa alegia. Bestela ere, kontzeptualizazio filosofikoak duen edukinaren logikak "esangura eraikitzeko" aukera ematen duen erreduzantzia "pragmatikozko" edo areago semiotiko-semantikozko elementu erabakiorra dakar berekin (22). Bertan erraztasun faktore bat dago, funtsezko heziketaren ikuspuntuari eta motibazioaren eragileei gaineratu egiten zaiena; honek guztiak etengabeko erreflexiora darama, bai eta taldeko eztabaidara ere, eta horien ondoren gerta daiteke benetako itzulpen lana, irakurketa-idazketa baten zentzu estuan (H. Meschonnic, 1973). "Itzulpen mintegian" guk ulertzen dugun eran, ez da testuen interes guztia lehenengo irakurketarekin ahitzen, testu bakoitzak azterketa sakon eta luzea izango du, aldi aldi egina (hau da, instituzio pedagogikoaren barruan zenbait "ekitalditan" banatua).

3.2. Egitarau pedagogiko baten aldiak

3.2.0. Hasteko, itzultzeko testua polikopiatuta emango da; ez da hau gauza hutsala, horrela ikasleak marrazteko aukera izango bait du (materiala "landu"), espazio tipografikoaz jabetuko da eta daukan informazio metalinguistiko gehiena, eta batez ere konnotazioen uniber-

tsoari buruzko ohar “mikroskopikoak” bertan bilduko ditu; ondoren, ikusiko dugu gero (cf. 325), testua bera gertu behar du izan ikasleak, beti eskura. Orri polikopiatuak izanik kantitatea muga daiteke ikasle bakoitzari ale bat baino gehiago eman ahal izateko moduan, eta hala komeni ere du egitea, lanaren lanaz materiala hondatu egiten bait da. Arrazoi hauek direla, eta aztertuko diren testuen kopuru txikiagatik ere, ez da beharrezkoa eskuliburu edo testu-bildumarik erostea, nahiz eta ikasleek, hori bai, lan tresna askorekin aberastu beharko duten beren liburutegia.

3.2.1. Testua etxean prestatu beharko da lehenik –garai batean batxilerrek egin ohi zuten bezala, denbora luzea latina edota grekozko “prestaketak” hain zuzen ere deiturko horretan emanaz” hau da: eskura dituzten lan tresna guztiak bete betean erabiliz: hiztegiak, hizkuntzen artekoak eta batez ere hizkuntza bakarrekoak (bai L1-entzako eta bai L2-rentzako ere), gramatikak (pluralean!), bai eta merkatuan dauden bilduma, agenda, vademecum eta hizkuntzarekiko beste edozein gida arauemaile... Testu jakin bati lotutako itzulpenaren helburua autoinformazioaren eragile bihurtzen da, irakatsitako hizkuntzaren hesparru hutsetik askoz haruntzago abiatzen da eta, esango dugu beste behin ere, ikasleen funtsezko heziketan parte garrantzitsuagoa hartzen du.

3.2.2. Ikasgelako lehenengo lan aldia jatorrizko testuaren gainean arituko da. Etxean egindako presta-lanak agertu dituen hutsuneak orraztu, osatu eta zuzentzen ditu. Orduan da jatorrizko hizkuntza arrotzari (L2) buruzko jakintza metalinguistikozko igorpen masibo eta sistematikoa egiteko unea, geure kasu honetan alemanerari buruzkoa hain zuzen: gramatika-jorraketa, gramatika arloan zabaldu-tako oker edo hutsuneen berrikusketa linguistiko sakonak, fitxa idiomatikoak, estiloari buruzko adierazpenak, etab. Guzti honi gaineratuko dizkiogu perihizkuntza izendatu dugunaren elementuak; elementu hauek testuaren datu linguistiko hutsak zabaldu eta gaurkotu egiten dituzte: jatorrizko kulturari (Landeskunde) buruzko “zibilizazio”-informazioak, literatur-historia (zeinaren barruan kokatzen bait da testua) ere, eta testuaren gaia den, testuak “ukitzen” duen horri buruzko datu “sigmatikoak” (23). Ikuspuntu honetatik garrantzitsuena ezagutza hauen igorpen masiboki didaktikoa testuaren inguruan egitea da, testu jakin batenean, oroimenak jasoko duena alegia.

Lan honek, azken finean, eta batez ere, oinarriko itzulpen deitzen dugunera darama, hau da: xede-hizkuntzako (L1), kasu honetan frantzesezko, parafrasi plural eta ahozkoa. Hortik sortzen da (neurri batean) "frallemand" hizkera mordoiloa, non jatorrizko alemanerazko "arbeitssteilig", xedezko "frantzesean" itzuli bait daiteke *division du travail(que)ment*, eman daitezkeen adibide askotatik bat ematearren... Bertan *third language* fenomenoak gertatzen da, Alan Duff-ek itzultzaileen-interferentzien eraginpean dauden horiek xede-hizkuntzan egin ohi dituzten okerre buruz mintzo denean adierazi nahi duenaren zentzua emanaz esamolde horri. Guk, ordea, uste dugu, hizkuntzarteko uztartze zilegizko ez den honek semantizatze joera heuristikoa duela: L1-en ohitura murrizak hautsi eta L2-koa den inbentario semantikoa "aldatzea" posible egiten duen zeharbidea bait da. Behin hasierako txundimena gaindituz gero, prozedurak daukan kilikamenak beraren alde egiten duela iruditzen zaigu, bai teoria pedagogiko eta psikolinguistikoaren mailan, bai eta ikasleen erreakzio espontaneoren mailan ere. Izan ere, sortzez xede-hizkuntzako hitzun izanik, jatorrizko hizkuntzak L2) sortutako interferentziak gertatzeko arriskua oso ahula da; hizkuntz-bortxa txiki hauek, ordea, L1 objetibatze aukera ematen dute, kontzientzia argiagoa sortzeko eta kontrolerako bideari lotzeko (monitoreo) aukera ematen dute, beraz, bestela iruditu arren, beraien adierazpideak zehazteko eta L1-ean interferentziei aurre egiteko ahalmena garatzen lagun dezakete. Areago, erreflexio metalinguistikoak hizkuntzalaritzak kontrastiboaren itxura hartuko du.

3.2.3. Jasotako informazio hau guztia ondo aztertu eta jatorrizko testuak zailtasun gehiagorik azaltzen ez dienean ikasleei, beraiek etxean egin beharko dute klasean landutako testu(zati)-aren arretazko itzulpena. Xede-testu hau(ek) bertsio(ak) kontsideratuko d(it)ugu: Lehenik, bertan zerbait badelako, ohizko "bertsioa" itzulpen pedagogikoaren irudizko kasu bezala gogoan hartu gabe egoterik izango ez lukeena (J. R. Admiral, 1979, 40... orr. eta 50... orr.), baina baita nork "bere" irtenbidea proposatzen duelako ere, jatorrizko testuaren xede-hizkuntzako "bere bertsioa" hain zuzen.

3.2.4. Ondoren, xede-itzulpena deituko dugunaren aldira pasako gara. Eta honetan, berriz, ikasleek proposatutako bertsio bakoitza har

daiteke kontutan eta seriozki eztabaidatu bigarren lanaldi batean, aurreko ekitaldian jatorrizko testuaren zailtasunak argitu ondoren. Honen bidez kontrol dokimologikoak gehiegi markatzen duen pedagogi ezezkorraren gabeziei itzuri egin ahal izango zaie (J. R. Ladmiral, 1979, 71... orr.). Pedagogia ezezkor hau "pedagogiazko arduragabeziaren" egitura orokorrean kokatzen da, eta ohizko zuzendu beharrekoaren "ariketa magistrala"ri ghegizko balioa aitortzen dion era berean (ibid. 73... orr.) ikasleak beraien kompetentziaz desjabetu egiten ditu, ama-hizkuntza dutenaren (L1, hemengo honetan frantsesa, xede-hizkuntza) araua bera ere gainobjetibatuz. Esandako itzulpen mintegiak ez du, beraz, hasieratik ezarriko zuzendu beharreko ariketa magistralaren monopolioa, era horretara, proposatzen dugun ariketa desberdinen ebaluaketa diferentzial eta diferentziaturako aukera emanez. Era berean, L1-en baliabideren gaineko lan sakona egitea permititzen du eta azal ditzake ordura arte ikasleek ohar gabe (L2)-n egiten zituzten hutsuneak. Idazkera-lanaren (24) gainean aritu ahal izango da horrela, bai eta xede-testutik (L1) jatorriko testura (L2) eta alderantziz etengabe dabilen joan etorriak sortzen duen elkarren arteko dialektikaren gainean ere (J. R. Ladmiral, 1979, 232... orr.). Joan etorri honek estilistika konparatua irakasketeko eta disimilazio pertsonalerako aukera ematen du, darbiltzan bi hizkuntzetarako bakoitzak eduki dezakeen sentsibilitatea areagotuz. Taldearekin —eta beraren laguntzaz, ikasleek proposatutako "aurkikuntzarik" ote dagoen begiraturaz adibidez— egindako lan (hizkuntzalaritza klinikozkoa esango genuke) hau amaitu ondoren proposatuko du irakasleak bere bertsioa den xede-itzulpen bat (25).

3.2.5. Hitz batean, hizkuntza arrotzezko jatorrizko testuak, etxean ikasitako eta klasean "buruz" ahoskatutako errezitazioa emango du, aintzinako hizkuntzen irakaskuntzan egin ohi zen legez. Memorizazioko azken etapa hau behar beharrezkoa da: Hasteko, eta batez ere, landutako testutik aurreko etapetan eskuratutako ezagupenen multzoa finkatu egiten duelako, Gestalt psikologiak deskribatu dituen fenomenoaren moduko asoziazio-oroitze fenomeno global baten bidez; testuak, beraz, hizkuntza arrotzaz jabetzera daraman bidean dauden balizak dira. Memorizatze honek ezartzen ditu, gainera, ikaslearengan, ondoren zenbait transformazio (sintaktiko, morfologiko eta "lexikalak") egiteko aukera emango dioten oinarriko egiturak

izango zaizkion esaldi konplexuen eskemak; honek emango dio L2-n sintaxi konplexua ondo erabiltzeko aukera –Hiztegi mailan egiten diren irabazi nabarmenez ez mintzatzearren. Berrito esango dugu: aintzinako hizkuntzen (edota hizkuntza bizien) irakaskuntza tradizionalak intuitutako zenbait ikasketa-modu berrito argitaratu ekarri nahian gabilta.

3.3. Hizkuntzen irakaskuntza itzulpenaren barruan

Proposatu dugun eremuan, ikusi da, itzulpen mintegiak hartzen du leku guztia; hala da, bai, hizkuntza irakasteko hesparru globala bihurtzen da (horixe esan nahi du irakurritako estudio honen izenburu orokorretik konklusio honen barne-izenburua sortzen duen kontrameta-morfosiak...). Berriz ere esango dugu: inolaz ere ez dugu sinisten pedagogia espermentalistaren zehaztasun faltsu eta antzugarrian; esperientzia singular bat besterik ez da (denak bezala!), eratzen duten parametroek baldintzatua, eta kokatua dagoen unibertsital hesparruak bereziki baldintzatua halere (26). Baina uste dugu mutatis mutandis estrapolatu egin daitekeela, hau da: horretan saiaturiko diren irakasleek, beraiek dituzten egoera jakinetan birsortu ahal izango dutela. Amaitzeko esan dezagun, baita ere, zinez: horrela egitekotan, unibertsitate eta eskolaren artean dagoen eta aipatu dugun batera ez etortze hori zuzentzeko bidean jarriko dira.

OHARRAK

- (1) "Traduction eta psychologie" (cf. inf.) delako gure artikulua bezala, testu hau ere erabili dugu aztergai Lille III-ko Unibertsitatean (U.E.R. Angellier) izandako hitzaldi-debateetako ihardunaldian, bertara Michel Ballard-ek gonbidatu gintuelarik (Artikulua idazteko garaian ez genuen Michel Ballard-en lanen berririk, horrexegatik, bada, ez ditugu seinalatu beraren eta gure lanen artean sarri gertatzen diren adosguneak). Testu hau Coloniako Unibertsitatean eman nuen hitzaldi baten frantzezko itzulpena ere bada; Alemanian ere argitaratua da: K.R. Bausch & F.R. Weller (1981) 217-232 orr.
- (2) J. R. Ladmiral (1979), 83 orr. Bertan aztertzen da itzulpenaren arazoei buruz zuzendu genuen "Langages" aldizkariko alean agertutako estudioa

- (J. R. Ladmiral, 1972, 8-39 orr.). Gaur egun agorturik eta zati handi bat berriro argitaratua dago Die Neueren Sprachen aldizkariak itzulpenari eskaintako ale berezian (F.R. Weller, 1977, 489-516 orr.). Berriro hartu eta osatu egin dugu "Traduire: théorèmes pour la traduction" (J.R. Ladmiral, 1979, 23-83 orr.) geure liburuaren barruan. Azken argitalpen horren orrialde zenbakiketaren arauera egingo ditugu estudio horren aipamenak.
- (3) J. R. Ladmiral (1979), 24-40 orr. Bertan 1970ean argitaratutako azalpeni buruz genioena ez dute ondorengoek inolaz ere ezereztatu, besterik esan genezake: areago iritzi diotela, alegia.
 - (4) Nahiago dugu termino generiko gisa eta pluralean erabili "metodo zuzena" terminoak Frantzia 1902garren urtean hasi eta Munduko Bigarren Gerra ondotxo igarota zen arte instituzioak aurrera eraman zuen metodoa adieraziz.
 - (5) Hesparru jakin eta ondo mugaturiko horren barruan daude, guk itzulpenari orokorrean egindako kritikak. (J. R. Ladmiral, 1979, 24... orr.) eta ez ordea "nolabaiteko pedagogia protestazale edo iraultzailearen bidez bermatu nahi" izateagaitik, G. Mounin-ek dioen bezala (1976, 206 orr.), puntu honetan erabateko kontraesanean eroriz. Ezer ez dago gure asmoetatik urrutiago (J. R. Ladmiral, 1975 a, 6... orr.) berak suposatzen digun "terrorismo ideologikoa" (G. Mounin, 1976, 207 orr.) baino, eta instituzio ofizialen aurka "matxinatzea" edo "gerran sartzea" baino, berari iruditu zaion bezala (ibid.), logika pedagogikoak ageri ahal izan dezan eginiko diskurtso-azterketa baten elementuei bidea ematearekin konformatu gara; hori neurri batean ideologikoa da, noski (J. R. Ladmiral, 1979, 27... orr.). Itzultzeko testuen aukerari buruz egin edo ditugun kritiken arteko bati edo besteari doakione (ibid. 65-69 orr.) cf. inf.
 - (6) Aipa dezagun bakarrik F.R. Weller (1977) -eta berak bildu dituen ekarpenak- kasu honetarako hain argigarriak direnak. Adieraz dezagun bertatik, alde batera utzi ditugula, orohar (nahita eta tradizioz, baina leku faltaz ere bai) honetan landutako arazoak ukitu dituzten argitalpen guztien "sarrera" (Rezeption) sistematikoari zeregin "filologikoa" lotzeko asmoz. Aldiz, estudio honek jarraipena ematen dien aurreko nire zenbait lan aipatu izan ditut.
 - (7) K.R. Bausch (1977), 517 orr. L2 besterik ez erabiltzea eskatzen duen (zuen?) postulatuari (Einsprachigkeit) kontra egiten dion "heimlich Anderthalbsprachigkeit" bat azaltzen du, F.R. Weller-en formula bikaina gogora ekarri.
 - (8) Hizkuntzen pedagogian dugun jarrera, erabat "ideografiko" eta "klinikoa" da, pluralismoaren ikuspuntuari jarraituz, zeinaren gainean jardun behar genuela arlo honetan uste bait dugun [cf. J. R. Ladmiral (1975 a) (1977)...]
 - (9) Eta hau, nahiz eta etengabe ahalegindu, eta hautazko "metodoak" ere meneratu arren. Hau esanda, aipa dezagun bide batez, ez direla materia-

- le pedagogikoak sobretsi behar, gaur egun diren bezain sofistikatu eta onak direlarik ere. Honi doakionean esan behar da batzutan, neurritik piskat ateratako enkante alfer samarrean ote dabilzan susmoa nabari daitekeela.
- (10) J. R. Admiral (1975 b), 327 orr. "fremdsprachendidaktische Kehre" esamolde berbera F.R. Weller (1977), 485 orr.-ean ere agertzen da, zentzu bestelakoxean, ordea; bertan berpizte metodologikoaren mugimendu orokorraz ari bait da, zeinean bait dauka bere tokia gure "Kehre" horrek...
 - (11) J. R. Admiral (1979), 41... orr., bai eta K.R. Basch (1977, 520... orr.
 - (12) Metahizkuntza esplizitu baten ezagutza sendotzea dakarrena berekin: bertan biltzen bait da (IV) printzipioa osatuko duena. Cf. J. R. Admiral (1977) eta (1979), 55... orr.
 - (13) Ezagun da, eskola espezializatuetan, interpretariak "elite" direla itzulzaileen aurrean; ez litzateke "errealista" bide horretatik jotzea. Baina mass-median iraultzak egoera berria ekarriko digu agian, Europa hizkuntzanitzarena alegia (Afrika den bezala), non lurraldearen puntu baikoitza, telebista nazionalen multzoak "beteko" duen (kable bitartez)... Ingelesak esandako medietan duen lehiazko presentziak, hemen proposatutako analisiak erlatibizatu egiten ditu kasik funtsean, berari doakionean (cf. J. R. Admiral, 1979, 38... orr.).
 - (14) J. R. Admiral (1979), 232 orr. Areago, kontura gaitetzen Georges Mounin-ek gure ustez behintzat gehiegi hedatzen duen itzulezinaren problematikak (ibid. 45... orr. eta han hemenka), irakurketa bera ere auzitan jartzera jotzen bait du hain zuzen ere. (G. Mounin, 1963, 169... orr.).
 - (15) "Testu ederren mirespen" bezala ulertutako filologi honek (Jean Fourquet), (VI) printzipio autonomo eta gehigarri baterako materialea eman dezake. Ikus ere K. Reiss (1977).
 - (16) J. R. Admiral (1975 a) 11... orr. eta (1975 b).
 - (17) Hizkuntzalaritza deskriptiboari doakion pesimismo hori dela eta, alemaneraren salbuespena seinatu beharra dago, noski, Jean-Marie Zemb-en "Grammaire comparée" oso gertu bait dago behar den metahizkuntza egokia osatetik (1978). Seinatu baita ere, bestalde, autore horrek itzulpen arazoei ematen dien garrantzia. (cf. beraren II-garren alea, argitaratzeaz dagoena, guri idazteko eskatu zigun "Les noeuds gordiens" izeneko paragrafoa barne dela).
 - (18) A. Malblanc-ek (1966) baino hobeto J.P. Vinay-k eta J. Darbelnet-ek (1968) zabaldu dute bidea.
 - (19) Gauza bera esan ohi da temari buruz, bai, baina argi da ez dela hain zentzuzkoa (Admiral, 1979, 59). Hemen, geure inguru nazionalari jarraituz ari gara, non frantzea L1 bait da; nahikoa da, bada, terminoak aldatzea kontutan hartzen diren hizkuntzen eta herrialdeen arauera.
 - (20) Horrela, bada, (VII) printzipio bat gara dezakegu "espezialitate-hizkuntzei" ekinez, bai eta L2 komunikabide eta ezagutzak iristeko bide beza-

- la funtziona erazteko gogoari ere ekinez; cf. J. R. Ladmiraal (1979), 61 orr., (1975 b) 521 orr. eta (1977), 634 orr.
- (21) J. R. Ladmiraal (1979) 37 orr. eta (1975 a) 12 orr. (Leku faltaz ez dugu hemen, estudio honetan proposatutako analisisen aldeko azalpen psiko-linguistikorik egingo. Geroago bueltatuko gara horretara).
- (22) J. R. Ladmiraal (1977) 647... orr. (bai eta 671... orr.). Nahiz eta zehazki esanda diskurtso filosofikoa ez den "espezialitateko" hizkuntza, eta areago, gure iritiz, funtsezkotasunerako duen joera delarik, hain zuzen ere, pedagogiarako interesgarria izatea eragiten duena, ikus daiteke bertan aurretik aipatutako "komunikazio-ahalmenak" hartu beharko lukeen forma...
- (23) Ez zaigu gauza hutsala iruditzen Klaus Birnenhauer-ek George Klaus-i hartutako termino hori berriro jasotzea, erabilera zabal eta "pragmatiko" batekin eginda halere. (Kl. Birnenhauer, 1974).
- (24) ... zentzu freudiano samar, ia-ia freudianoan (J. R. Ladmiraal, 1980, 24 orr.). Bertan L1-en autoanalisi antzekoa dago, hizkuntzaren sakontze eta bereganatzea dago... ama-hizkuntzarena, gainera.
- (25) Hemendik ez da atera behar, horrelako itzulpen mintegia, irakas aldiaren aurretik prestatu behar ez duenik! Oso besterik, ordea, gu ari garen unibertsital hesparruan itzulpena "itzulpenezko"-aren, hau da "komunikatzaile"-aren itxura sinisgarriago eta efikazago izan dadin, argitaratzearen aitzakia erabili izan ohi dugu, aurretik argitarazle bati eskainitako itzulpena ikasleei proposatuz. Zenbait testu argitaratu ere argitaratu ditugu itzulpen mintegiaren izenean eta partaide izan diren guztiak banan-banan izendatuz: Ikusten da bertan elementu eragingarri oso oso efikaza dugula, baina esan beharra dago baita ere gehienetan ez dela izango... adeitasun paternalista besterik.
- (26) Era berean, diskurtso filosofikoaren aukera ez da geure uste edo preferentzia pertsonalen izenean bakarrik eginga (cf. J. R. Ladmiraal, 1977, 634... orr.), ingurune instituzionalagatik ere bai baizik: Horrela, bada, Frantzia bigarren mailako eskolaren amaieran filosofiko irakastaldi sendoa dagoela (zegoela?) alemanera garai honetako filosofiak hobesten duen hizkuntza dela, etab. eduki behar da kontutan. Bestelako ingurunean, kantagintza frantzea erabiliko dugu, alegia, hurrengo estudio-aren batean.

BIBLIOGRAFIA

- BAUSCH, Karl-Richard, 1977: "Zur Übertragbarkeit der 'Übersetzung als Fertigkeit' auf die 'Übersetzung als Übungsform' ", in F.R. Weller (1977), pp. 517-535.

- BAUSCH, Karl-Richard & Franz-Rudolf WELLER (Hrsg.), 1981: Übersetzen und Fremdsprachenunterricht, Francfort s/M.-Berlin-Munich, Diesterweg, 1981 (coll. Schule und Forschung: Neusprachl. Abt.).
- BIRKENHAUER, Klaus, 1984: "Subjekt- und Objekt-Bezüge beim Übersetzen", in W. Wilss & G. Thomé (1974), pp. 148-155.
- DARBELNET, Jean, 1963: "Pour une revalorisation des exercices de traduction dans l'étude des langues", in *Culture* (Québec), n. 24 (1963), pp. 348-355.
- DEBUT, Janine, 1974: *L'enseignement des langues anciennes*, Paris, P.U.F., 1974 (coll. SUP: L'Éducateur, n. 46).
- KRASHEN, Stephen D., 1976: "Formal and informal linguistic environments in language acquisition and language learning", in *TESOL Quarterly*, Vol. X/2 (1976), pp. 157-168.
- LADMIRAL, Jean-René (sous la dir. de), 1972: *La traduction*, numéro spécial de la revue *Langages*, n. 28, décembre 1972.
- 1975a: "Linguistique et pédagogie des langues étrangères", in *Langages*, n. 39, septembre 1975, pp. 5-18.
- 1975b: "Linguistique Appliquée et enseignement de la langue" (I) & (II) in *Revue d'Allemagne*, t.VII/n.3 & n.4, juillet-septembre & octobre-décembre 1975, pp. 634-653 & 654-677.
- 1977: "L'Allemand philosophique - une langue de spécialité et un enseignement interdisciplinaire" & "Allemand-zéro - Sur une expérience pédagogique d'initiation à l'allemand scientifique", in *Plurilinguisme à l'Université* (Louvain-la-Neuve), Bruxelles, Oyez, 1977, t. II, pp. 634-653 & 654-677.
- 1979: *Traduire: théorèmes pour la traduction*, Paris, Payot, 1979 (Petite Bibliothèque Payot, n. 366).
- 1980: "Philosophie de la traduction et linguistique d'intervention", in *Traduzione tradizione*, numéro spécial de la revue *Lectures* (Bari), n. 4-5, Agosto 1980, pp. 11-41.
- MALBLANC, Alfred, 1966: *Stylistique comparée du français et de l'allemand*. Essai de représentation linguistique comparée et Essai de traduction, Paris, Didier, ¹1961- ²1963- ³1966- ⁴1968 (Bibliothèque de stylistique comparée, n. II).
- MESCHONNIC, Henri, 1973: *Epistémologie de l'écriture & Poétique de la traduction*, in *Pour la poétique II*, Paris, Gallimard, 1973 (coll. Le Chemin).
- MOUNIN, Georges, 1963: *Les problèmes théoriques de la traduction*, préf. D. Aury, Paris, Gallimard, ¹1963... (Bibliothèque des Idées). Réédition en livre de poche: coll. tel, n. 5.
- 1976: *Linguistique et traduction*, Bruxelles, Dessart & Mardaga, 1976 (coll. Psychologie et sciences humaines, n. 60).
- REISS, Katharina, 1977: "Übersetzen und Übersetzung im Hochschulbereich", in F.R. Weller (1970), pp. 535-548.

- VINAY, Jean-Paul & Jean DARBELNET, 1968: *Stylistique comparée du français et de l'anglais*. Méthode de traduction, Paris, Didier, ¹1958-⁴1968 (Bibliothèque de stylistique comparée, n. 1).
- WELLER, Franz-Rudolf (éd.), 1977: *Übersetzen*, numéro spécial de la revue *Die Neueren Sprachen*, n. 5-6/1977.
- WILSS, Wolfram & Gisela THOME (Hrsg.), 1974: *Aspekte der theoretischen sprachenpaarbezogenen Angewandten Sprachwissenschaft* (Bd. 1), Sarrebruck-Heidelberg, J. Groos Vlg., 1974.
- ZEMB, Jean-Marie, 1978: *Vergleichende Grammatik: Französisch-Deutsch*. Comparaison de deux systèmes, 1^{ère} partie, Mannheim-Vienne-Zurich, Bibliographisches Institut (Duden-Verlag), 1978 (Duden-Sonderreihe vergleichende Grammatiken, n. 1).

Itzulpena: Bakartxo Arrizabalaga

SINTESIS

J. R. Ladmiral analiza en este artículo el lugar que debe tener la traducción en la didáctica de lenguas. Afirma, para entrar en el tema, que es notorio que en la didáctica de las leguas se está dando una vuelta a los métodos tradicionales, sobre todo a los métodos de la enseñanza de lenguas antiguas, y ello dentro del contexto de la "renovación pedagógica" en este campo.

Históricamente -afirma-, la traducción ha sido sobremanera criticada como método de enseñanza de las lenguas, sobre todo en Francia y Alemania, países en los que ha sido casi prohibida por decreto. Es innegable, en efecto, que el uso de la traducción como método de enseñanza de lenguas puede ser hasta contraproducente, en la medida en que choca directamente con los principios de la pedagogía activa, sobre todo con el principio que propugna que las segundas lenguas deben aprenderse sin hacer referencia a la lengua materna. Con todo ello la realidad es que la traducción no ha sido eliminada como método de enseñanza.

En este artículo Ladmiral analiza concretamente el uso de la versión -traducción de textos alemanes al francés por nativos franceses- en la enseñanza del alemán.

Es indudable que los métodos modernos son eficaces en la la primera fase de la enseñanza de una lengua. Sin embargo es cosa harto probada que dichos métodos tienen su umbral máximo, que al parecer ninguna optimización de los materiales didácticos logra sobrepasar.

No se trata, pues, de negar las realizaciones y los logros de los métodos modernos y volver al modelo tradicional, sino de cambiar el discurso sobre ellos, asumiendo sus valores, y combinandolos con lo positivo que tenían aquellos. No se trata de una simple vuelta al tema y a la versión, sino de aceptar el proceso de traducción como parte de la didáctica de lenguas, asignándole el lugar que le corresponde. Es necesario romper la asimetría de tema y versión, en la que los métodos modernos han inclinado la balanza hacia la aquel, y dar primacía, en un segunda etapa de la pedagogía, a ésta; pero no en la forma en que se da la enseñanza académica de la traducción, sino creando situaciones reales de comunicación, dentro de una estrategia de comunicación, en el marco de un seminario de traducción, que al final del artículo J. R. Ladmiral describirá en concreto.

J. R. Ladmiral, desde esta perspectiva, plantea cinco cuestiones fundamentales a considerar sobre el papel de la traducción en la didáctica de lenguas:

1. La traducción puede y debe tener una función pedagógica en dicha enseñanza, no solo, como ha sido normal, función de control (exámenes), ni siquiera solamente motivacional.

2. La práctica de la versión hace necesaria una gramática comprensiva, dar la primacía a la capacidad de comprensión en la segunda lengua (recuerda el antiguo concepto de vocabulario pasivo). J. R. Ladmiral recuerda que ésta es la única solución realista -insiste en el concepto de solución realista-, a los problemas de umbral máximo que se plantean al final de la primera etapa del aprendizaje de la lengua (aprendizaje de las estructuras fundamentales de la segunda lengua).

3. Es necesario cuestionar la primacía de lo oral sobre cualquier otro modo de expresión, y volver a dar primacía a lo escrito (en esta etapa), pues a nivel escrito en más fácil la toma de conciencia metalingüística, necesaria para ir más allá de los umbrales máximos descritos antes. En este sentido J.R. recuerda el paralelismo entre los procesos de lectura y de traducción (versión), tomados ambos en sentido de interpretación.

4. Es conveniente volver al metalenguaje gramatical. La mejor comunicación, puente o enlace metalingüístico es precisamente la presencia conjunta, la visión conjunta de las dos lenguas en la versión.

5. J. R. Ladmiral afirma finalmente que quizá la paradoja fundamental del aprendizaje de la segunda lengua, y del uso de la traducción en ella, es precisamente que el verdadero y principal objeto de este aprendizaje no es en realidad la segunda lengua sino la propia materna del alumno, que el aprendizaje de la segunda lengua no es quizá fundamentalmente sino una vía indirecta para la profundización en el conocimiento de la propia lengua materna.

La traducción, en este sentido, toma pues primacía una vez se han dominado las estructuras básicas de la segunda lengua, y es una respuesta a los problemas de umbral que presentan los métodos pedagógicos modernos.

SYNTHESIS

In this article, J.R. Ladmiraal analyzes the place translation should have in language teaching. He starts out by affirming that it is a well known fact that in the teaching of languages, traditional methods are being turned to, mainly, the methods used in teaching ancient languages, and this within the context of "pedagogic renovation" in this field.

He states that, historically translation has been excessively criticized as a language teaching method, especially in France and Germany, countries in which it has almost been totally banned. It is, in fact undeniable that the use of translation as a language teaching method can be even self-defeating in so much that it directly goes against the principles of active pedagogy, especially against the principle which advocates the learning of a second language without reference to the mother tongue. Even so, the fact is that translation has not been eliminated as a teaching method.

In this article, Ladmiraal specifically analyzes the use of the version—translation of German texts into French by French natives—in the teaching of German.

Undoubtedly, modern methods are efficient in the first phase of language teaching, however it has been proved that the said methods have their limit, which apparently no optimisation of teaching materials manages to surpass.

It is not the aim here to undermine the achievements made by modern methods and return to traditional ones, but to change the discussion on them and assessing their value, combine them with the positive points found. We are not dealing with a simple turn about of theme and version, we are talking about the acceptance of translation as a part of a language teaching method, giving it its rightful place.

It is necessary to break with the asymmetry of theme and version (translation) where modern methods have managed to swing the balance and give primacy in the second stage of teaching to translation, but not in the way academic teaching of translation is done, rather creating real communication situations, within a communication strategy, in the framework of a translation seminar, which at the end of the article, J.R. Ladmiraal specifically describes.

J.R. Ladmiraal, from this perspective, puts forward five fundamental points to be considered on the rôle of translation in language teaching:

1. Translation could and should have a pedagogic place in such teaching, not only, as it is normally found in examination control, and not even only as motivation.

2. The practice of version (translation) makes a comprehensive grammar necessary; give primacy to the capacity of comprehension of the second language (remember the old concept of passive vocabulary). J.R. Ladmiraal

says that this is the only realistic solution, he insists on the concept of a realistic solution to the problems of maximum threshold which appear at the end of the first stage of language learning (learning of the fundamental structures of the second language).

3. It is necessary to question the importance of oral rather than any other type of expression, and go back to giving the written form (at this stage) importance, because on a written level it is casier to become meta-linguistically concious, and this is necessary in order to get over the maximum threshold previously described. In this sense J.R. Ladmiral brings to mind the parallel between reading processes and translation (version) taking both as a form of interpretation.

4. It is useful to go back to grammatical metalanguage. The best meta-linguistic communication, bridge, or link is precisely the combined presence, the combined vision of the two languages in translation.

5. J.R. Ladmiral finally states that perhaps the fundamental paradox of the learning of a second language, and the use of translation in this learning, is precisely that the real and the second language, but the students own mother tongue, that the learning of a second language is in fact, perhaps an indirect way of learning in greater depth one's own mother tongue.

Translation in this sense becomes important once the basic structures of the second language have been dominated, and it is also an answer to the threshold problems which appear in modern teaching methods.

"ITZULPENA" eta hizkuntzen didaktika

Henri Besse

Hizkuntz arrotz baten ikasketaren hasieran eta hizkuntza hori zeinnahi prozeduraren bitartez irakasten dela ere, ikasle hasi berria beti baliatzen da abiaburuko hizkuntza batez (ama hizkuntzaz gehienetan, baina baita lehendik dakien hizkuntza kanpotarren batez ere).

Hizkuntz-irakaskuntzaren metodologiak, klasean nolabaiteko baliario operatorioa izan lezakeen hipotesi-multzo ahalik koherenteena bezala ulerturik, itzulpenaren problematika bat jaso behar du ondorioz, itzultzaileek eta hizkuntzalariak beronen fundamentuak azterturik lortzen dutenarekin kontraesanik izango ez duena.

Horrelako problematikak, hizkuntz-irakaskuntzaren metodologiak bere problematika espezifikoaren barruan bildu behar dituen gora-behera batzuk inposatzen dizkio itzulpen orori, eta problematika hori mugatua dago hemen hizkuntza arrotzaren ahozko ezaugarriak ikas-tera.

1. Itzulpena hizkuntzen didaktikan

Didaktikaz, metodologia jakin batek espezifikaturiko prozedura pedagogikoen multzoa ulertu behar da. Metodologiak gehienetan

egoera latentean baino esistitzen ez direnez (prozeduren beren baitan), zaila da didaktiken tipologia zorrotz eta zehatza proposatzea. Baina gaingiroki harturik bereiz daitezke lau (1), batzuk esplizituki itzulpenaren gainean oinarritzen direnak eta beste batzuk, berriz, bortizki baztertzen dutenak.

1.1. Inongo didaktikak ez du "itzulpena" ebitatzen

1.1.1. "Metodo tradizionala" edo "gramatika-itzulpeneko metodoa" deritzan didaktikak esplizituki erabiltzen du itzulpena erdal zeinuen hautagarritasuna gainditzeko.

Esate baterako, abiaburuko hizkuntzaren hitzen eta helburuko hizkuntzaren hitzen arteko ordain lexikalen zerrenda bat ematen zaie ikasleei, eta ordain horiek aurkezten dira bai grafikoki, tipografia berezien laguntzarekin (*a boy = un garçon; il padre, le père*), bai ahoz, abiaburuko hizkuntzako esaldi "metalinguistikoen" laguntzarekin (hala, ingelesa ikasten ari diren frantses hiztunen artean esaten da: *-En anglais, un garçon se dit a boy*). Zenbait kasutan, ordain horiek gramatikazko hitzei (paradigma hertsietakoei) bezainbat dagozkie gramatikazkoak ez diren hitzei ere (paradigma irekietakoei); beste batzuetan, azken hauek bakarrik ematen dira, hartara gramatikazko hitzak abiaburuko hizkuntzan emandako esplikazio batez trukatzeko dira, gramatikazko hitzen konbinazioek zein erregelei obeditzen dieten ezagutzeko modua izan dezaten ikasleek.

Ondoren "bertsio" ariketa bat proposatzen zaie: aurkeztutako hitz arrotzak esaldi segida batetik hartzen dira eta irakasleak itzultzeko hitz horiek abiaburuko hizkuntzara eskatzen die ikasleei. Ikasleak, adieraziz ezagutzen ez duen adierazle grafiko edo soinuazko arrotzaren aurrean, ahaleginak egiten ditu adierazi hori ordainen hiztegian aurkitzeko, abiaburuko zein adierazleri dagokion ikustearren. Adierazle horrek, zeinu ezagun bati dagokiolarik, adierazi batera bidaltzen du ezinbestean, eta abiaburuko adierazi hau da ikasleak adierazle arrotzari ematen diona. Hitza hitzaren ondotik, honela deszifratzen da hizkuntza arrotzeko esaldia, alde batetik aukeran dituen ordainen laguntzarekin eta bestetik abiaburuko hitzen ezaguerarekin.

Hizkuntza arrotzeko adierazietik partiturik abiaburuko hizkuntzara heltzeko ariketa horiek sarritan osatzen dira "tema" ariketekin, abiabu-

ruko hizkuntzatik partiturik helburuko hizkuntzara iristeko. Ikasleak abiaburuko hitzen adieraziei lotzen dizkie hizkuntza arrotzeko adieraziak, irakatsitako ordain erregelen arabera. Hizkuntza arrotza, hala, ikasleak lehendik ere ezagutzen dituen adieraziak bestela azaltzeko hautaturiko adierazle konbentzional batzuen segida bezala ageri da, batez ere ariketok ahoz egiten direnean kode-aldaketa horrek ematen dituen problemei buruz pentsatzen aritzeko azkartxo burutzen direnez.

Metodologiak, honelako pausoak nolabaiteko balioa izan dezan, beharrezkoa da ordainetan aurkezturiko hitzek ia erabat estaltzen dituzten adieraziak izan ditzaten eta horietako hitzen bat edo beste enuntziatu baten barnean azaltzean ordainak bertan duen esannahia lehengo bera izan dadin. Gehienetan, "lehen" edo "jatorrizko" deritzaien adieretatik abiaturik eraikitzen dira ordainak eta ordain horietatik abiaturik proposatutako enuntziatuek adiera berberak izaten dituzte: adierazien hitzez-hitzezko kode-aldaketak ez du ez "sasi-zentzurik" ez "kontra-zentzurik" izaten. Baina gerta daiteke horrela ez izatea: ematen da *buona = bonne, la sorella = la soeur, é = est*, eta gero honako bertsio hau proposatzen da: *la soeur est bonne, la bonne soeur* eta honako tema hau: *la sorella é buona eta la buona sorella* (2), ahazturik frantsesez *la bonne soeur* sintagmak (*le bon père* edo *la bonne mère*-k bezala) osatzen duten hitzen aldean oso adiera diferentea duela (3).

Oztopo horiek ebitatzeko, gramatika-itzulpenezko ikastaldi guztiek idiotismo kontzeptura jotzen dute (galizismo, hispanismo, germanismo, etc.) eta ikaslea behartua gertatzen da lexiko ordainen ikasketara osatzera ordainok funtzionatzen ez duten testuinguruak ikasiaz, erregela gramatikal bat ikasi ondoren bezalaxe, salbuespenak ikasi behar ditu.

1.1.2. "Zuzeneko metodoa" deritzanak, teknika pedagogiko aski desberdinak dituelarik, debekatu egiten die bai irakasleei bai ikasleei abiaburuko hizkuntzaz duten ezaguera kanporatzea. Eta debeku hau itzulpenaren ausentziaz dator eta hortik deduzitzen da ikastaldia "zuzenean" egiten dela helburuko hizkuntzan.

Baina *itzulpenak* (bere ingelesezko *translation* ordainak bezalaxe) bi adiera ditu: adieraz dezake itzultzeko ekintzaren emaitza (*itzulpen on bat, Xen itzulpena...*) zein emaitza horretara daramaten operazio

psiko-linguistikoen segida, operaziook oso algoritmo konplexuak segitzen diotelarik. Operazioak ezinbestez dira emaitzaren aurrekoak, nahiz emaitza definitibora iritsi baino lehenago eginak izan daitezkeen, edo bestela, emaitza hori lortu bada ere, ez da beti agertzen: gera daiteke enuntziazio "isilaren", barnekoaren egoeran. Beraz, izan daitezke itzulpenaren era burutu gabeak (ikasleak operazio guztiak bukatu ez dituela) edo agerian formulatu gabeak.

Irakasleak bere irakaskuntza hasten duenean errealitate "konkre-tuak" helburuko hizkuntzan denotatzen dituzten zeinuak emanek (klaseko gauza edo izakiei, koloreen adjetiboek dagozkien sustantiboak, mimikaz azal daitezkeen ekintzetara daramaten aditzak, etab.), zuzenean helburuko hizkuntzan aurkezten ditu, denotatuei dagozkien enuntziatu deskriptibo laburrez erakusten edo mimikatzen dituela: *-C'est une fenêtre; -J'ouvre la porte; -Je marche;* etc. Beraz, pauso honen modu kanonikoak eskatzen du irakasleak egiaztatu egin behar duela ea ikasleak zeinua bereganatu edo ulertu duen, honelako galderak eginez: *-Qu'est-ce que c'est?* (objektua erakutsiz) edo *-Qu'est-ce que je fais?* (ekintza bat mimikatuz), etab. Orduan ikasleak zeinu berriaren aurkezpeneko esaldia adierazten du: *-C'est une fenêtre, -Je marche,* etc.

Azpinarra dezakegu errepikapen honek ez duela ezinbestez esan nahi errepikaturiko zeinuen esannahia ulertu denik. Baina zerbait ulertu baldin badu, hau ezin daiteke ulertu itzulpenez baizik: erakutsiriko objektua edo mimikaturiko ekintza isilpean identifikatua izan da abiaburuko zeinu baten laguntzarekin, eta zeinu honen eta irakasleak ahoskaturiko adieraziaren artean, 1.1.1.en ikusi ditugunen antzeko ordainak eraiki ditu ikasleak. Bestela esan, ikasleak adierazle baten adierazia ez dakienean, abiaburuko hizkuntzako zeinu bat lotzen dio, bere ustetan helburuko hizkuntzako adierazleak jokoan sartzen duenaren identikoa dena, zeren eta bere barrenean pentsaturiko zeinuak eta adierazle horrek errealitate berera bidaltzen bait dute (4).

Problema da beti dela posible errealitate berbera denotatzea zentzu desberdinetako zeinuen laguntzarekin, erreferentzial dei daitekeen sinonimiaren bidez: Ingeleseko irakasleak esaten du *-Look, I walk* ("Begira, oinez nabil") eta ikasleak uler dezake mimikaturiko esaldia "aurreratzen ari naiz", "mugitzen ari naiz", "leihora noa", "pauso bat ematen ari naiz" etab. bezala. Nola irakasleak ez duen ordain ofizial bat ematen beste posible guztien artean, ikasleak ezin du abiaburuko

hizkuntzako adierazia hizkuntza arrotzeko adierazlerra ziurtasunez aldatu. Adierazle horrek, beraz, esannahi ahul samarra izango du, abiaburuko hizkuntzako zeinu multzo baten gainean eraikia, zeinuen aukera irakaslearen jokaeraren gainean oinarritzen denez. Proposaturiko enuntziatua "abstraktuagoa" baldin bada, klaseko egoerei berei lotua (adibidez, lehen kurtsurako: *-Bonjour, je m'appelle X... et vous?*), joera hori areagotua izango da.

Era berean, ikasleak irakaslearen prozedura ulertu arren, proposaturiko zeinu arrotzari dagokiona ez den erreferente bat identifika dezake helburuko hizkuntzan. Hau gutxitan gertatzen da izenei dagokienean, baina maizago adjetibo edo aditz arrotzen zentzuari dagokienean: Irakasleak esaten du: *-C'est gris* gauza bat erakutsiaz eta ikasleak pentsatzen du enuntziatua gehiago dagokiola gauzari berari bere ezaugarrietako bati baino, edo bestela, gehiago dagokiola ekintzaren elementuetako bati ekintzari berari baino (irakasleak entzuteko itxura egiten du, eskua belarri inguruan turuta moduan jarrita, eta ikasleak belarria erakusten duela uste du) etab.

Hala ikasbide hasiera orotan "zuzeneko metodoak" urruti daude itzulpena ebitatzetik, baina, prozeduren arabera, ikasleen arabera, ikasle berberaren jokabide psikologikoen arabera, proposaturiko zeinuen "izaeraren" arabera, bide ematen dute itzulpen gutxi-asko burutuak, gutxi-gorabehera hitzez-hitzezkoak, gutxi-asko okerrak lortzeko.

1.1.3. Didaktika "audio-oral" edo "audio-lingualek" linguistika estrukturalaren (batez ere amerikarraren) aplikazio izan nahi dute eta nola honek ez dituen zentzu arazoak tentu handiz kontsideratzen, hark ere ez ditu ia batere berritzen adierazi arrotzen irakaskuntzarako prozedura pedagogikoak.

Izan ere, autore eta irakasleei dagokie "zentzua parentesi artean deliberatuki jartzea, ereduaren automatizazioa makaldu edo konplikatu dezakeenez" (5), baina duda daiteke ikasleak adierazle arrotzak erabil ote ditzakeen esannahirik ematen saiatu gabeen. Ez denotatueta, 1.1.2.en bezala, ez ordainetan, 1.1.1.en bezala, oinarritu ezinik, non oinarritua bilatuko du, eta are gehiago bere lehenengo hizkuntza arrotza ikasten ari bada, abiaburuko hizkuntzako eta helburuko hizkuntzako egituren eta adierazien arteko antzetan. Forma arrotzak eta forma ohizkoagoak parekatuz, bigarrenoi lotu ohi dien zentzua eman-go die lehenengoei.

Transferentzia honek okerrik ekar ez dezan, beharrezkoa da noski formazko antz horiek beren kideko zentzuen antzekin bat etortzea. Eta hau, egiazki, oso kasu arraroa da familia bereko hizkuntzetan bertan ere. "Sasi-lagunek" (hizkuntza desberdinetako hitzak, adierazle foniko eta grafiko oso antzekoak edukirik, adierazi guztiz edo partez diferenteak dituztenak: esaterako, ingeleseko *fastidious* eta frantseseko *fastidieux*) badituzte parekoak sintaxi-mailan (halako egitura batek, azalean abiaburuko hizkuntzaren halako egituraren parekoa izanik, harreman semantiko arras diferenteak betetzen ditu: *I don't think much of him*-ek ez du zerikusirik *Je ne pense pas beaucoup à lui*-rekin baina *Je ne le tiens pas en grande estime* edo *Je n'en pense guère de bien*, eta abarren antzeko esannahiak ditu). Dударik gabe, arrazoi honegatik hizkuntzalaritza "kontrastiboa" deritzanak hirurogeigarren urtearen hamarkadan halako garapena egin zuen: elkarren parean jarritako bi sistema aztertuz, gerta daitezkeen interferentziak aurrikustea zen helburua, hartara "transferentzia" negatiboa zekarten haiek baztertu eta "transferentzia" positiboa zekartenak aprobeztatzeko asmotan. Proiektu metodologiko hau zailtasun teoriko eta praktikoeekin oztopatu da aldi berean, eta hemen ez dugu berauei buruz eztabaidatzeko lekurik (6) baina berauek egiten dute eite "audio-oraleko" ikastaldi gehienetan itzulpenera jo dadin, nahiz ikastaldian bertan autoreek ematen dutelako, nahiz irakasleak hala baliabiderik badutelako ariketa egituratueta eredutzat balio duten esaldiak "esplikatzeko". Kasu bietan, itzulpena hitzez-hitzezko era bat da, zeren enuntziatuak duen esannahia (7) (edo honelako edo halako egoeratan izan dezakeena) ulertzea baino garrantzizkoagoa bait da hizkuntzaren barnean nola egituratzen den ikustea: hala, Amerikanoentzako ikastaldi batean *-Va-t'elle à l'école?* galdera *-Is she going to school?* eta *-Does she go to school?*-en bidez itzultzen da, baina ez noski *-She is going to school?* edo *-She goes to school?*-en bidez (8).

Beraz, klase mailan behintzat, 1.1.1.en ikusitakoaren hurbileko itzulpen-problema aurkitzen da berriz ere, baina lexikoari baino gehiago dagokie morfologia eta sintaxiari.

1.1.4. Hizkuntzen didaktika audio-bisualean, non arriskutsua bait litzateke prozedura guztiak metodologia bakar batetik datozela baieztatzea, ezaugarri nagusia da irudiak erabiltzen direla adierazi arrotzetara iristen laguntzeko.

Jeneralean onartu egiten da, nahiz ez izan hau ez irakaslearen esperientzia ez honelako ikastaldietako ikasle hasi berriaren sentimendua, pedagogia audio-bisualak bide ematen duela ama-hizkuntza klasetik guztiz eta zeharo ezabatzeko eta "irudiaren liluratzeko botere erlatiboa kontutan edukirik, hark *inhibitu* egiten duela frantseseko itzulpena (abiaburuko hizkuntzakoa) entzundako esalditik" (9).

Baina enpirikoki, ikastaldian emandako irudiak edonolakoak izanik ere (esaldi arrotza "ilustratzen duten" irudi errealistak edo irudi "kodifikatuak" zeinetan "baloiek" zeinu arrotzetara eramaten bait dute gutxi-gorabeherako konbentzioz), badirudi ikaslea bere abiaburuko hinkuntzan oinarrizera gidatzen dela beti, lehen ikasgaietan behintzat. Izan ere, "zuzeneko metodoetan" bezala, baliabide honen adierazpena beti debekatzen da, baina baliabidea bera etengabe erabiltzen da: marraztutako edo fotografiatutako errealitateak abiaburuko hizkuntzaren laguntzarekin identifikatzen dira eta identifikazio horiek ematen dute proposaturiko adierazi arrotzei zentzua igertzeko bidea (10).

Baina erabilitako irudi-motaren arabera, ikaslea bultzatua izango da era desberdinetan operatzera.

Ikastaldian erabilitako "baloieta" zeinu arrotza ideograma baten bidez gutxi-gorabehera arbitrarioki irudikatua bada, ideograma hau irakaslearen laguntzarekin deszifratuko da abiaburuko hizkuntzako zeinuari dagokiolarik (zeinu hori egon daiteke sinonimi-harremanean zeinu arrotzarekiko, baina egon daiteke halaber, "zuzeneko metodoan" bezala, erreferentzi-harremanean, edo baita ikaslearen hutsegitez zeinu arrotzarekin inolako harremanik ez izan ere, irudikatutako denotatuari ez dagokion ezaugarri batera bidaltzen duelarik) eta orduan izango da hitzez-hitzezko ordainen bidezko itzulpen bat behintzat zeinetan ikasleak abiaburuko adieraziak emango bait dizkio adierazle arrotzari.

Ikastaldiak ("baloiekin" edo gabe) eszenatxo baten bidez osoki bistaratzen baldin baditu enuntziatu arrotzei dagozkien denotatuak, ikasleak abiaburuko hizkuntzako enuntziatuaren bidez interpretatuko du eszenatxo osoa, enuntziatu arrotzari bertako adieraziak emango dizkiolarik, eta horrela, itzulpen gutxi-gorabehera hurbilkorra egingo du, globala edo hitzez-hitzezkoa, segun eta irakasleak bere esplikazioen bidez ikasleari laguntzen dion edo ez dion enuntziatu arrotza egituratzera eta enuntziatu honetako elementu bakoitzaren eta dagozkion irudiko elementuen artean harremanak ezartzera (11).

Hala bada, zeinnahi ere den erabilitako didaktika (azterturiko lau didaktiken edozein modutako nahasketetan oinarritutako pedagogiak ere ez bait lituzke aldatuko "itzulpenarekiko" inplikazioak), ikaslea, hizkuntza arrotzaren lehen ikasgaietan behintzat, beti gertatzen da agerian edo isilpean itzultzera gidatua (12). "Itzulpen" hau askotan hitzez-hitzezkoaren hurbila delakoan aurkeztu dugu, baina testuingurua behar adina osatzen denean forma landuagoak ere har ditzake (cf. 1.1.2.; 1.1.4.; eta hemen behean 3.an) edo baita hizkuntz formulazio zehatzik gabe buruz egindako operazio batzuetan gelditu ere: esate baterako, enuntziatuen lehen aurkezpenean.

1.2. "Itzulpenaren" egoera bereziak

1.2.1. Artikulu honen koadroan konstatazio enpiriko soil honi esplikazio bat emateko asmorik gabe, kontsiderazio batzuek pentsarazi dezakete nekez izan dezakeela besterik.

Hizkuntza arrotz baten ikasbidearen hasieran, ikasleak hizkuntzaz aurre egin behar dio soinu-segida bati non ez bait du bereizten antolamendu fonologikoa bera ere (salbu eta bere ama-hizkuntzaren oso "auzoko" hizkuntza denean: gaztelera eta frantsesa, adibidez). Ez du ulertzen soinu-zuko "magma" antzeko bat baino, eta ezin dio inolako esananhi ziurrik eman; baina badaki, dagoeneko hizkuntza natural bat praktikatu duenez eta senez ere hizkuntza biek beren osieran duten halako isomorfimo baten gainean jokatzen duenez, soinu-segida horrek zatika bana daitekeena behar duela izan, zati bakoitzak zentzu jakin batera bidali behar duela, berak esperientziaz ezagutzen dituen edo ez dituen errealitateei dagokiela zentzu hori, eta unitate horiek (forma eta zentzuzkoak) badituztela beren artean harreman batzuk berak ezagutzen ez dituenak baina entzuten duena ulertu nahi badu ezinbestez jakin behar dituenak.

Bestela esanda, ikaslea ia oharkabean noski baina etengabe oinarritzen da abiaburuko hizkuntza ikasterakoan hartutako egituratze-ohituretan. Edo ohitura horiek, giza-espezie orok duen programazio biologiko baten garapena direla onarturik ere, nekez bereiz daitezke abiaburuko hizkuntza horren semantika, sintaxia eta fonologiaren berezitasunetatik. Eta hau hainbat eta egiazkoago da zenbat eta ohitura horiek sendoago errotuak dauden (orokorki onartua da zenbat

eta adinean aurrerago izan hainbat eta nekezago bihurtzen dela hizkuntza arrotz baten ikastea) eta hizkuntz-sistema bakar baten gainean kalkatzen direlarik (esperientziaz onartua da adin eta hezkuntza bereztua izanez gero errazago ikasiko duela hizkuntza berri bat lehendik ere hainbat dakizkien ikasle batek berori lehen hizkuntza arrotza duenak baino).

Era berean, zeinnahi direla ere pertsonak berez dituzten aldagaiak, hipotesi txalogarria da baieztatzea ikasle hasi berriak hizkuntza arrotzean egin behar dituen operazioak neurri onean oinarritzen direla, ezinbestez, abiaburuko hizkuntzan duen gaitasunean (edo sistemaren ezaguera operatiboan). Hori azaltzen du *J. A. Wordsworth*-ek honako hitz huetan: "beti ama-hizkuntzara bueltatzeko joera hau, nahiz seriozki esan ez dela itzuli behar, bigarren hizkuntzan zentzuaren arazo guztiari arreta gutxiegi jartzetik dator agian... Bigarren hizkuntzaren sakoneko egituren ezaguera ororen faltan, ikasleak ezin du egin ezer bigarren hizkuntzaren azaleko egiturak ama-hizkuntzaren sakoneko egiturekin harremanetan sartu besterik. Horretan hala bada, ama-hizkuntzak oso aktibo irauten du..." (13).

Ikasle hasi berriaren "hizkuntz-ahalmena" abiaburuko hizkuntzan duen gaitasuna jokoan sartu gabe birraktiba ahal baliteke (ama-hizkuntza ikasi duen bezala irakatsi hizkuntza arrotza), ez da ikusten zer dela-eta lehen urteak hizkuntz-aktibaziorik batere gabe pasa dituzten haurrek hizkuntza bat egoki ikastera iritsiko ez liratekeen (otso-haurrak, esate baterako). Badirudi lehen hizkuntza ikastearen berezkotasunak berehala galtzen direla itzulbiderik gabe (15) eta boskarren edo seigarren urtetik aurrera ezin dela "hizkuntz-ahalmena" gehiago bereizi, ikasteko prozesuan, ahalmen hori garatua izan den hizkuntza baten edo gehiagoren egituratze-moldeetatik (haur bilingue edo trilingueak).

1.2.2. Beraz, hipotesiz onartzen bada ezinbestekoa dela abiaburuko hizkuntzara jotzea, beharrezkoa dugu baliabide hau erabiltzen deneko egoerei buruz 1.1.en emandako oharrek zehaztea, horrek eramango bait gaitu hizkuntzen ikasbidearen hasieran "itzulpenaz" ulertzen denaren ezaugarriak azaltzera.

Itzultzea (traducere), hitzez-hitz harturik, hizkuntza batean esandako edo idatzitakoaren esannahia beste hizkuntza batera "pasaraztea" da, edo, frantses zaharreko hitz bat (ingelesak berriro hartua) berriz

hartzearren, hizkuntza jakin bateko testuak daraman “zentuaren” *traslation*-ea eragitea informazio gehiegi galdu gabe (nolabaiteko entropia ezinbestekoa den arren [16]) hizkuntza diferente bateko beste testu batera.

Hortaz, itzultzeak esan nahi du, lehendabizi, itzultzaileak kondiziotan egon behar duela bigarren hizkuntzan adieraztera saiatzen den esannahia ezagutzeko (ez da itzultzen ulertzeko, baizik lehen hizkuntzako zeinuak interpretatzeko moduan ez dagoenari ulertarazteko), bigarrenez, adierazten den horrek (babesturiko esannahiak) neurriren batean aske izan behar duela adierazleak darabiltzan hizkuntzetatik eta hizkuntz-formulazioetatik. Bi esaldi horiek onartuak bide dira itzulpena praktikatzan duten guztien aldetik. Lehenengo ahobatekoa da itzultzaileen, interpretarien eta berauen irakasleen artean. Guztiok azpimarratzen dute lehenik eta ororen gainetik ulertu egin behar dela itzuli nahi den testua: “itzultzea...—eta honenbestez ia-ia lotsa ere ematen dit Fernandoren egia hau esateak— ez da posible, noski, hizkuntza arrotzaren ikasketak ez badu ukitzen, nolabait esatearren, *native speaker competence* delakoa (hiztun batek bere ama-hizkuntzan duen gaitasuna)” (17). Gainera, gehienek bistakoa bezala onartzen dute, halaber, “itzultzaileak ez lukeela itzuli behar —salbuespenak salbu— bere ama-hizkuntzara edo hizkuntza aktibora baizik” (18), zeren eta hizkuntza arrotz batera itzultzea, hura ongi menderatu arren, beti da arriskutsua. Itzulpenaren praktika, beraz, lotua eta mugatua dago ahalik orekatueneko elebitasun indibidual batek dituen posibilitateetara. Bigarren esaldia ez da hain ahobatez onartua baina adostasun handia dago, halaz ere, “hitzarekiko leialtasuna dela itzulpenaren oztopo handia” baieztatzeko (19). Praktikatzan dutenentzat: “Itzulpena ez da, bistakoa denez, hizkuntza bateko “katea” unitatez unitate beste hizkuntza batekora aldatzea” (20) eta gehienek onartuko lukete honako iritzi hau: “Izan ere, itzulpen izena soil-soilik... “itzulpen libreak” merezi du, hau da, enuntziatuaren osotasuna egoeraren osotasunera egokitzean ezaugarri berberak dituen enuntziatu batez aldatzen duenak” (21), hizkuntz formulazioen antzekotasunak ez dira ageri oso bigarren mailan baizik (poesi-itzulpenak aparte direla, noski).

Bistakoa da bi esaldiok ezin daitezkeela bere horretan hartu hizkuntza arrotz baten ikasbidearen hasierari dagozkionean. Ikasle hasi berria ezin izan daiteke lehenengoak eskatzen duen elebiduna. Berak

ezin du ulertu, normala denez, hizkuntza arrotzean adierazitakoa, ulertzeko "itzuli egiten" bait du (edo irakasleak itzultzen du berak uler dezan), eta hobekien ezagutzen duen hizkuntzatik horren ongi edo ia batere ezagutzen ez duenera joaten da, itzultzaileek kontseilatzen duten bidearen alderantzizko zentzuan. Beti ere eta ezinbestean gainera, berak gaitasunik baduen abiaburuko hizkuntzatik ateratako esannahia da (nahiz tema nahiz bertsio izan) hizkuntza arrotzera itzultzen duena. Bigarrena, berriz, oztopatzen da ez hizkuntza bat ikas-terakoan ezinbestekoa den baldintza batekin baina bai ikasleak hizkuntza arrotza nola egituratzen den ulertzeko daukan gogoarekin. Joera hau areagotua gertatzen da ikastaldi gehienek (edozein didaktika kontseilaturik ere) beren ikasgaiak komunikazio-balio zehatzik gabeko enuntziatuez osatzen dituztelako edo agerikoa denetik edo txorakerietatik edo huskerietatik jasotako informazioa dutelako (22); gainera, enuntziatu horietatik asko ezin dira ohizko zirkunstantzia enuntziatiboetara aldatu. Hortik segitzen da interes guztia enuntziatuaren formulaziora eramaten dela eta ikaslea itzultzera ahalegintzen baldin bada, formulazio horren funtzionamendua bereganatzen saiatzearren izaten da, edo, askotan hitzez-hitzezko itzulpen batean gehiago ikasten du enuntziatu baten hizkuntz barne-antolamenduaz enuntziatu horrek izan dezakeen esannahiaz baino. Beti "hitzarekiko leialtasunak" eramaten du, irakasleak aurretik jakinaren gainean jartzen badu ere.

Hizkuntzen ikasbidearen hasieran "itzulpenaz" mintzatzen denean, itzulkeraren oso berezi batez egiten da: jokoan dagoen antolamendu semantiko eta sintaktiko bakarria ikaslearen abiaburuko hizkuntzarena da eta itzulpena ez datza antolamendu hori adierazi arrotzen bidez bestela kodifikatzean baino. Gehiago dagokio morseko zeinuen laguntzarekin egiten denaren antzeko zifratze-operazioari itzultze-operazioari baino. Helburuko hizkuntza, bere egitura azalenekoetara murrizturik, abiaburuko hizkuntzaren bigarren kode edo bihurtzen da.

1.2.3. Kontraesan honetan bilatu behar da, ikasle hasi berriak abiaburuko hizkuntzaz baliatzeko daukan beharren (1.2.1) eta baliabide hori itzulpenak eskatu ohi duenetik oso bestelako egoeretan baizik erabili ezinaren artean (1.2.2), hizkuntza arrotz baten ikasbidearen hasieran itzulpena erabiltzearen gaineko kritika zaharren jatorria.

Kritika-multzo hori hemen berriro hartu nahi gabe (24), ikusi berria dugu ikaslea gutxiago gidatzen dela hizkuntza arrotza ikastera bere abiaburuko hizkuntza bestela kodifikatzera (zifratzera) baino. Batzuetan esaten denaren kontra, ikasleak ez du "pentsatzen" hizkuntza batean bestean adierazteko, baizik eta lehendabizi batean adierazten du (ageriki edo isilka) eta gero aldatu egiten ditu adierazleak. Honek eramaten du ikaslea adierazle arrotzak tokiz eta denboraz abiaburuko hizkuntzakoan baliokide direlakoan erabiltzera. Horregatik adieraziko du hizkuntza arrotzean abiaburuko sistemari dagozkion arau morfo-sintaktikoen arabera, abiaburuko hizkuntzako formen ohizko erabileren arabera eta erabilerok forma horiei ematen dizkieten konnotazioen arabera. Hala, frantsesa ikasten ari den Ingelès batek esan dezake *-Je suis froide, son maison*; Arabiar batek erantzun dezake *-Merci par -Soyez le bienvenue (-Je vous en prieren orde, esate baterako)*; hispanofono hegoamerikar batek *pavillon* hitza erabil dezake hiri lujoso bat izendatzeko, etab. (25). Tipo horretako "hutsak" ezagun askoak dira, honelakoak eginarazten dituen mekanismo psiko-linguistikoa askotzaz gutxiago ezagutzen bada ere.

1.1.en ikusi dugun bezala, adierazle arrotzak abiaburuko hizkuntzako adierazleekin banan-bana trukatzeko hori era askotara ematen da erabilitako didaktikaren arabera. Itzulpenaren gainean oinarritzen diren haiek, gutxi edo asko, baliokidetasun-arauetan zentratzen dute beren ikasbidea, hitz-zerrendeia eta bertsioa eta tema bezalako ikas- eta kontrol-ariketei denbora asko ematen dietela. Ondorioz, badirudi hauek gehiago laguntzen dietela interferentzietan, klasean abiaburuko hizkuntza noiznahi erabiltzea debekatzen dutenek baino, zeren eta azkeneko horietan, erreferentziazko sinonimifenoimenoak gertatzen direlakoan eta zeinu arrotzek erreferenteak identifikatzerakoan sor ditzaketen hutsak direla-eta, irakasleak inolako baliokide ofizialik ematen ez duenez, ikaslea noraezean gelditzen da errespetatu behar diren adierazleen trukatzeko-arauei dagokienean. Eta nora jo ez dakiela, gehiago fida daiteke sistema arrotzaren arauetara, ordain bila egiten dituen ahaleginez baino. Badago horretan halako aurrerapen bat eta onar daiteke "Hizkuntzen pedagogia ez dela interferentzi-printzipio honen kontra antolatutako erresistentzia baizik" (26).

Baina 1.1.4.en ikusi ahal izan dugu ikastaldi audio-bisualetan ere erresistentzia hori urruti dagoela sistematikoki antolatua egotetik eta ikastaldi horietako askok, irakasleak klasean "esplikatzeko" dituen "baloi" ideogramatikoak erabiltzen dituztenak, ia-ia ageriko itzulpenak adinako ziurtasunarekin eragiten dutela balioikideen jokoak.

Abiaturuko hizkuntzara ezinbestean jotzearen eta itzulpen orok berez dituen baldintzekiko kontraesan artean harrapatu, hizkuntz-didaktikak ez dute agian behar adina aztertu itzulpenaren problematika bera ere.

OHARRAK

- (1) Tipologia hau D. Coste-k proposatutako hartan oinarritzen da (1970: 7-23).
- (2) F. Ahn-enetik hartutako adibidea: **Nuovo metodo pratico teorico per imparare la lingua francese**. Milan: Gnocchi. 1882, 18. Liburu honen antzinatasunak "neutralizatu" egiten du adibidea baina ez dio kentzen gaurkotasunik batere: honen berdin-berdinak aurki daitezke tipo horretako ia ikasliburu guztietan.
- (3) Ikaslea ordain horiek errespetatuz frantsesez adieraztera saiaturko babiliz, irribarre eragingo luke: bere bihotzaz mintzatu nahi lukeelarik, ohizko moduan erlijio bati buruz ari dela ulertuko bait litzaioke. Honek halako zehaztasun bat emango lioke G. Flaubert-en harako definizio hari: "Tema: Eskolan, ardura frogatzen du, bertsoiak intelijentzia frogatzen duen legez - Munduan, ordea, barre eragiten du teman adituen kontura (**Dictionnaire des idées reçues**. Paris: Le livre de Poche 1959, 432).
- (4) Ikus H. Besse, 1972: 14-16.
- (5) D. Coste, 1970: 12.
- (6) Puntu honi buruz, ikus R. Lado, 1957; F. Debyser, 1970: 31-61. Eztabaida baterako ikus K. R. Bausch, 1971: 45-55; ikus halaber W. Nemser eta Slama-Cazacu, 1970: 101-128.
- (7) Hitz honetan guk ulertzen dugu
- (8) R. L. Ketcham eta J. Collignon-enetik hartutako adibidea, 1961: 12.
- (9) J. R. Admiral, 1972: 12.
- (10) Eztabaida baterako H. Besse, 1972: 16-47ra bidaltzen dugu irakurlea.
- (11) Analisi sakonago baterako, ikus daiteke H. Besse, 1974: 27-54.
- (12) W. F. Mackey (1965) konklusio berera iristen da: "Ikasleak beti itzuliko du bere artean eta alferrikakoa da hori galeratzen ahalegintzea" (8. Kapitulua).
- (13) J. A. Wordsworth, 1973: 83 (gure itzulpena).

- (14) Kontzeptu hau, hemen, XVII. mendeko gramatikariek eta logikalariek Frantzia ematen zioten zentzuan hartzen dugu, hau da, N. Chomsky-k bere problematikan erabilitako zentzu berean (ikus bereziki "La forme et le sens dans le langage naturel" *Hypothèses-en*, Paris: Seghers Lafont, 1972, 130 eta hurrengoak).
- (15) Ikus L. Malson, 1964.
- (16) Ikus R. Jakobson, 1963: 84.
- (17) K. Richard Bausch, 1971: 54.
- (18) P. Geleff, 1971: 72.
- (19) M. Lederer, 1973: 34.
- (22) Ikastaldi audio-bisualak oso gutxi aldegiten diote "hutsean" funtzionatzen duen hizkuntz-pedagogi tipo honi. Ikus daiteke S. Moirand, 1974: 5-26.
- (23) "Aspects linguistiques de l'accès au sens étranger en début d'apprentissage d'une langue seconde" delakoan (1972) "itzulpen faltsua" deitu diogu itzulpen-mota honi ("txanpon faltsua" esaten den bezala) baina esamolde hori anbigua da.
- (24) Ikus daitezke 6. oharrean aipaturiko linguistika "kontrastiboko" obrak. Ikus halaber X. Stannard Allen "In Defence of the Use of the Vernacular and Translating in Class" *English Language Teaching*-eko 3. zenbakian, London: O.U.P.
- (25) Guk alde batera uzten ditugu bi sistema fonologikoren arteko interferentziak, baina bistakoa da unitatez unitate egindako kode-aldaketa horrek ezin duela entzumenezko "erresistentziei", eta ondorioz, adierazpenezkoiei mesede egin baino.
- (26) J. R. Admiral, 1972: 14.

BIBLIOGRAFIA

- COSTE, D.: "Le renouvellement méthodologique dans l'enseignement du français langue étrangère: remarques sur les années 1955-1970". *Langue Française* 8 (1970), 7-23.
- BAUSCH, K.R.: "Linguistique comparée, linguistique appliquée et traduction". *Méta* 16, 1-2 (1971), 45-55.
- BESSE, H.: "Aspects linguistiques de l'accès au sens étranger en début d'apprentissage d'une langue seconde". *Revue de Phonétique Appliquée* 23 (1972), 3-47.
- BESSE, H.: "Signes iconiques, signes linguistiques". *Langue Française* 24 (1974), 27-54.
- DEBYSER, F.: "La linguistique contrastive et les interférences". *Langue Française* 8 (1970), 31-61.
- FOURQUET, J.: "La traduction vue d'une théorie du langage". *Langages* 28 (1972), 64-69.

- GELEFF, P.: "De deux mots, il faut choisir... le meilleur". *Méta* 16, 1-2 (1971), 69-74.
- JAKOBSON, R.: *Essais de linguistique générale*. Paris: Minuit 1963.
- KETCHAM, R.L. / COLLIGNON, J.: *Patterns of French*. New York: Harcourt, Brace and World 1961.
- LADMIRAL, J.R.: "La traduction dans l'institution pédagogique". *Langages* 28 (1972), 8-39.
- LEDERER, M.: "La traduction: transcoder ou réexprimer?". *Etudes de linguistique appliquée* 12 (1973), 8-26.
- LADO, R.: *Linguistics across Cultures*. Michigan: Ann Arbor, 1957.
- MACKAY, W.F.: *Language Teaching Analysis*. London: Longman, 1965.
- MALSON, L.: *Les enfants sauvages, mythe et réalité*. Paris: Sequana, 1964.
- NEMSER, W. / SLAMA-CAZACU, T.: "A contribution to contrastive linguistics". *Revue roumaine de linguistique* 15 (1970), 101-128.
- MOIRAND, S.: "Audio-visuel intégré et communication(s)". *Langue Française* 24 (1974), 5-26.
- PERGNIER, M.: "Traduction et théorie linguistique". *Etudes de linguistique appliquée* 12 (1973), 27-39.
Guzti honengatik argialetxeek ezin zuten beren burua arinki arriskatu testugintza munduan eta Eusko Jaurlaritzak EIMA (Euskal Ikasmaterialgintza) izeneko programa berezi baten bidez, subentzio edo diru-laguntza batzuk bideratu zituen testugintza sustatzeko asmoz, horretarako baremo batzuk ezarriz. Laguntza hauei esker euskarazko testugintza arlo eta maila guztietara iristen ari da, bai edukien aldetik eta bai itxuraren aldetik gero eta liburu hobeak eta dotoreagoak plazaratuz.

Testuliburu hauek era guztietakoak dituzu, hasi irakurketa-idazketaren prozesutik eta Unibertsitateko Ekonomia edo Eboluzioaren Norabideak izeneko tituluetaraino iritsiz.

Testuliburu hauen barne egituraketari buruz zera esan genezake: Euskal Herrian sortuak direla denak, Elkar Argialetxearen kasuan behintzat, Espainiako, Frantziako eta Kataluniako zenbait testuliburu aztertu ondoren. Garbi ikusi dugu oraingoz itzulpenaren biderei hel-

tzea ez zela onuragarria ikastoletako irakaskuntza tradizioari eta Euskal Herriko berezitasunei leial jarraitu nahi badiegu. Inoiz ongi etor liteke Fisika, Kimika eta Zientzietako libururen bat edo beste itzul-tzea, baina jokaera positiboagoa iruditzen zaigu Euskal Herrian bertan sormena indartzea eta bultzatzea. Eta sortzeko gauza ez garen arloan itzulpenera jo beharko dugu edo moldaketa egokiak egitera. Edozein ikasgai emateko gai bihurtu behar dugu euskara eta honek zenbait garaitan itzulpena ere onartzera behartuko gaitu. Hobe izango da hau gaiak erdara hutsez ematea baino. Baina oraingoz aitortu behar dugu gure testuliburuak euskaraz sortuak direla. Bego, beraz, aitorpena.

Hala ere zehazpen txiki bat egin nahi nuke. Hizkuntza Arloa lantzeko sarritan irakurgaiak oinarritzat hartzen dira. Geroko irakurleak gaurko ikastola eta eskoletatik aterako direla kontuan hartuz eta hizkuntza ikasteko irakurketa ezinbesteko bitartekoa dela gogoan edukiz, Hizkuntza Arloa lantzeko "Zipristin" izeneko irakurgai sailkatuak aurkituko dituzu sail horretan. Eta sail hau egiteko mundu guztiko ipuinez eta literatur zatiez baliatu gara, kasu batzuetan itzulpena ere joz. Honela haurrak Euskal Herriko ipuin, tradizio eta literaturaz gain, beste zenbait herrialdetakoak ere ezagutuko ditu.

Beraz, testuliburuetan esan genezake itzulpenik ez dagoela, irakurgaien kasu berezi horretan izan ezik.

B) Haur literatura

Hemen berez irakaskuntz arloko funtziorik ez duten irakur-liburuak sartuko genituzke.

Hala ere haur literaturaz ari garenean gogoan eduki behar da haurrak bere garapen psikofisikoan aro oso ezberdinak igarotzen dituela eta aro ezberdin horietan bere egarria eta jakinmina asetzeko liburu mota ezberdinak behar dituela.

Liburu hauetako zenbaitek kutsu edo ukitu pedagogikoa ere eduki dezake, baina bestetik literatur mundurako zubi edo laguntza gertatzen dira askorentzat.

Ohar hauek gogoan izanik ELKAR Argitaletxeak dituen Haur Literaturako sail ezberdinen enumerazioa egingo dugu, bakoitzaren berezitasunak laburki azalduz:

- 3-4-5 urte** Teo mutuak Saila: Kartulinazko liburu plastifikatu sendoak, letrarik gabe, irudiak "irakurtzeko".
Teo margotu, ebaki eta erantsi Saila: Koloreen ezagutza sakondu eta eskuak trebatzeko.
Ibai margotu Saila: Koloreen zaletasuna eta ezagutza lantzeko.
- 5-6 urte** Txintxinbela Saila: Irakurtzen hasi berrientzat.
Apurrak Saila: Irakurtzen hasi berrientzat, letretan oinarritua.
Letrak bertsotan: Oraintxe argitaratzeko.
Lucky Luke Saila: Irakurri, margotu eta eransteko ipuinak.
- 5-8 urte** Axut Saila: Aintzinako euskal ipuinak, bi modutara eskainiak: kaligrafiaz eta inprimategiko hizkiz.
- 6-7 urte** Globo berdea Saila: Aukera ezberdinez osaturiko liburak.
Txorromorro Saila: Ilustrazio bereziak eta letra gutxi.
- 6-8 urte** Teo Saila: Interesgune ezberdinak landuz eta marrazki aberatsez hornituak.
La Galera ipuinak: Animalien istorioak, alegiak.
Alfer Saila: Euskal Herrian girotutako abentura-istorioak.
- 7-8 urte** Ibai Saila: Marrazki handiak eta fantasia.
Lulu Saila: Telebistako pertsonaia ezagunaz.
Charlie Rivel Saila: Pailaso ospetsu baten istorioak.
- 7-9 urte** Lumabelar Saila: Euskal ipuinak: lamiak, jentilak, Tartalo...
- 7-10 urte** Perkax Saila: Ipuin luze samar eta bariatuak.
- 8-10 urte** Txalupa Saila: Ilustrazio dotorez egindako ipuinak: euskaraz, galegoz, katalanez eta gaztelaniaz.
- 9-11 urte** Sorgin Saila: Euskal Herriko ipuin zahar egokituak.
Flannery eta bere astakiloak: ETBko marrazki bizidunetako pertsonaiak.
- 9tik aurrera** Tintin Saila: Komiki ezaguna euskaratua.
Asterix Saila: Komiki ezaguna euskaratua.
- 9-12 urte** Txanpa Saila: Narrazio eta ipuin luze samarrak.
- 9-15 urte** Sor Saila: Narrazio luze, nobela, txiste-liburu, abenturak...

- Itzul Saila: Munduko haur literaturako liburu interesgarrienen itzulpenak.
- 9-11 urte** Bostak Saila: Enid Blyton-en liburu ezagunen itzulpenak.
- 11-15 urte** Aukera ezazu zeure abentura Saila: Irakurlea bera bihurtzen da istorio hauen protagonista, norberak aukeratzen bait du istorioaren haria...

Sail guzti hauetan banaturik 318 titulu daude. Horietatik

195 itzulpenak dira (% 61)

108 euskaraz sortuak (% 34)

15 letrarik gabeak (% 5)

Hemendik ondorioak berehala atera daitezke:

- Itzulpenen kopurua biziki handia da, erdia baino dexente gehiago atal honetan sartzen bait da (% 61)
- Euskarazko produkzioa ere ez da makala kopuru absolutuari begiratzen badiogu (108 titulu), baina portzentaiari begiratuta nahiko apala da oraindik (% 34).
- Euskarazko 108 titulu horietatik 26 ipuin herrikoiak dira, beraz euskal egileak sortuak edo moldatuak 82 bakarrik izango lirateke. Eta 82 titulu hauen sortzaileak 30 idazle izango dira. Eta 30 egile hauetatik gehienek liburu bat edo bi bakarrik idatzi dituzte. Beraz, haur literatur munduan euskal idazle emankorrek oso gutxi daukagu.

Itzulpen politika egoki baten beharra

Aurreko atalean ikusi dugun bezala sortzaile gutxi daukagu oraindik Euskal Herrian. Euskal egileek luzera ertaineko liburuak sortzen dituzte batik bat, 60-80 orrialdetakoak, fantasiaz beteak eta ipuinen jenerokoak edo inoiz narrazio luze samarren bat. Eta hutsune nabariak geratzen zaizkigu bete gabe hauekin bakarrik osatu nahi baditugu behintzat gure haur literaturako sail guztiak. Abenturazko liburuak, gai sozialak erabiltzen dituztenak, errealismoan oinarritutako liburuak, gazteen tematika ukitzen dutenak eta beste zenbait falta zaizkigu euskaraz sortzeko. Eta hauez gain munduan zehar bada hainbat obra literatur aldetik eredutzat hartzen dena.

Ba, euskal hurrek horiek denak ezagutzea nahi badugu, itzulpenetara jotzea beste biderik ez zaigu gelditzen. Eta bide aberats eta osasungarria derizkiogu honi, honela gure ghettoa utziz kultura ezberdin eta literatur joera berrietara zabalduko bait ditugu gure ateak, arnas berri, freskoa hartuz.

Baina horretarako itzulpen politika egoki bat sortu beharko litzateke. Gaur argitaletxe bakoitzak ahal duena egiten du, inoiz bi argitaletxek liburu bera itzultzea ere suertatuz.

Itzulpena argitaletxearentzat garesti gertatzen da eta itzultzailearentzat merkeegi apika, hortik bakarrik bizitzeko. Erdarara edo katalanera egiten diren itzulpenak askoz merkeagoak dira, baina hizkuntz zailtasunak ere askoz gutxiago dituzte hango itzultzaileek, testu berbera itzultzeko denbora arras laburragoa behar dutelarik.

Beste arazo bat ere badago itzulpenen arlo honetan. ETBrako edo erakunde ofizialetarako egiten diren itzulpenak oso ongi ordaintzen dira eta argitaletxeek ezin dute horrenbeste ordaindu, non eta liburuen salneurria dextente garestitzen ez duten. Ondorioz itzultzaile onenek batez ere itzulpen ofizialak egiten dituzte, haur literaturarako itzultzaile egokiak aurkitzea zail bihurtuz.

Itzulpenak egin nahi direnean bada beste zailtasun bat inoiz gaindi ezina gertatzen dena: baimenak lortzearena alegia. Itzuli nahi duzun liburuaren eskubideak edo *copyright*-a argitaletxeren baten eskuetan egoten da eta inoiz egilearen edo honen ondorengoren baten eskuetan. Eta itzultzeko eskubideak lortzeko zailtasunak egoten dira sarritan eta inoiz hirugarren argitaletxe batek euskarara itzultzeko eragozpenak ipintzen dizkizu, berak Espainia osorako eskubideak dituela ziurtatuz, Alfaguara argitaletxeak liburu batzuekin egin digun bezala, euskaraz argitaratzea galeraziz.

Zailtasun hauek denak gainditzeko Administrazioak hiru puntu hauetan bere laguntza eskain dezakeela uste dut:

1. Itzultzeko interesgarri liratekeen liburuen zerrenda zabal bat eskaini. Argitaletxeek zerrenda horretatik itzuliko lituzketeliburuak eta Jaurlaritzari komunikatuko liokete zein liburu itzultzeko asmoa duten. Honela titulu bera ez litzateke bi eta hiru aldiz itzuliko.

Argitaletxeren batek beste tituluren bat ikusiko balu itzultzeko interesgarri eta horretarako asmorik balu, baita ere Jaurlaritzari gaztigatuko lioke liburu itzulien zerrendan ipini dezan.

2. Jaurlaritzak liburu horien itzulpenerako laguntza bereziren bat eskainiko luke, liburuen salneurria garestiegia izan ez dadin.
3. Itzuli nahi diren liburu horien eskubideak lortzeko laguntza eskainiko luke, Jaurlaritzaren laguntzaz errazago izango bait zaio argitaletxeari behar diren baimenak eskuratzea.

Eta azken gogoeta txiki bat korolario gisa itzulpenen sail honetan ari diren edo garen guztiontzat: ea lortzen dugun euskara egoki, aberats, (erraz –hau beti ez da posible izango–) eta ulerkerria egitea itzulpenak egiterakoan.

Erdal Literatura Euskaraz

Joxerra Garzia

Beste inork ezean Joan Mari Torrealdaik urtero egin ohi digun Iazko Euskarazko Liburugintzari buruzko txostenetan ageri eta nabari denez, liburu gehiago argitaratzen da euskaraz urtetik urtera.

1980ko 219 liburuetatik, 602ra pasa gara 86an. Eguneko liburu bat baino gehiago, beraz, ia bi.

Berez pozgarri diren datu hauen aurrean, ordea, ohar bat dago egin beharra, duela gutxi argitaletxe batetako arduradun bati entzuna: "Itzulpenari eta bir-argitaralpeni esker bakarrik mantendu ahal izan dugu argitalpen maiztasun hori".

Euskarazko liburugintzaren sostengu nagusienetako bat dugu, beraz, itzulpena.

Baina zer itzultzen da? Nork erabakitzen du zer itzuli eta zer ez? Norentzat behar da itzuli? Zer laguntza behar lituzke itzulpenak?

Galdera guzti horiei erantzun asmoz onartu nuen SENEZekoen enkargua, artikulu sail baten bidez itzulpengintza aztertzekoa, alegia.

Asmotik egintzara gogoia omen zubi, baina gogo hutsezko zubiak ez du harako lastozko hark baino sendotasun eta segurantzia handiagorik. Datu biltzetik hasi behar, eta hasieratik bertatik azaltzen dira oz-

topoak. Arrenka ihardun arren, ezin arrankatu. Ezin datuak inondik inora bildu.

Hori ikusirik, argitaletxe nagusiak banan-bana aztertu beste erre-medorik ez, eta horrixe helduko diot, besterik ezinean, honako hone-tatik hasita.

Hasi, euskarazko liburu produkzioaren puskarik handiena duen argitaletxetik hasiko naiz, ELKARretik alegia, berari dagozkion datuak aski adierazgarri direlakoan. Datu biltze soila egiten saiatuko naiz, ondorioak ondoren ateratzeko esperantzan.

ELKAR argitaletxearen itzulpen politika

Hona hemen iazko produkzioaren datuak:

	KOPURUA	ORIJINALAK	ITZULPENAK	B/B TIRADA
LIBURUAK (tituluak)	106 ⁽¹⁾	71 %67	35 %33	?
TEST.-LIB.	32 %29	32 %100	XX %0	?
HAUR LIT.	29 %26,5	16 %55	13 ⁽²⁾ %45	3/4.000
GAZTE LIT.	20 %18	6 %30	14 %70	3/4.000
HELDUEN LIT.	19 %17,5	13 %68,5	6 %31,5	2/3.000
BESTE	6 %5,5	4 %66,5	2 %33,5	1/2.000
(1)Beste lau liburu ere bai, frantsesez, hemen kontutan hartuko ez direnak.				
(2)Horietarik bi, itzulpen-koedizioan (Txalupa sailekoak).				

Testu liburuen saila eta orotariko liburuen alde batera utzirik, argi dago itzulpenak garrantzia handia hartzen duela literatur produkzioan. (Kontuan har, euskarazko lau liburutatik 3 ELKARrek argitaratzen dituela). Garrantzia hori areagotu egiten da gazte literaturari dagokionean: %70a itzulitakoa bait da. Badirudi, beraz, haur eta hel-

duentzat aski idazten dela hemen bertan, ez dagoela inportatu behar handirik. Gazte literaturan, berriz, eskasia nabarmena dago. Garrantziarik gabeko alorra delako ote?

Zein erizpide erabiltzen da itzuli beharreko obrak aukeratzera-koan?

ELKAR argitaletxearen kasuan, bi sail nagusi bereizi behar dira:

1. Haur eta gazte literatura:

- . Denera, 49 titulu 1986an. 22 orijinal eta 27 itzulpen.
- . Joxean Hormazabalek du sail honen ardura.
- . Bere gain dago, beraz, itzuli beharreko liburuen aukera egitea.
- . Itzultzailea aukeratzera ere bere esku geratzen da.
- . Enkarguz eginiko itzulpenen azken orrazketa ere, Joxeanen ardurapean joan ohi da.
- . Aipatutako material eskasia erremediatu nahirik, BILINTX saria eratu du ELKARrek, haur eta gazte literaturarako.

2. Helduen literaturan, aldiz, lan orijinalak dira nagusi:

Denera 19 titulu izan ziren 1986an. Horietarik 13 orijinal, eta 6 besterik ez itzuliak.

. Hona hemen itzultitako 6 obren tituluak:

Dorian Gray-ren erretratua	O. WILDE	Bittor Hidalgok
Agurea eta itsasoa	HEMINGWAY	J.M. Iturraldek
Estepako otsoa	H. HESSE	P. Zabaletak
Pailazo baten aburuak	H. BÖLL	J. Azpirozek
1.280 arima	J. THOMSON	X. Olarrak
Kafe hartzea Iruñean	R. LAXALT	X. Mendigurenek

Aspalditxo ekin zion sail honetako arduradun den Imanol Tapiak irizpideak finkatzeari. Horretarako, batzorde bat osatu zuen, Txuma Lasagabaster, Mikel Lasa, J.A. Arrieta, X. Mendiguren eta Joxean Azpiroz tarteko zirelarik.

Hogeigarren mendeko literaturak eman dituen obrarik funtsezkoenak errepasatu, eta 50 bat tituluz osaturiko zerrenda burutu zuen batzorde honek.

Zerrenda horren inguruan mogitzen da, beraz, ELKARren literatura itzulpenen politika. Baina berriro diot: nahi izatetik ahal izatera bide luzea dago, 1986ko emaitzak argi asko erakusten duenez.

Garbi dago, beraz, berea ez zen ardura hartu zuela ELKARrek zerrenda hori osatzerakoan. Eta zerrenda talde baten lanaren emaitza denez, fidagarritzat jo daiteke. Azken finean, halere, pertsona bakar baten gainean doa erantzukizun osoa, eta nago zama astun samarra ez ote den hori edonorentzat.

Zerrendan agertzen diren obrak itzultzeko borondaterik edota gaitasunik duen itzultzailek ez da beti aurkitzen. Itzultzaileek proposaturiko obrak, bestalde, ez dira zerrenda horretan agertzen direnetakoak. Horra hor, agian, itzulitako obren kopuruaren txikia esplik dezakeen datu bat. Kontuan har, gainera, zerrendako seigarren liburua ez dela inondik ere sartzten sailaren arrastoan: konpromiso hutsezko liburua da, dudarik gabe. Bost literatur-obra dira, beraz, urte osoan zehar argitaratuak. Bostak dira nobelaren zakuan sartzeko modukoak. Inglesetik hiru, eta alemanetik beste biak.

Eskasia horren arrazoiatariko bat aipatu dut arestian. Bada besterik ere, noski: itzulitako liburua garestiago ateratzen da, iguanean, originala baino. Saldu ere, gutxiago egiten da (ikus kuadroan tiraden kopuruak). Instituzioengandiko laguntzak txikiagoak dira itzulpenen kasuan, sormenezkoetan baino...

Eta abar, esan ohi den bezala. Ez da, ez, harritzekoa, literatura obra gorenen itzulpen eskasia. ELKAR argitaletxearena azaldu dut oraingoan, baina ditudan datu urrien arauera badirudi joera hori mantendu ezezik areagotu egiten dela orohar euskarazko liburugintza osoan.

Hala balitz, martxa kaxkarra litzateke hori mundu mailako literaturaren gutxieneko antologia nahitaezko hori arrazoizko epe baten barruan osa dezagun.

Baina hori, eta hemen aipatu ere egin ez ditudan beste zenbait alderdi (itzulpenen kalitatearena, kasu) hurrengo atalerako utzi beharko ditut, oraingo honek hementxe bait du bere azken puntua.

Itzulpen literarioaz: Kastilla Zaharreko kontu zaharrak

Itzultzaile eskolako zenbait ikasle

Behin baino gehiagotan agertu izan dira aldizkari honetan literatur itzulpenari egindako kritikak. Kritika hitzak badu bere baitan honelako esanahi modu hau: beste norbaitek egindako zerbait zentsuratzea, maiseatzea. Baina, bestelako esanahi hau ere aurkitu diogu, gure nahiarekin hobeto lotuta datorrena: iritzia ematea.

Lan honen bidez literatur itzulpen batzuri buruzko iritzia ematea dugu asmoa. Arrazoi honen zergatiak aipatzera goaz, bat baino gehiago dira eta.

Hasteko, itzulpen mundura hurbiltzen ari garen pertsona batzu baino ez gara, hala ere, gaur egun egiten diren hainbat itzulpen literarioz iritzia emateko gai garela uste dugu.

Bigarren arrazoia da itzultzaile asko euskarak duen aberastasunaren jabe direla, hizkuntza aldetik oso jantzita daudela alegia. Puntu honek kezkatzen gaitu, izan ere, sorburu eta xede hizkuntza menderatzea ez bait da baldintza bakarra, behar beharrezkoa izanik ere, itzulpenaren emaitza gokia izateko.

Hirugarren puntua edonork egindako lana errespetatzea da, area-gog euskal itzulpenean egin diren lanak badira. Euskal itzultzaileen

gehiengoa autodidakta izan bait da, bakoitzak bere kabuz eta eginaharen podérior ikasi behar izan duelarik itzulpen prozeduran ematen diren hainbat eta hainbat arazori irtenbide ia pertsonala emanaz.

Gaur aldizkari honetara ekartzen dugun itzulpena **Kastila Zaharreko kontu zaharrak**, Patxi Apalategik itzultakoa da. Nobelaren idazlea Miguel Delibes da, zeinak **Viejas historias de Castilla la Vieja** izendatu duen.

Itzulpenaren irakurketa oso da atsegina, ulergarria eta samurra. Kontua da sorburuko testua irakurtzean itzulpena haren parekoa den ikustea. Delibesen lanak adierazten du Kastila Zaharreko herrixka batean bizi diren pertsonak zer nolako bizimodua, egoera, pentsatzeko era, ingurunea duten. Hori guztia adierazteko aspektu psikologikoak eta fisikoak azpimarratzen ditu. Kastilako jendea eta bere bizimodua ondo baino hobeto ezagutzen duelako, Delibesek lortzen du Kastila Zaharreko pertsona eta ingurunea taxutzea. Eta guk ez dugu kutsu hori Apalategiren itzulpenean aurkitu. Egia da gaia berdina dela, baina tratamendua ez. Esango genuke gaia Kastilatik atera eta Euskal Herriko herrixka batean kokatuta dagoela.

Hona hemen nola justifikatzen dugun esandakoa. Esan beharra dago hamazazpi ataletatik bost aztertu ditugula eta honako aspektu hauek hartu ditugula kontutan.

- a) Edukin semantikoa: informazioa murriztua edo gehitua dagoen.
 - b) Edukin pragmatikoa: jatorrizko testuak lortzen duen komunikazio bera lortzen duen itzultitakoak.
 - c) Azaleko egitura edo estilistikarena, aspektu desberdinetan:
 - gramatikaltasuna.
 - arauen onargarritasuna.
 - arau soziolinguistikoen maila.
 - estilo indibidualaren maila.
- a) Edukin semantikoa: informazioa kasu batzutan gehitua eta beste batzuetan gutxitua aurkitu dugu.

–**Cuando yo salí del pueblo, hace la friolera de cuarenta y ocho años...** (Delibes 11).

Nire jaioterria utzi nuenean, berrogeita zortzi urtez gazteago nintzen orduan... (Apalategi 7).

Alde batetik **hace la friolera de...**ren aipamenik ez dago itzulpenean. Bestetik ... *urtez gazteago nintzen orduan* ez dugu Delibesen testuan aurkitu. Ez dugu uste gauza berdina adierazten dutenik.

– **Y cada vez que en vacaciones visitaba el pueblo...**
(Delibes 13).

Eta oportetan—edo herrira itzultzen nintzen bakoitzean
(Apalategi 8).

Lehenengo esaldian dagoen zehaztasuna galdu egiten da bigarrenean *-edo* gehitzerakoan.

– **Pero lo curioso es que allá...** (Delibes 13).

Baina kuriooa zera da... (Apalategi 9).

Kasu honetan **allá** hitzen bitartez Panamako aipamena egina dago eta Apalategik ez du kontutan hartu.

– **un anhelo exclusivamente contemplativo...**

(Delibes 31).

halakoxe kontenplazio—min bat, grina baten gisako irrikaz...
(Apalategi 20).

Grina baten gisako irrikaz, beharrezko ote zen jartzea?

– **basta con que la siente a la sombra de los chopos para que ella diga “sí” o “no”.**

(Delibes 72).

aski izaten da neskari makaletaraino lagundu eta han hauen itzalean esertzea neskak “bai” ala “ez” esan dezan.

(Apalategi 47).

Esaldi hau gehiegi esplizitatua dago. Alde batetik, ez da sorburu testuan inora laguntzen dionik esaten, eta bestetik, neska laguntzaren aipamenarekin Euskal Herriko ohitura baten konotazioa eranstean dio.

- b) Edukin pragmatikoa: jatorrizko testuan lortzen duen komunikazio bera lortzen den xede testuan.

—¿Te has fijado qué cara de pueblo tiene el Isidoro?
(Delibes 12).

Ikusten al duzue zer kankailu aurpegia duen Isidorok?
(Apalategi 7).

Nahiko argi dagoela uste dugu esaldi honetan ematen den informazio aldaketa. Egia da kankailu adjetiboa egokia izan zitekeela, baina kasu honetan ez dugu uste beharrezkoa zenik. **Pueblo** hitza, *Baserria* bezala itzuli du eta baserria eta kankailu artean ezberdintasun dexente dago, zentzu aldetik kutsu peioratiboa ematen diolarik.

—Más en mi pueblo están tan hechos a la escasez que ahora llaman a aquello, un poco fatuamente, la Pimpollada. (Delibes 30).

Baina nire herriko jendeak, eskasiara hain egokitua izanik, burgoikeria apur batez hari "Pimpollada" deritza.
(Apalategi 20).

En mi pueblo eta *nire herriko jendeak* ikuspegi aldaketa da, hurbilketa nabarmena ikusten delarik. Esaldi berean komentatu nahi genuke beste behin ikusi izan dugun arazoa. Atal honen izenburua Muskildia bezala itzulita dator, gero atal barruan, hitz bera mantendu beharrean Pimpollada sartzen du. Honelako aldaketek dispersioa sortzen dute.

—... y tal vez por ello nunca me interesó el Colegio... (Delibes 31).

... eta beharbada horregatik, ikasketak egiteko joerarik ez nuen sekula izan... (Apalategi 20).

Informazio desberdina ematen da, interpretazioa.

—... y al empezar a pollear me sentí en la obligación de pasear a la Rosa Mari. (Delibes 73).

... eta gandortzen hasi orduko, neska-laguntzeak eta abar, Rosa Marirekin irtetzera beharturik—edo sentitu nintzen. (Apalategi 49).

Lehena: *neska-laguntzeak eta abar* jatorrizko testuan ez dago, eta gainera esplikazio horrek euskal ohituraren kutsua ematen dio. Bigarrena: *me sentí en la obligación de pasear a la Rosa Mari eta Rosa Marirekin irtetzera beharturik—edo sentitu nintzen*. Bi esaldi hauen artean dagoen desberdintasunak azpimarratzen du gizarte bateko garaia eta ohiturak. Ez bait da berdina norbaitekin irten edo norbait paseatzera behartua sentitzea.

- e) Azaleko egitura edo estiloarena: azkeneko puntu honetara iritsia garelarik estiloarena azpimarratu nahi genuke, batez ere. Oso nabarmena delako euskal itzulpenaren arloan aditzari ematen zaion lekua, purismoaren eragina gaur eguneraino zabaltzen delarik. Kasu batean baino gehiagotan ikus ahal izan dugu aditza esaldiaren azkenean jartzeko joerak, jatorrizko esaldiaren erritmoa, argitasuna eta estiloa nola aldatu, lausotu eta apurtzen dituen.

—Al principio pensaba que a mí me movía el orgullo y un mal calculado sentimiento de dignidad... (Delibes 32).

Hasieran, nik horrela nire harrokeriak eta oker kalkulaturiko duintasun sentimenduak eraginik jokatzen nuela pentsatzen nuen... (Apalategi 21).

Aditz nagusia atzean jartzeagatik, esaldiari astuntasuna ematen dio eta sorburuko testuak daukan erritmoa hautsi egiten da.

—... no parece tan suave a los agosteros que durante el verano acarrear los haces de trigo hasta las eras. (Delibes 53).

... *baina halere Abuztuan gari—sortak bizkarka larrainera garraiatzen dituztenei ez zaie horratio hain leuna iruditzen.* (Apalategi 35).

Esaldiaren antolamendua aldatua, behar bada erlatiboaren arazoarekin topo egin duelako. Esplizitazioak ere ez dira beharrezkoak kasu honetan. Jatorrizko testua zehatza da. Xedezko testuan gauzak leunago dirudite *halere* eta *horratio* medio direla.

—... que si yo no me casé allá es porque desde que salí del pueblo tan sólo me preocupé de afanar y amontonar plata... (Delibes 74).

... zeren eta herritik abiatuz gero nire buruhauste bakarra sosa pilatu eta gordetzea izan zelako ez bait nintzen ezkondu... (Apalategi 50).

Topologiazko aldaketa egiteagatik esaldiaren erritmoa moteldu eta lausotu egin da.

• —A mí siempre me intrigó el fenómeno de que hubiera allí una veta aislada de piedras de granito que, vista en la distancia —que es como hay que mirar las cosas de mi pueblo— parece un extraño lugar.(Delibes 95)

jakin—mina eman izan dit. Urrunetik begiratzuz —eta nire herriko gauza guztiei urrunetik begiratu behar zaie— berezko bitxi bat edo lurrari sortu zaion orin puntu bat dirudi.
(Apalategi 63).

Berezko bitxi bat edo lurrari sortu zaion orin puntu... itzul-tzailearen uzta baino ez da. Esaldi luze hau apurtu eta jatorrizko testuan hasieran idatzirik zegoena, atzera bota du.

Hasieran esaten genuena frogatzeko adibide hauek aski direlakoan gaude. Esan liteke itzulpen hau egokia, oso irakurgai atsegina eta hizkuntza aldetik, aberatsa dela. Era berean ere, esan liteke zehaztasun faltak, aldaketak, eranskinak, murrizketak eta abarrek sorburuko kutsu literarioari ez diotela gehiegi laguntzen. Hitz gutxitan esateko, ez da Delibesek azaltzen digun Kastila bera itzultzen.

Azterketa konkretu hau egiterakoan gure asmoa ez da izan itzul-tzaile konkretu batek egindako lanaren iritzia ematea, hemen ematen

diren desegokitasunak beste zenbait itzultzaileengan ere aurkitu izan direlako, aldizkari honetako hainbat aleetan ikus daitezkeen modura.

Gure gogoetak honako hipotesi hau egitera eramán gaitu: egungo itzulpen literarioan ematen den arazoa korronte edo belaunaldi baten arazoa ote den. Fenomenoak, gauzak orokorrean suertatzen direnean, gutxienez, arrazoi baten bultzadaren poderioz kausitzen dira, beti aurki daiteke arrazoiren bat.

Badirudi, belaunaldi konkretu batek, egoera soziolinguistiko konkretu baten aurrean ematen duen erantzuna dela, purismoaren ondorioak eta euskarak bizi duen egoerak, gehienbat, baldintzatzen duen euskal itzulpen literarioa. Horrela, itzulpen literarioan suertatzen den ondorioa honako hau da: literaturaren berezitasunak eta idazle bakoitzak duen orijinaltasunari baino euskarari berari garrantzi gehiago ematen zaiola.

Antología de la Narrativa Vasca Actual: itzulpenaren gorabeherak

Juan Mari Becerra

Sarrera

Pozgarria izaten da euskal literaturazko liburuak hartu eta bertan garatzen diren lan desberdinek eskaintzen dutena dastatu ahal izatea; are gehiago, beren orrialdeetan izan dezaketen balio literarioa dela eta, beste hizkuntzetako irakurleei gure literatura hori ezagutzeko aukera ematen zaiela ikustea ere. "Ezagutzera emate" hori, jakina, gaur egun gero eta beharrezkoago bihurtzen ari den eginkizun baten bidez bakarrik da posible: Itzulpenaren bidez, alegia; ez nolanhiko itzulpenez ordea, baizik eta seriotasunez eta benetazko arretaz egiten denaz, hain arriskutsua eta, halaber, hain erakargarria den itzulpenaz.

Gaurdaino euskaratik beste hizkuntzetara itzulitako testuen kopurua (literaturazkoa) urri samarra bada ere, gehiagotzen ari dela esan beharra dago. Horren froga txiki bat izan daiteke 1986. urtean argitaratu den "Antología de la Narrativa Vasca Actual" izeneko liburua, Euskal Idazleen Elkarteak bultzatu eta argitara emana. Liburu honetan azken urteotako Euskal Narratibaren 10 testu (ipuin soilak zein nobela zatiak) agertzen dira egileak berak gehienetan edo bestela beste norbaitek gaztelaniara egindako itzulpenarekin batera parez pare jarrita.

Gaurko euskal itzulpena zer nolako egoeratan dagoen jakin nahirik eta aipatutako liburua aztergai hartuta, bertan dauden itzulpenak bakoitzari dagokion jatorrizko testuarekin konparatu ditugu balorazio orokor batzuk ateratzeko asmoz. Artikulu honen helburua beraz izango da laburki azaltzea euskal narratibaren itzulpenaren nondik-norakoa, jarraitu diren irizpideak eta zenbaterainoko itzulpen egokiak lortu diren, beti ondorio orokor bat bilatuz. Horretarako saiatu gara modu simple eta objetibo batez gertatzen diren akats eta desegokitasunak agerian jartzen era desberdinetako adibideak erantsiz, lagungarriak izango direlakoan. Azkenik esan, ez dela itzulpen bakoitzaren azterketa zehatza, han eta hemen jasotako ezaugarriak interesgarrien bilketa bat baizik.

OHARRA: Artikulu honetarako aukeraturiko adibideak ez dira zenbait kasutan osoki komentatu; izan ere, momentu horretan esaten duguna egiaztatzekeo adibide jakin bat erabiltzea izan bait da gure asmoa, ez besterik.

Gainetiko ikuspegia

Beti gertatu ohi da itzulpen bat eskuetan hartu eta irakurtzeari ekiten diogunean lehenengo inpresioa itzulpena ondo buruta dagoelakoa izatea; baina jatorrizko testuarekin parekatu eta konparatzen badugu, hasiera batean hautemagaitz eta erdi izkutuak ziren zenbait errakuntza agerian jar daitezke, eta orduan lehenengo inpresio hori ilaundu egiten da itzulpen lan horren desegokitasunak eta hanka sartzeak azaleratuz; eta aldi berean itzulpenaren balioa bere egiazko neurrira doitzen da.

Horrekin, hain zuzen, egin dugu topo Antologia honen itzulpenak bakoitzaren jatorrizko testuaren parean jarri eta aztertu ondoren. Aurreneko irakurketa batean, eta gainetik ikusita, nahiko lan egokiak baziruditen ere, ez da gauza bera gertatu azterketa aurrera joan ahala eta hasierako iritzi hori indarra eta oinarria galduz joan da.

Beraz, hasteko esan dezagun, itzulpenak orokorki hartuta, zenbait kasutan ez direla behar bezala landu eta jatorrizko testuak ziren baino hobeak izan litezkeela testu itzuliak. Egindako azterketatik ateratzen dugun lehenengo ideia honako hau litzateke: itzulpenen desberdintasun nabarmena; ez da ikusten inondik ere eredu guztiz antzekorik

itzultzaileen aldetik, lortu diren emaitzek adierazten dutenez. Desberdintasun horren zioak bilatzerakoan bat aipatu liteke gure ustez nagusienetakoa izan daitekeena: itzultzaile zeharo ezberdinen eskutik, eta plangintza zehatz bat gabe, itzuliak izatea; antologiaren antolamendu arazoa, alegia. Sarreran esan bezala, 10 testu dira argitaratuak; bada, testu bakoitzaren itzulpena beste 10 pertsonak burutu dute, norberak euskarazko testu bana itzultzeko erantzunkizuna hartu duelarik. Horri gaineratzen badiogu gehienak ez direla lanbidez itzultzaileak, hau da, ez dutela itzulpena ogibide, kontuak atera genitzake eta lehen esandakoa justifikatu.

Beharbada komenigarria izango da laburki azaltzea, liburua esku-ratzeko aukerarik izan ez duenari, nortzuk izan diren jakineko itzulpenak burutu dituztenak; esan behar da gehienbat euskal idazle ezagunak ditugula, eta beraiek izan direla nork bere euskarazko testua gaztelaniaratu dutenak. Honako hauexek dira:

Jose Agustin Arrieta	Laura Mintegi
Bernardo Atxaga	Ramon Saizarbitoria
Mikel Hernández	Txillardegi
Koldo Izagirre	Anjel Lertxundi

Honetaz gain, badaude beste bi testu, bata Joseba Sarrionaindiarena eta Arantxa Urretavizcayarena bestea, idazleak berak ez beste batekitzuliak: Bakartxo Oyarzabalek eta Maite González Esnalek lehenengoa, eta azken honek bakarrik bigarrena, biak Jesús M^a Lasagabasterrek berrikusi dituelarik. Itzultzaile ugaritasun honek garbi asko adieraz ditzake itzulpenen artean gertatzen diren aldeak eta desbiraketak, batez ere, kontutan hartzen badugu itzulpen lanaren emaitza egiten duenaren arabera izaten dela beti. Interesgarria izan liteke eza-gutzea, bestalde, zer dela eta jokatu duten era batera edo bestera, baina ziur gaude beraiek bakarrik dakiten gauza dela hori, eta beraz ez gara honi buruz gehiago luzatuko.

Desberdintasunak: joerak

Edozein Antologiaren funtsezko helburua gutxienezko batasun bat aurkeztea izanik, honetan ikusten dugun puntu kritikagarrienetarikoa bat hori berori litzateke, alegia, koherentziarik eza nabarmena, bai testuen aukeran, bai itzulpenak lantzerakoan.

Batasun falta hori garbi justifikaturik gera daiteke gure ustez erabili diren irizpide edo itzulpen joera desberdinetan. Esan dezagun beraz, bi joera nagusi ikusten ditugula, itzulpenak nola burutu jarrerara desberdinak agerian jartzen dituztenak.

- a) Joera dinamikoa edo zentzuzkoa
- b) Joera formalista edo hitzez-hitzezkoa

Hauetz gain, esan liteke beharbada badela beste bat, aurreko bien erdian legokeena:

- c) Joera orekatua

Liburuko itzulpen lanen egileak sail hauen artean banatzerakoan horrela geratuko litzateke zerrenda:

- a) Joera dinamikoa A. Lertxundi
 Txillardegi
 Bernardo Atxaga
 Mikel Hernández
 Laura Mintegi
- b) Joera formalista Bakartxo Oyarzabal
 Maite González
 Jose Agustin Arrieta
- c) Joera orekatua Ramon Saizarbitoria
 Koldo Izagirre

Sailkapen honetatik ateratzen dugun lehenengo ondorioa zera da: zentzuzko joera beste bien gainera nagusitzen dela, hamar itzulpen horietatik bost esandako joerari bait darraizkio. Era berean, begibistakoa da kasu bakoitzean zeri eman zaion garrantzi gehiago, ondoren azalduko dugunez.

Zentzuzko joera: dinamikoa

Sarritan gerta daiteke bi hizkuntzaren artean desoreka ageri bat dagoenean, jatorrizko testua itzultzeko guttiz baliokideak izaten diren formak aurkitzea neketsua izatea; horrelako kasuetan itzultzaileak

jatorrizkoan esaten dena hartu eta interpretatu egin behar izaten du orijinaletik urrunduz. Euskara eta gaztelaniaren artean desoreka hori gertatzen bada ere (hori aitortu beharrean gaude) ez dugu uste arrazoi nahikoa denik Antologia honetan jokatu den moduan jokatzeko; agian esplikazio bat izan liteke, baina ez litzateke inolaz ere justifikaturik geratuko.

Esan bezala, joera honi jarraituz burutu da liburuan agertzen diren itzulpenen erdia; "Zer" esaten den itzuli dute, baina "nola" esaten den ez; hori onargarria da itzulpen pragmatikoan, inoiz ez itzulpen literarioan. Orijinalarekiko leialtasuna hautsi egiten dute, formaren aldetik ez ezik zentzuaren aldetik ere bai kasu honetan. Daukagun inpresioa itzulpenak konparatzerakoan itzuli baino gehiago beste testu bat sortu nahi izan dutelakoa da, jatorrizkoan dagoenaz gain ez dagoena ere idazten bait dute sarri. Gure ustez, horrela jokatzek kritika zorrotz bat merezi du; izan ere, hori ez da itzultzea, birsortzea baizik. Adibide egokia da literatura nola itzuli behar ez den azaltzeko.

Ikus dezagun B. Atxagaren testuaren ondorengo perpausa eta berorren itzulpenarekin konparatu:

Eusk. 68. orria: "Komeni zaizu, derrigorrezkoa ez izan arren, edozein musika entzuten egotea".
(11-12)

Gazt. 69. orria: "Es también necesario, aunque en un grado menor, que escuche música, cualquier canción de texto incomprensible para usted, una canción, por ejemplo rusa".

Hemen garbi asko ikusten da goian esandakoa; bi perpaus horien aldeak nabarmenak dira. Ezin daiteke esan hau itzultzea denik ez bait da gauza bera adierazten. Gaztelaniazko esaldia askoz ere luzeagoa gertatzen da itzultzaileak inolako arrazoirik gabe asmatu egin duelako euskarazkoan ez dagoena.

Bestalde, "derrigorrezkoa ez izan arren" eta "en un grado menor" ez dira parekoak, ez bait dute mezu berbera transmititzen; gure ustez ederki jar zitekeen "aunque no es imprescindible".

Har dezagun orain ondorengo berbaldia: (B. Atxaga)

- Eusk. 70. orria: “Sukaldean ontzi bete ur edan ondoren
 (2-4) –eta lepogaina ur berberaz igurtziz gero,
 are eta hobeago– bisita ezazu komuna ma-
 haian bereseri aurretik”.
- Gazt. 71. orria: “Beba un poco de agua –y si viene helada
 (2-6) no desaproveche la ocasión de mojarse el
 cuello– y antes de volver a sentarse ante la
 mesa eche una meada suave (en el retrete,
 se entiende, porque mearse en el pasillo no
 es, en principio, un atributo de lo litera-
 rio)”.

Hemen berriro ikusten da Atxagak hartu duen askatasuna nahi duena eta nahi duen moduan itzultzeko: parentesis artean jarri duen esplikazio hori sobran dago erabat. Baina aipatu daitezke beste desegokitasun batzuk:

Informazio galera – “sukaldean ontzi bete ur”. Hau ez da inondik agertzen gaztelaniazko testuan.

Hizkuntza literarioa ez zaintzea – “bisita ezazu komuna” eta “eche una meada (en el retrete...)” espresioak arras desberdinak dira; gaztelaniazkoa askozaz gogorragoa da eta indar gehiago du euskarazkoak baino. Jatorrizkoaren eufemismo hori ilaundua geratzen da espresio bulgarra erabiltzean. Beraz, berbaldi osoa hartuta, ez dugu itzulpen-tzat hartzerik jatorrizko testua eta itzulpenekoa ez bait datoz bat.

Zentzuzko joera honen ildo beretik jarraituz, aipatu beharrekoa da baita ere, bi testuen maila literarioak aurkezten dituen alde edo desberdintasunak. Zenbait kasutan itzulpeneko testua jatorrizkoaren gainetik aurkitzen da prosa dotore eta erosoagoa bilatzen bait da; erabiltzen diren espresioak egokiak badira ere hizkuntza horretan, gainditu egi-ten ditu euskarazkoak testu literarioago bat sortzen delarik.

Hona hemen adibide bat: (A. Lertxundi)

- Eusk. 106. orria: “Lur eman zidatenerako deseginxeak zi-
 (1-3) ren aurpegietako marra minduak, disimu-
 latu ezin diren malko oharkabeak, haspe-
 ren arin bezain iheskorrak”.

- Gazt. 107. orria: “Esas cansadas arrugas de sus caras, esas
(1-4) imperceptibles lágrimas deliberadamente
ostentadas, esos suspiros tan suaves
como fugaces habrán ya desaparecido
para cuando terminen de enterrarme”.

Bi perpaus hauek jatorrizko eta itzulpeneko hasierari badagozkio ere, nahiko izan daitezke A. Lertxundik itzulpenarekiko duen jokae-ran konstante bat izango dena egiaztatzeko: interpretazio askatasuna eta testua aberastu nahia. Espresioei lotzen bagatzaizkie zera ikusten dugu:

“Marra minduak” eta “arrugas cansadas” ez dira gauza bera, lehenengoak duen indarra eta adierazkortasuna bigarrenean desagertu egiten da zeharo ezberdina den beste espresio bat erabiltzean; “rayas doloridas” esan zezakeen inolako problemarik gabe. Era berean, “disimulatu ezin diren...” eta “deliberadamente ostentadas” espresioak hartzen baditugu, berehala jartzen da agerian gaztelaniazko forma askozaz aberatsagoa dela eta ez duela mezu berbera adierazten. Gure iritziz, “lágrimas imposibles de disimular” eta “lágrimas deliberadamente ostentadas” esateak aski esanahi desberdina iradokitzen digu. Honez gain, aditz denbora aldaketak –futuroa lehenaldiaren ordeztu– eta sintaksiaren ordenak salatzen dute itzulpenaren hainbat desegokitasun.

Argi dago Lertxundik hautatu duen bidea jatorrizko testua oinarri bezala hartu eta beste testu bat sortzekoa izan dela.

Txillardegiren itzulpena hartuz gero alderantzizko fenomenoarekin egiten dugu topo; hau da, jatorrizko forma zehatz jarraitzen saiatzen bada ere, gaztelaniazko espresioak desegokiak gertatzen dira.

- Eusk. 158. orria: “Andere pare bat bakarrik, ezkerraldeko
(16-17) gozotegiaren ondoan kalaka aspergaitzean”.

- Gazt. 159. orria: “Sólo una pareja de damas era visible,
(18-20) mientras charlaban incansablemente junto
a la bombonería de la izquierda”.

Bistan da gaztelaniazko "una pareja de damas" espresioa erabat inpropioa dela kasu honetan, itzultzaileak lexikoaren hautapenean izugarritzko hanka sartzea egin duela salatuz; "un par de mujeres" hobeto legoke.

Itzulpen joera honen barruan ikusi dugunez, itzultzaileek aukeratu duten bidea jatorrizko testutik urruntzekoa izan da, beronekiko leialtasuna hautsiz bai forma eta bai zentzuaren aldetik; hori egiaztatu ahal izan dugu itzulpeneko testuetan etengabe agertzen diren gehikuntzak direla medio. Badago, hala ere, aldebesteko fenomenoak: ezabaketak alegia.

Begira diezaiogun Mikel Hernándezen itzulpenari:

Eusk. 78. orria: "Eta gogoratzen naiz bestalde Rilkek esandakoaz, idaztea utzi behar dela eta hura gabe posible baldin bada bizitzea, bada, ez da hitz bat gehiago idatzi behar. Badakit ez dela snobismoz idatzi behar baina ez da nire kasua bestalde. Ni ere homme plume naiz, Flaubertek zioen bezala".

Gazt. 79. orria: "O como decía Rilke, hay que intentar dejar de escribir y vivir así si es posible, sin la escritura, sin escribir una sola palabra más. No hay que escribir por esnobismo, yo también soy un homme plume como decía Flaubert".

Arretaz konparatzen baditugu bi berbaldiak konturatzen gara euskarazkoan dauden hiru esaldi (bi nagusi, eta bat nagusi baten koordinatua) ez direla inondik agertzen itzulpenean:

"eta gogoratzen naiz bestalde"

"badakit"

"baina ez da nire kasua bestalde"

Lehenengoaren ordean esamolde ezberdin bat erabiltzen du jatorrizkoaren batere antzik ez duena "o como decía Rilke", eta besteak aipatu ere ez ditu egiten.

Adibide honetan aipagarria da sarri askotan gertatzen den beste ezaugarri bat ere: puntuazio aldaketa.

Euskarazkoan: "... ez da nire kasua bestalde, Ni ere homme plume naiz..."

Gaztelaniazkoan: "No hay que escribir por esnobismo, yo también soy un..."

Ikusten denez, jatorrizkoan bi esaldi nagusi ditugu puntu batek bereizirik; itzulpenean bereizketa hori desagertu egiten da koma jarztean bi esaldiak lotuagoak gertatzen direlarik.

Adibide hau nahiko sinplea suerta badaiteke ere, balio diezaguke froga gisa itzulpen hauetan puntuazioari eman zaion garrantzi eskasa egiaztatzeko.

Ikus dezagun beste esaldi bat:

Eusk. 80. orria: "hodei iragaite mengel pairaezin hori, ezer ez dagoela definitiboaz bizitzan, zerbait errebelatzen zait barruan; ez nagoela konforme..."

Gazt. 81. orria: "Ese insoportable y frágil transitar de nubes, que nada hay en la vida sea definitivo; se me rebela algo por dentro, siempre pienso, como si fuera un niño..."

Azpimarraturiko esaldiak ditugu aztergai hemen; ohartzen bagara ikusiko dugu ordena ezberdinean datozela, bata puntu eta komaren aurretik, eta puntu eta komaren atzetik bestea, azken hau ondorengoari erantsi zaiolarik. Aipatu behar da, berriro, beste ezabaketa bat:

"... ez nagoela konforme..." -honek ez dauka bere parekorik itzulpenean.

Hona iritsita, egoki deritzogu joera dinamiko edo zentzuzkoari buruz ondorio txiki bat ateratzea. Zalantzarik gabe, literatura itzultzerakoan Nola esaten den Zer esaten den bezain garrantzitsua da, eta hauetako alderdi bat ahulduta geratuz gero itzulpena bide okerretik burutua izango da. Bada, aipatutako adibideak aski izan daitezke zer nolako bidea aukeratu den azaltzeko. Gure ustez, ez dago arrazoi gehiegirik era horretan jokatzeko, batik bat, itzulpena problemarik gabe zehatzagoa lortu daitekeenean, baldin eta jatorrizkoa ahalik eta hurbiletik jarraitzen bada. Gutxi gora beherako itzulpenak egiteak seriotasun falta nabarmena salatzen du itzultzaileari dagokionez.

Hitzez-hitzezko joera: formalista

Itzulpen hauek burutzeko jarraitu den bigarren joera nagusia litzateke honako hau. Jatorrizkoaren formarekiko leialtasuna (baita zentzuarekikoa ere) bilatu da batez ere, "Nola esan"ek garrantzi berezia hartu duelarik. Esan dezagun itzulpenei lotuz, J. A. Arrieta, A. Urretavizcaya eta J. Sarrionaindiaren itzulpen lanak nahiko zehatzak direla eta aurrekoan gertatzen zen "birsortu nahi" hori baztertu egin dela.

Hitzez-hitz itzultzeak, jakina, daukan arazoa izaten da sarritan itzulpeneko testua artifiziala gertatzea, sintaksi eta egitura gramatikalei dagokienez. Aipaturiko hiru itzulpenak joera honen inguruan mugitzen badira ere, ez dugu uste era horretako problemak sortu direnik kasu honetan, ez bait da gaztelaniazko testua traketsa edo bortxatua egiten. Esan beraz, lortu den emaitza ontzat har daitekeela, nahiz eta lexikoaren hautapenean zenbaitetan huts egin dela iritzi litekeen. Ikus ditzagun adibide batzuk:

- | | |
|------------------------------|--|
| 1.Eusk. 144. orria:
(5-7) | "Hari mehe eta geldotan hedatzen da kri-seilu ahul baten argia, argi elektriko gaisoa, miarma sare baten antzera". |
| Gazt. 145. orria:
(6-8) | "La luz, desangelada luz eléctrica de una débil lámpara, se extiende en delgados y tímidos hilos, como una tela de araña". |
| 2.Eusk. 144. orria:
(7-9) | "Kristala hautsirik eta orratzak geldirik dituen horma-erloju bat dago, gainerako guztien zaindari". |
| Gazt. 145. orria:
(8-9) | "Hay un reloj de pared con el cristal roto y las agujas paradas haciendo de guardián de todo lo demás". |
| 3.Eusk. 146. orria:
(3) | "... eta bidazti saldo ezezagunak ere". |
| Gazt. 147. orria:
(3) | "... o las anónimas manadas de vian-dantes". |

Ikusten denez, itzultzaileak ez du asmatu hitzak aukeratzean; izan ere, "desangelada luz" eta "argi gaisoa" nekez dira baliokideak; era berean, "tímidos hilos"ek ez dirudi oso egokia kasu honetan; "mandas" esatea gogorra gertatzen da gaztelaniazko esaldian. "... haciendo de guardián de..." espresioak bestalde bortxatu samarra dirudi; hobeto legoke "como guardián de todo lo demás".

Erdiko joera: orekatua

Ikusi ditugun itzultzeko bi modu nagusi horien erdian kokatzen dugu azkeneko hau; aurreko bien hurbiltze bat suposatzen du, hau da, bai forma eta bai zentzua biltzen dira itzulpeneko testuan bakoitzak duen garrantzia mantenduz.

Gure ustez hau litzateke jarraitu beharreko itzulpen era, literaturari dagokionean bederen; izan ere, gaur egungo literatur itzultzaileak honen inguruan mugitzen dira, beroni jarraituz lortzen bait dira itzulpenean emaitzarik onenak.

Antologia honi lotuz esan dezagun Koldo Izagirre eta Ramon Sainzarbitoria sartzen direla honetan, berauen itzulpenak orohar egokiak suertatzen direlarik. Ardura berezia antzematen zaie hizkuntza literarioa zaintzeko (jatorrizkoa, noski), eta esan behar da neurri handi batean jatorrizko testuaren balio literarioak neurri doiez isladaturik geratu direla itzulpenean. Badira, ordea, espresio batzuk gaztelaniaz euskaraz baino aberatsagoak gertatzen direnak. Har ditzagun ondorengo esaldiak: (K. Izagirre)

Eusk. 94. orria: "Legeak sortu aurretik, erregeak agintzen zuten".
(5)

Gazt. 95. orria: "Antes de crearse las leyes, mandaban los reyes".
(4-5)

Edo:

Eusk. 94. orria: "Eta horregatik errege botako dun legerik ez omen do".
(7-8)

Gazt. 95. orria: "y por eso dicen que no hay ley que derribe al rey".
(7-8)

Bistakoa da hemen, bi adibide hauen gaztelaniazko esaldiak literarioagoak iruditzen zaizkigula, literaturtasunezko sentsazioan abarriago eragiten digutela, jatorrizko testuan ez dagoen errima dela eta.

R. Saizarbitoriaren itzulpena hartzen badugu konturatzen gara zenbaitetan espresio motelagoak erabiltzen dituela:

Eusk. 136. orria: "Pago lepo luzeen ostro tartetik filtratu zen argi lanbro berdea".

Gazt. 137. orria: "La llovizna de luz verde que se filtraba a través de las hojas de aquellas hayas esbeltas".

Argi dago oraingo honetan, "pago lepo luze" espresioaren esanahi zehatzak indarra galtzen duela gaztelaniaz "hayas esbeltas" jar-tzean.

Beste horrenbeste egiten du itzultzaileak ondorengo honetan:

Eusk. 136. orria: "...ezpainetatik zerbeza aparra zeriola".
(8)

Gazt. 137. orria: "...los labios llenos de espuma de cerveza".
(9)

Euskarazko espresioaren dinamikotasun hori ez da itzulpenean isladaturik geratzen.

— — —

Artikulu honetan zehar ezarri ditugun adibideak (askozaz gehiago jar genitzakeen) balio izan digute, aldez edo moldez, agerian jartzeko itzulpenetan egin diren era desberdinetako desegokitasunak; ikusi ahal izan ditugu, baita ere, zenbait kasutan jatorrizko testua eta itzulpenekoaren artean dauden alde nabarmenak, itzultzaileek aukeratu duten bidea, eta, inportanteena, gaur egungo euskal itzulpenaren egoera, zeinak lan horretan aritzeko ezinbestekoa zaigun eredu finko baten gabezia salatzen bait du.

Liburuaren errakuntzez zerbait

Zoritxarrez, honetan ere badago zer esanik. Beti uste izan dugu liburu bat argitaratzea arreta haundiz egin beharreko lana dela; ez zaigu iruditzen, ordea, despistek, ahazketak, inprenta akatsak e.a. ikusita behintzat, honako hau eskatzen dugun eta euskal idazleen elkarteak aldarrikatzen duen ardura horrekin burutu denik. Guzti honen pentsaerazten digu kontu gehiegirik gabe aritu dela lan honetan, berorrekiko beharrezkoa den seriotasuna beste une egokiagoetarako utzirik.

Ondorio gisa

Esanak esan, eta aipatuak aipatu, guzti honetatik ateratzen dugun konklusio nagusia zera da: itzulpenarekiko seriotasun falta (eta agian profesionaltasun falta) Antologia honetan parte hartu dutenen aldetik; izan ere, ez zaio itzulpenari behar den garrantzia eman (edo eman nahi izan) era honetako eginkizun batek duen balioa estalia geratu bait da errazenera jo nahi izan delako askotan. Kontutan hartuz gure literatura hau ez dela sobera ezaguna Euskal Herritik kanpo, ahalegin dexente bat egin dezakegu hori posible izan dadin, baina behar diren gauzak eta behar diren moduan eginez, hau da, kalitate minimo batez, ez edonola.



Ondoren adibide zerranda bat jarriko dugu lexiko hautapenari dagozkion zenbait akats nabarmentzeko. Hona hemen:

- | | |
|--------------------------------|--|
| 1. Eusk. 92. orria:
(4-5) | “Ez ziren bederlatziak soinu entzun zutenan”. |
| Gazt. 93. orria:
(4-5) | “No eran todavía las nueve cuando oyeron la música”. |
| 2. Eusk. 92. orria:
(10-11) | “ <i>lukánka</i> puskak makiletarik zintzilik”. |
| Gazt. 93. orria:
(11-12) | “Iargas longanizas colgando de pértigas”. |

3. Eusk. 134. orria: "Lehendabizi izerak aldendu".
(9)
Gazt. 135. orria: "En primer lugar liberarse de las sábanas".
(10)
4. Eusk. 134. orria: "Eskuineko eskuaz".
(10-11)
Gazt. 135. orria: "Con la mano izquierda".
(12)
5. Eusk. 134. orria: "Etzan".
(2)
Gazt. 135. orria: "dejarlo caer".
(2)
6. Eusk. 136. orria: "Argiaren koloreetan identifikatu behar nuena".
(14-15)
Gazt. 137. orria: "... que tenía que haber identificado a partir del colorido de la luz".
(15-16)
7. Eusk. 176. orria: "... non galtzen dira mutil koskorren ipurdiak".
(22-23)
Gazt. 177. orria: "... dónde se pierden los culos de los chavales".
(21)
8. Eusk. 144. orria: "... desira lizunak gogoratuaz".
(16)
Gazt. 145. orria: "... paladeando deseos obscenos".
(17)
9. Eusk. 158. orria: "Eta biharamun arratsean agian...".
(1)
Gazt. 159. orria: "Y tal vez al día siguiente, a la hora del crepúsculo vespertino".
(1-2)
10. Eusk. 158. orria: "Postetxetik behera doan kale nagusian, inor ez".
(13)
Gazt. 159. orria: "En la calle principal, que baja de la Casa de Correos, no había estrictamente nadie".
(13-14)

SINTESIS

Aunque el número de textos traducidos del euskara a otras lenguas es bastante reducido, hay que decir que va en aumento. Una pequeña muestra de ello puede ser el libro titulado "Antología de la Narrativa Vasca Actual", que impulsado por la Asociación de Escritores Vascos ha sido publicado en 1986. En dicho libro figuran 10 textos (tanto relatos como fragmentos de novelas) emparejados con sus respectivas traducciones, que en la mayoría de los casos han sido realizadas por los autores mismos y en algún caso por otra persona.

El objeto de este artículo es mostrar en pocas líneas las tendencias y criterios que se siguen en la narrativa vasca y valorar en qué medida son correctas las traducciones, buscando siempre unas conclusiones generales.

Para ello nos hemos esforzado en exponer de un modo simple y objetivo los errores e imprecisiones con diversos ejemplos ilustrativos.

La primera observación es que las traducciones en conjunto no tienen ninguna homogeneidad. Ello se debe, en nuestra opinión, a que han sido realizadas por distintos traductores y que ninguno de ellos es traductor profesional, lo cual podría justificar el resultado.

Ya que el objeto principal de toda antología es ofrecer una mínima unidad en sus textos, uno de los puntos que nos parecen más criticables en ésta es la falta de coherencia en la elaboración de las traducciones. Esta falta de unidad puede justificarse con las tres tendencias o criterios que se han seguido:

- La tendencia dinámica o de sentido (A. Lertxundi, Txillardegui, B. Atxaga, M. Hernandez y L. Mintegi). Estos textos nos dan la impresión de que son versiones y no traducciones; en nuestra opinión merecen una dura crítica y son una muestra del modo en que no se debe traducir.

- La tendencia formalista o literal (B. Oyarzabal, M. Gonzalez, J. A. Arrieta). Estas traducciones nos parecen aceptables aunque en algún caso se puede estimar que han errado en la elección del léxico.

- La tendencia equilibrada (R. Saizarbitoria, K. Izagirre). Esta tendencia es intermedia de las anteriores y en nuestra opinión ésta sería la manera en que se debe traducir la literatura, que es la misma que siguen la mayoría de los traductores de literatura.

Todo lo anterior nos muestra que es necesario un modelo seguro de traducción en euskara.

En cuanto concierne a la edición del libro, viendo las erratas, los despistes, olvidos, etc. notorios que hay en todo él, no nos parece que se haya llevado a cabo con el celo que nosotros pedimos y proclama la misma asociación de escritores.

Las conclusiones principales que se obtienen de esta antología es la falta de seriedad (y tal vez de profesionalidad) por parte de los escritores y de los responsables de la antología en lo que respecta a la traducción. Pensamos, por tanto, que tanto en lo que concierne a la elaboración de una antología

como en lo que respecta a los cuidados de edición, este esfuerzo ha sido bastante poco serio, y que esta "antología" no responde ni en su selección ni en su realización, a lo que es realmente la narrativa vasca actual.

SYNTHESIS

Although the number of texts translated from basque to other languages is quite small, it must be said that it is growing. Proof of that could be the book entitled "Anthology of Present day Narrative Basque", which, launched by the Association of Basque Writers was published in 1986. Ten texts appear in this book (short-stories as well as parts from novels) and they go, coupled with their respective translations which for the most part have been done by the writers themselves though in some cases by someone else.

The object of this tendencies is to show, in only a few lines the tendencies and criteria continued to be used in Basque Narrative and to see to what extent the translations are correct -with a view to general conclusions always.

To do this, we have tried to show in a simple and objective way, the errors and imprecisions in various illustrative examples.

The first observation is that in general the translations have no homogeneity. We believe that this may be because they have all been done by different translators, none of them being professional translators.

As the main principle in all anthologies is to offer some sort of unity of the texts, one of the things which we would most criticize here would be the lack of coherency in the elaboration of the translations. This lack of unity may be justified by the three tendencies or criteria which have been followed:

- The dynamic tendency -or meaning. (A. Lertxundi, Txillardegi, B. Atxaga, M. Hernandez and L. Mintegi). These texts give us the impression that they are versions rather than translations; in our opinion they should be strongly criticized and are a clear example of how not to translate.

- The formalist or literal tendency: (B. Oyarzabal, M. Gonzalez, J.A. Arrieta). These translations are quite acceptable to us though occasionally one might say that they have made mistakes in the choice of lexic.

- The balanced tendency. (R. Saizarbitoria, K. Izagirre). This tendency comes somewhere between the above two tendencies, and it is in our opinion the way in which literature should be translated, and is the way in which most translators of literature work.

All this goes to show that a safe model of translating Basque is needed.

So far as the editing of the book is concerned, seeing the mistakes and absent mindedness, which can be seen throughout the whole of it, we do

not think it has been carried out nearly as well as we would have hoped or as well as it has been proclaimed by the Writer's Association.

The main conclusion we can come to with this anthology is the lack of seriousness (and may be of professionalism) on the part of the writers and those responsible for the translation of the anthology. Therefore we think that concerning both the elaboration of the anthology and the editing, the effort made has not been a serious one, and that this "anthology" does not represent well either in the selection, or in its realization, what present day Basque narrative really is.

Itzulpen baten eta bere zuzenketaren arteko konparazio-azterketa

Joseba Mikel Garmendia Albarracín

I. Sarrera

1876. urtean Foruak erabat galtzen direla eta, aldakuntza garrantzitsuak gertatzen dira Hego Euskal Herrian. Foruak galduak izanik, hizkuntza salbatzeko eta indartzeko ardura sortzen da; eta euskararen alde lan egiteko kontzientzia, apeztaraziz beste, jende gehiagok orain hartzen du.

Kontzientzi hartze horretan D'Abbadiek antolaturiko euskal jaiak eta poesi lehiaketak azaltzen dira; era berean, Lore-jokeek inoiz izan ez zuten ospea lortzen dute. Gainera, euskarazko produkzioa nahartu egiten da hesparu berriak, antzerkia, saioa eta narratiba alegia, bereganatuz.

Gipuzkoan mugimendu literario garrantzitsua jaiotzen da, Villasanteren hitzetan: "*un movimiento áltamente simpático por lo espontáneo y por ser fruto de la vida*" (1); eta J. Zabaletak dioenez, "*herriaren ahotik jaso zuten hizkuntza prosa literarioaren mailara jasotzen jakin zuten*" (2).

Gipuzkoako mugimendu honetan, Manterolaren eskutik, garai horretako idazle aipagarrienak eta euskal letren lantzeko izerdiak bilduko eta (landuko) koordinatuko dituen **Euskal Erria** aldizkaria sor-

tzen da. Bertan Manterolak, **Cancionero Vasco**-ren idazleak eta **Euskal Erria** aldizkariaren sortzaileak; Antonio Arzac poetak; Carmelo Echegaray historialariak; euskal antzerkiaren sortzaileetako bat den Marcelino Soroak; Francisco Lopez Alén, sari literario askoren irabazleak; Gregorio Arrue itzultzaile famatuak; eta lan honen ardatza den Manuel Antiak lagunduko dute.

Belaunaldi honen zeregin garrantzitsua eta zabal bat ere itzulpena izan zen, bai beste hizkuntzetatik, gazteleratik batipat, euskarara, edota dialektu batetik beste batetarakoa. Lan honetan aipagarrienak Gregorio Arrue, zeinak itzulpen zerrenda luzeatik ospez altxatzen den **Bravanteco Genovevaren bizitz arrigarri miragarria** idatzi eta Mogelen **Peru Abarka** gipuzkerara bihurtu bait zuen, eta Manuel Antonio Antia.

Euskal literaturaren berpizte honetan, balio handiko zeregina eduki izan zuten inprimategiek. Guztiz aipatzekoa da, Tolosako Eusebio Lopez editorea. Hiztegiak, gramatikak, historiako liburuak eta oraindik argitaratu gabe zeuden aintzinako obrak editatu zituen. Adibide batzu emateko, besterik gabe: Aizkibel eta Novia de Salcedoren hiztegiak, Mogel-en Peru Abarka, Astarloaren **Discursos filosóficos**, Larramendiren koreografia, P. Henao-ren **Antigüedades**, P. Moret-en **Analeak**...

Garaian dagoeneko kokaturik gaudela eta, lotu gatzazkion hariari.

1983. urtean Tolosan XIX. mende azkenaldiko eskuzkribu bat aurkitu zen. Eskuzkribu hau Manuel Antonio Antiak eginiko Fray Leopoldo de Cherancé kaputxinoaren **Vida de San Francisco de Asís** liburuaren itzulpena da, frantsesezko jatorrizko argitalpenetik egina, ziurrenera, Antiak berak liburuaren izenburuan ziurtatu ez baina aditzera uzten duen bezala. Interesatzen zaionari esan, eskuzkribuak egungo folio bikoitzeko tamaina duela eta paperaren marka Arrillaga dela, erdialdean zuhaitza duen eskutu koroaduna duelarik.

Itzultzailea

Baina, M. A. Antiaz zerbait gehiago ezagutu dezagun. Urretxun jaio zen 1830-ko Maiatzaren 6an. Oñatin Filosofia eta Iruñean Teologia ikasiko du. Leitzan kapelaua eta Urnietan 1857-1894 urteren ze-

har erretorea izan zen. 37 urte zituelarik, P. Claret-en *Camino recto y seguro para el cielo, lección para el devoto carmelita, devoción de los siete domingos de San José* liburuaren itzulpena burutzen du, geroztik bederatziz ediziotaraino iritsiko zena. 48 urte zituela **Kristaua elizan** argitaratzen du eta segidako urteetan deboziozko liburuak eta dozena bat itzulpen idazten ditu. **Euskal Herria** eta **Euskalzale** aldizkarietan laguntzen du artikulua eta olerkiak idatziz. Urnietako euskal jaietan Abbadierekin lankidetzen da. Oiartzuneko lehiaketan saritua gertatzen da. Azkenik, 1894ean Urnietan hiltzen da. Karmelo Echeagarayren hitzetan: "*Erderatik euskarara bihurtzen, gutxi bezelakoa zen*" (3).

Antiak liburu batzu Tolosako E. Lopezen inprimategian argitaratu zituen, **Karmelatar debotoarentzat ikasbidea** itzulpena bai bederen, azalean E. Lopezen izena agertzen bait da (4).

Aita San Franzisko Asiskoaren Bizitza itzulpena ere idatzi zuen. Honela dio eskuzkribuaren haseran: "*Aita San Franzisko Asiskoaren Bizitza. (1.182-1.226). Aita Leopoldo Cherancé, kaputxi-noen ordenakoak Pranzez hizkuntzan argitaratu zuenetik Giputz-euskarara. Manuel Antonio Antia, Urnietako erretoreak itzulia*".

Antiak, hil aurretik, geroago argitara zezan behar bada, E. Lopezi eman nahi zion. Eskuzkribuaren azalean honela bait dio: "*Este manuscrito es propiedad Eusebio Lopez, editor de Tolosa por regalo de la familia según voluntad del traductor; antes de su muerte. Tolosa y mayo 22-1.901. Eusebio Lopez*".

Historia ez da hemen amaitzen. E. Lopezek, antza denez, itzulpen hau argitaratu nahi zuen eta horretarako eskuzkribua norbaiti zuzenketak egin zitzaion utzi zion; zuzentzailea M. A. Antia bera ez dela bistan ikusten da, besterik gabe zuzenketetako letra bera ere egilearenaren oso bestelakoa delako, eta ikusiko den bezala, bata eta besteak hizkuntz eredu oso desberdinari erantzuten diotelako. Zuzentzaile ezezagun horrek, beraz, liburuaren "Itz-Aurrea" eta "Lenbiziko berezierra" zatiak zuzendu zituen. Zuzenketa hauetan J. Zabaletak dioen bezala, "*XIX mendearen amaiera eta XXaren haserarekin batera euskarari dagokionean gertatzen den hizkuntz erizpide "aldaketa"* (5) *ikus daiteke*". Zuzenketa hauei dagokienaz beranduago mintzatuko gara zabalago.

Lan honen helburua, lehenik, Antiak dagien itzulpenaren azterketa izango da; Antia-aren itzulpenaren eta zuzentzailearen arteko hiz-

kuntz erizpideen gonbaraketa bigarrenez; eta azkenik, zuzentzailea nor den aztertu eta frogatzen saiatuko gara.

II. Sorburu testuarekiko itzulpen testuaren azterketa

II.1.

Antiak egindako, Fray Leopoldo de Cherancék idatziriko Asisko Franzisko santuaren bizitzaren itzulpena bere sorburu testuarekin (SH) konparatuz aztertzerakoan, J.M. Zabaletak **“Informazio irabazi eta galerak testu juridiko baten itzulpenean. Usurbilko erriyaren ordenantzak (1888)”** artikuluan (6) erabiltzen duen azterketa mota jarraitu izan da, hots, xede testuan (XH) gertatzen diren informazio galerak eta irabaziak.

Azterketa honetarako, itzulpeneko “Itz-aurrea” eta “Lenbiziko bereziera” erabili izan da, hots, aipatzen ari garen eskuzkribuko lehen 16 orrialdeak eta gaztelaniazko 31, gaztelaniazko testua bait darabilgu jatorrizko bezala.

SH-ko testuko hitzaurrean 12 ahapaldi daude, aldiz, XH-n 11. Hau ahapaldi batzuren fusioz gertatzen da. “Lenbiziko bereziera”-ri dagokionez, SH-n 56 ahapaldi eta hauek elkartzean edota ez itzulitzean, XH-n 36 bakarrik daude.

Zuzentzenaion irakurle goaridagokionez, ezberdintasunak badaude bi testuen aldetik. Lehenik, kulturalki irakurle goa banagarria da, SH-ko irakurle goa erdalduna bait da, eta aldiz, XH-koa euskalduna edo gehienez jota, elebiduna. Baina, bada beste diferentzi garrantzitsuagoa: Antiak bere itzulpena jatorrizko testukoa baino irakurle go herrikoiago, zabalago, arruntagoari zuzentzeko asmoz egiten du, horrela azaltzen dute behin behin lexikoaren zehaztasunaren murrizpenak, latinezko ziten itzulpenak, eta batez ere, SH-ko esamolde konplexuen herrizkerapenak eta sinplegotzeak. Honek dakarren ondorioa, balio literarioaren txiroketa da, espresioak desagertu egiten bait dira, errekurtsio literarioak deuseztu... Hala ere, literario alorrean galtzen duena, ulerpenaren erraztasunean irabazten du.

II.2.

Itzulpen testuetan normalena informazio galera gertatzen da; aldiz, arrazoi batzuren bidez informazio irabaziak ere gerta litezke, eta hona hemen, Antiak XH-n ezartzen dituen informazio irabazi mota batzuk, argibide izango dituzten adibideekin.

1. Lehendik adierazirik zeuden informazio batzuren errepikapena, era horretara testuaren ulerpen hobeagoa lortzen duelarik. Hau SH testuan agertzen diren izenordeak gordetzen duten esanahia XH testuan ezartean.

–Para refutarla victoriosamente
Erreparu oni bear bezela erantzuteko
(Itz-Aurrea, 2. prrf.)

–Resistiendo aquella y triunfando esta
nola izaerari gogor egiten zion eta grazia garai ateratzen
zan (I.A.-7) (7)

Edota sintagma batzu berriro errepikatuz gertatzen da, batzutan paralelismoa lortzen duelarik.

–En cuanto la criatura pueda asemejarse al creador y la propia-copia al modelo
Kriaturakriatzaillari iruditual dezayokean ambatean eta
imajina bere moldeari iruditu al dezayokean moduan
(Lenbiziko bereziera, 5. prrf.)

2. Inplizito dagoen informazioa esplizitoki agertzen da xede testuan; zenbaitetan zehazten den informazioa testuan derrigor inplizitu ez dagoena da, itzultzaileak bere irakurlea ezjakintzat jotzen duelako zehaztua baizik. Hala, ondoko lehen adibidean, "beste" denean jakina da "berri" dela; baina hurren bigarrenean, "Alpeak" ez ziren nonbait "mendi" bezala ezagunak euskal irakurle debotoarentzat.

–Una más
beste berri bat (I.A.-1)

- Por los Alpes
Alpe-mendietatik (L.B.-1)
 - Antes de la era vulgar
Jesu-Kristo mundura etorri baño lenago (L.B.-1)
 - Jesus en Nazaret
Jesus aurrarenak Nazareten (L.B.-15)
 - Que comprende el tiempo transcurrido desde su adolescencia a su conversión (1196 a 1206)
bere gaztetasunetatik konbertitu zen arterañoako amar urte aetan (1.196 tik 1.206 era) (L.B.-25)
3. Itzultzailearen iritziz edo kulturaren ohituraz, badaude beti kalifikazio konkretuen eransketa egiten zaien kontzeptu batzu, hau orokorki erlijiozkoetan ematen delarik.
- A la memoria de nuestro Fundador
gure fundatzaile santuari (I.A.-7)
 - Como otro Simeon
Simeon zarrak bezela (L.B.-10)
 - La providencia
Jaungoikoaren Probidentzia (L.B.-15)
4. Lexikoaren mailan, erdaratik mailegua hartu nahi bada, mailegu horren ondoan konjunktio disyuntiboaren bidez elkartuz euskarazko hitzaren, gehienetan herrikoia ez dana, ezarketa gertatzen da.
- La naturaleza
izaera edo naturalezak (I.A.-7)
 - Su clima
Bere klima edo aizetorkia (L.B.-1)
5. Badago beste informazio irabazi mota garrantzitsubat. Hau itzulpenean itzultzailearen subjektibismoa agertzean jasotzen da. Eta orokorki bi modutara gerta daiteke:

5.1. Lehenbizi, SH testuko informazioak interpretatu egiten ditu itzultzaileak.

- Temerosos de que el error no adquiriese el beneficio de la prescripción
Denboraren buruan utsegiteak egiaztat hartu etzitetzen (I.A.-13)
- En nuestra patria
Gure artean (I.A.-11)
- Antes de la era vulgar
Jesu-Kristo mundura etorri baño lenago (L.B.-1)
- Los principes de las tinieblas
infernuko deabruak (L.B.-10)
- Para que nadie equivocase el sentido de su misión
guziak ezagutu zezaten Jaungoikoak bialdutako lam-bidean zebillela (L.B.-33)
- Por modo sobrenatural
millagroz (L.B.-33)
- Sus disipaciones
Zabarkiro igarotako urteakgatik (L.B.-32)

5.2. Itzultzaileak bere eritzia ematen du; hemen behar bada, itzultzailearen ideologia nabari daiteke.

- Contra los desbordamientos, nunca vistos, de la presente generación
Ondatu ez ditzan gizaldi onetako lasaikeriak, ugol-dearen gisan artzen duten guzia menderatzen dutenak (I.A.-9)
- Fomentar las felices inclinaciones que iba descubriendo en su hijo
Semeagan ikusten zituan ekarrai onak indartzen, au iriste arren ezertan artu gabe neke eta alegiñ guziak
(L.B.-17)

- La dorada copa
Atsegiñezko edontzi urreztua (L.B.-25)
- En el firmamento de su Iglesia
Eleizaren zeru urdiñ eder horretan (L.B.-36)

II.3.

Informazio galeretan denetarik gerta daiteke, bai ahapaldi osoren desagerpena, bai puntualizazio batzuren, informazio aspektu batzuren, bai generalizazioaren bidez, bai konplexutasunak sinpleagotuz... Literalki ere, galerak nabarmentzen dira.

1. Informazio galera garrantzitsuenak Antiak itzultzen ez dituen ahapaldi luzeen desagerketak dira. Honen arrazoi noski, Antia-
ren iritzi subjektiboan bilatu beharko litzateke.

Horrela badirudi batzuetan deskripzio hutsa delako kentzen duela. Adibidez, jatorrizko testuaren lehenengo kapituluaren 2. eta 3. orrialdetan 40 lerro kentzen ditu, "Si el lector quiere cerciorarse... sencillas costumbres" zatia hain zuzen, eta Horrek garrantzi handiko galera esan nahi du, geroago zuzenean eta zer diren adierazi gabe izen propio batzu agertzen direlako zer diren esan gabe; hots, konkretuki Espoleto eta Perusa hiriak zirela eta ez beste zerbait, itzultzaileak ezabatu duen zati horretan adierazten zen.

Beste batzutan, pentsakizun metafisikoak kentzen ditu, hala nola, 9. orrialdeko 16 hileretako "¿No tenía razon en proceder... el resultado que apetecía" zatia.

Gerta daiteke baita ere, kentzen dituen zatiak laburtuz itzulpenean txertatzea, hala nola adibidez, 12. orrialdeko 46 ileretako "Por entonces fué... opulencia en que habia caido" zatia, "Lembiziko bereziera" ren 20. paragrafoan lau ileretan laburtua azaltzen da.

Edota, 19. orrialdeko 56 ileretako historiazko "y vinieron sobre él... y la victoria de los perusinos" zatia 5 ileretako laburpen bat du 30. parrafoan.

2. Beste informazio galera mota, ez paragrafoak kentzea bezain garrantzitsua, puntualizazio edota gehienbat proposizio esplikatiben desagertetak dira. Hona hemen adibide batzu:
- de quienes todos hacen justos y grandes elogios (I.A.-4)
 - el interes que siempre despierta la narración de un contenido poraneo (I.A.-5)
 - en medio de una naturaleza incomparable (L.B.-2)
 - que tanto se esmeraron en retratar al Fundador, al Taumaturgo, al santo (L.B.-15)
 - en el cual retrato bien se echa de ver el tipo elegante y delicado de los pobladores de Umbría (L.B.-23)
 - por su caracter facilísimo y llena de contrastes y aquella su cortesía caballeresca y su rectitud jamás desmentida (L.B.-23)
3. Maila txikiagoan, informazio galera itzultzailearen iritziz, informazioaren aspektu batzu kentzean jasotzen da.
- la vida de nuestro heroe
gizon miragarri honi (I.A.-17)
 - sus altos ejemplos
beraren ejemploak (I.A.-9)
 - la acción de gracia
Graziak (L.B.-12)
 - el recuerdo de las primeras sonrisas
aren lenbiziko parra gozoak (L.B.-15)
 - los antiguos historiadores de San Francisco
San Franzisko-ren kondairatzaileak (L.B.-15)
 - algun amigo de la familia
adiskideren batek (L.B.-20)
4. Esamolde konplexu eta kultuak ezin itzuli edo itzuliz gero euskaraz esaldi behartuegi geratzen delako edo itzultzaileari beharrezkoa ez den soberako informazio gehikuntza iruditzen zaiolako, sinpleagotu egiten du, informazio galera sortuz.

- Formamos en el fondo del alma propósito de restablecer la verdad de los hechos
egokariak, gertatu bezela esateko asmoa artu genuen (I.A.-3)
 - Por no consentir que perdiese
galdu ez dadin (I.A.-4)
 - Son las mismas palabras que del autor
ala dio berak (I.A.-4)
 - El éxito y el contento han excedido a nuestras esperanzas
Geure lan au uste baño obeto atera zaigu (I.A.-6)
 - A todos los hijos del Sérafico Padre, cualquiera que sea la rama á que pertenezcan
Aita onen ume, ordena guzietakoei (I.A.-9)
 - á su vuelta
echera itzultzean (L.B.-13)
 - las primeras balbucientes palabras,... aquellas primeras expansiones de vida
itz-erdiskak eta jostachoak (L.B.-15)
 - el momento de formar la inteligencia de Francisco
eskolatzeko denbora (L.B.-19)
5. Lexiko mailan, erdaraz hitz batzu zehazteagatik edo zehaztuegiak agertzen dira, adjetiboen bidez orokorki, eta matizazio hauek ez dira euskarara itzuli, eta eta horretara euskaraz adjetibo gutxiago eta esanahiaz orokorrakoak agertzen dira.
- nuevos y espaciosos campos
bide berriak (I.A.-3)
 - vivisima y clara luz
argitasun handia (I.A.-5)
 - la parte activa y principalísima
parte aundia (L.B.-18)
 - buscado y solicitado por todos
guziak billatzen duten (L.B.-25)

- la niñez, la adolescencia y la juventud
aurtasuna eta gaztetasuna (L.B.-35)

6. Itzultzailearen iritziz ezagutuzat ematen duelako edota testu-
guruan beste leku batean aipatuak daudelako, informazio espli-
zitoak implizitoki ezartzen ditu.

- una de las obras maestras de la Edad Media,...
composición anónima de principios del siglo XIV
*XIV garren eunkariaren aurrean argitaratu zan itzkriburik
onenetako bat egillearen izen gabe* (I.A.-5)

- los fines que nos hemos propuesto
gure asmoa (I.A.-7)

- Mas aunque callen los historiadores sobre estos puntos
Alaz guziaz ere, (L.B.-15)

7. Beste galera mota, eta ez informazioari buruzkoa, aldaketa se-
mantiko, sintaktiko, morfologikoek balio literarioan dute eragi-
na da. Eragin honek espresatzeko errekurtsoen aldaketa eta ja-
torrizkoarekiko galerak sortzen ditu.

Balio literarioaren galera hau, neurri nabarmenean, hizkera kul-
turaren irudi diren esamolde konplexuak sinpleagotzean ikus-
ten dugu. Hona hemen bi adibide:

- Formamos en el fondo del alma propósito de...
asmoa artu genuen (L.A.-3)

- El éxito y el contento han excedido a nuestras esperanzas
Geure lan au uste baño obeto atera zaigu (I.A.-6)

Itzulpenak jatorrizko testuak duen gorespen, indar goratzailea
ere galtzen du. Galera hau adjetiboetan argi nabaritzen da: alde
batetik, gradu positibo erlatiboazko adjetiboak gradu positiboan
itzultzen ditu maiz. Adibidez,

- el alma humildísima del mendigo
eskale umillaren anima (I.A.-7)

- su fisonomía originalísima
izan zuten ichura berekia (I.A.-7)

eta bestetik, adjetibo ugaritasunez ematen diren matizazioak, gehienetan balio superlatibozkoak diren matizazioak, galdu egiten dira zehaztasun gutxiko adjetibo gutxiagoz itzultzean,

- nuevos y espaciosos campos
bide berriak (I.A.-3)
- vivisima y clara luz
argitasun aundia (I.A.-5)
- La parte activa y principalísima
parte aundia (L.B.-18)

Itzulpenean figura erretorikoak galdu egiten dira, baita ere, metaforak adibidez:

- aquellas primeras expansiones de vida
jostachoak (L.B.-15)
- la aurora de su existencia
beraren jayotza

Personifikazioak

- la naturaleza... si publica la omnipotencia del Creador, tambien habla de su bondad (izaera)
izaera... Egillearen guziala sentiarazten badu ere, era berean bere ondasuna adierazten duena (L.B.-1)

Litoteak

- no habrá de buena fe que no vea...
gizon prestu guziak... ikusiko behar dituzte (L.B.-12)

II.4.

Lexikoaren aldetik, gaztelaniazko hitz zehatzak adierazteko sarritan Antiak hitz bakarra erabili beharrean edo erdarakadak erabili beharrean, hitz horren esanahia esplizitoki azaltzen du.

- valor intrínseco
berez daukan balioa (I.A.-5)

- anónimo
egillearen izen gabe (I.A.-5)
- pintar
nolakoa zen agertzea (I.A.-7)
- la abnegación
bere buruaren ukatzeak (L.B.-17)
- a quien exorcizaban
eleizako orazioakiñ gaizkiñak kentzen ari zizayozkatela
(L.B.-11)

Itzulpen modu honetan, informazio irabazia gertatzen da, implizitoa dagoena esplizitoki azaltzen delako.

II.5.

Ondorioz, esan behar da, itzultzaileak testua herrikoiago bihurtzen duela, alderantziz, balio literarioan galdu egiten duela. Dena, dela, garai hartako errekurtsioekin, hau da, neologismorik edo maileguzko hitzik erabili gabe, informazio konplexu asko itzuli ahal izan du: esanahi gehiena hatzemanetz.

Hala ere, M. A. Antiak euskal itzulpenaren historian duen balioa, edo testu honek duen itzulpen balioa bere neurrian hatzematuko, perspektiba historiko zabalagoa behar da, eta bere garaiko itzulpengintza-
ren testuinguruan kokatu. Hori, ordea, ez dago idazki honen ahalmenean ez asmoetan.

III. Antiaren itzulpena eta testu zuzenduaren arteko gonbaraketa

Sarreran aipatu dugun bezala, Tolosako E. Lopez editoreak Antia-
ren idatzia argitaratu nahiean norbaiti utzi zion zuzendu zezan. Zuzen-
ketak jatorrizko eskuzkribuaren gainean eginik daude eta lehenago
adierazi den bezala, bi garaietako euskararen joskera eta euskarare-
kiko ikuspegiak kontrastatzeko lekuko ezin hobea dira.

Zati honetan lan honen bigarren parteari helduko natzaio; Antiaran itzulpena eta testu zuzenduaren arteko gonbaraziotik jasotzen diren al-daketa gehien-gehienak, bai ortografikoak, bai morfologikoak, bai sintaktikoak, bai lexikozkoak. Finean, ondorioak atera ahal izango dira.

Hona hemen bigarren zati honetan aztertzen denaren klasifikazioa:

1. Ortografia.
2. Azken -a berezkoa. Atzizkiak. Deklinabidea.
3. Komunztadura.
4. Atributoa.
5. Aditza.
6. Perpaus bakunak.
 - 6.1. Galderak.
 - 6.2. Harriurazko perpausak.
7. Perpaus elkartuak.
 - 7.1. Proposizio konpletibak.
 - 7.2. Erlatibozko proposizioak.
 - 7.3. Proposizio kausalak.
 - 7.4. Proposizio kontsekutiboak.
 - 7.5. Helburuzko proposizioak.
 - 7.6. Proposizio esplikatiboak.
8. Perpausaren elementuen ordena.
9. Lexikoa.

1. Zuzenketa ortografikoak

Hona hemen zuzenketa ortografikoen zerrenda:

$$\begin{array}{ccc} & b & b \\ -a- & m + & \longrightarrow n + & (8) \\ & p & & p \end{array}$$

Adibidez: *lambidea* \longrightarrow *lanbidea*
barrumbea \longrightarrow *barrunbea*
zuzembidea \longrightarrow *zuzenbidea*

- b- Izen multzoa + ak + kiñ = IM + akkiñ → IM + akiñ.
lagunakkiñ → *lagunakiñ*
- d- [X] soinua duen -g- letra, zuzentzaileak -j- z idazten du.
Angel → *Anjel*
- e- Hasierako r-, bolaka -rr- bihurtzen da.
Rufino → *Errufino*
- f- Zuzentzailearen leherkari ahokari ezpainbikoarekiko joera ozenaren aldekoa da zenbait zuzenketatan, hots, -p- -b-.
jayoperria → *jayoberria*
- g- Zuzentzaileak bustidurak idatzi beharrean, kontsonanteak busti gabe adierazten ditu, horrela, -ll- -l- eta -ñ- -n-.
amilldu → *amildu*
zirtzillkeria → *zirtzilkeria*
biguñiki → *bigunki*
atsegiñitsuak → *atsegintsuak*
- h- /d/ alternantzian l-runtz jotzen du batzutan.
fraide → *praile*
- i- f/p alternantzia gehienetan p nahiago du eta batzutan f.
Ifar → *Ipar*
fraide → *praile*
famiñarekiñ → *pamiñarekiñ*
infernuko → *inpernuko*
prantzezez → *frantzezez*
- j- Diptongoen artean ere aldaketa batzutan ematen dira.
Eleizak → *Elizak*
Beeñ → *Beñ*
zieska → *seaska*
- k- Txistukarien artean ematen dira aldaketa gehienak eta garrantzitsuenak.
-Lehenik, Antiak frikatu edo afrikatu bizkar-albeolare eta apikal-albeolareak nahastu egiten ditu. Zuzentzaileak okerrak zuzentzen ditu.

Frikariak	Afrikatuak
Gis-irudiak → <i>Giz-irudiak</i>	Arrots → <i>Arrotz</i>
Eginkisuna → <i>Eginkizuna</i>	Erakutzi → <i>Erakutsi</i>
Diskidan → <i>Dizkidan</i>	Ertsetik → <i>Ertzetik</i>
Usten → <i>Uzten</i>	

–Bigarrenik, Antiak kontsonanteen aurrean jartzen dituen txistukari afrikatuak zuzentzaileak frikату egiten ditu.

Sinitsgaya → *sinisgaya*
itzkribua → *izkribua*
itzkuntza → *izkuntza*
beltzchoa → *belzchoa*
ekaitztsu → *ekaitztsu*

–Hirugarrenik, n ondoren dauden frikariak afrikatu egiten ditu.

zinzilik → *zintzilik*
penitentzia → *penitentzia*

-I- Antiak juntagailu kopulatiboa “eta” idazten du; aldiz, zuzentzaileak batzutan “ta”-ra eraldatzen du.

goarpelari eta... → *goarpelari ta....*
Bolandotarren eta... → *Bolandotarren ta....*
S. Franzisko Asiskoaren eta bere lagunena →
Asisko Franzisko ta bere lagunena
egiatasunaz eta → *egitasunaz ta*

2. Azken -a berezkoa. Atzizkiak. Deklinabidea.

Azken -a berezkoa

Zuzentzaileak hitz askotan askotan ez ditu azken -a berezkorik onartzen eta ezabatu egiten du, ondorioz, deklinazioan esate baterako, aldaketak sortzen dituena. Hona hemen Antiak ezarri eta zuzentzaileak kendu dien hitzak:

egia → *egi*
probinziako → *probinziko*

Ordena → *Orden*
 gauza → *gauz*
 aztarnarik → *aztarnik*
 jayerarik → *jayerik*
 Alemaniako → *Alemaniko*
 Italiako → *Italiko*
 Graziara → *Grazia*
 Franziaiko → *Franziko*
 banakaen → *banaken*
 gloriaraz → *gloriz*
 arantza → *arantz*
 lasaikeriarik → *lasaikeririk*

Atzizkiak

Zuzentzaileak erroari atxikituriko atzizki batzu aldatu egiten ditu, atzizki hauek orokorki hizkuntza erromanikoetatik datozelako.

Horrela, adibidez:

pranzes → *pranzitar* (I.A.-1)

Erdaran ugaritasuna edo oparotasuna adierazten duen oso atzizkia, euskerazko -tsu atzizkiagatik aldatzen du.

nekoso → *neketsu* (I.A.-2)

balioso → *baliotsu* (L.B.-16)

Latineko -mentum eta -tio/tionis atzizkitatik datozen -mendu eta -zio atzizkiak -pen atzizkiagatik aldatzen du.

sinistamentua → *sinispena* (I.A.-4)

bedeinkazio → *bedeinkapen* (L.B.-16)

tentazio → *tentapen* (L.B.-16)

Kolpe ekintzetako ideia ematen duen -ada atzizkia, behar bada erdarako -ada (patada)ren jatorri berbera daukalako (9), beste batzuenatik aldatua da.

begirada → *begiratzeak* (L.B.-9)

begirada → *begiratua* (L.B.-23)

Gabezia edo aurkakoa adierazteko Antiak des- aurrizki erromanikoa darabil. Baina zuzentzaileak des- hori-ge/-ke atzizkiagatik aldatzen du. Hona hemen R. M. Azkuek atzizki honi buruz diona: "*Ga. Profúsamente debió de usarse este sufijo allá cuando todavía no se introdujo el uso de бага, bage o su metátesis gabe sin. Al "indarga" débil, sin fuerzas sustituyó andando el tiempo indar бага con sus variantes. (...) Sólo tres ejemplos de ge he podido hasta ahora reunir: dos bizkainos, bage desprovisto, y elge (fruta) verde y (persona de poco talento... El tercero, dunge, malvado*" (10). Ikusten dugunez, oso gutxi erabiltzen da, baina antza denez zuzentzailea atzizki honetaz baliatu da des- ez erabiltzearren.

desagertu → *agerketu* (L.B.-10)

desberdiña → *berdingea* (L.B.-20)

Deklinabidea

Deklinabideari buruz, Antiaren itzulpena eta zuzenketaren artean dauden aldaketak bi multzotan bana ditzazkegu, alde batetik, kasu berdinen barru ematen diren aldaketak eta bestetik, kasu aldaketak.

Lehenengo multzoan aurkitzen ditugun zuzenketak hauexek dira:

- Antiak plurala adierazten duten determinante zenbatzaileei pluralerako ezaugarria ezartzen die, zuzentzaileak ondoren mugagabea ezartzen dituelarik. Adibidez,

Askoko degu kontatzea itz bietan →

Asko izango degu itz bitan... kontatzea (I.A.-2)

Beeñ baño geyagoetan → *Beñ baño geyagotan* (L.B.-16)

- Bigarrenez, ikusi bezala, zuzentzaileak azken -a berezko asko kentzen ditu, horrek elementu epentikoak desagerrarazi edo agerrarazi egiten duela edo konsonanteen permutazioa ematen duela, lege fonetikoaren arabera. Adibidez:

aztarnarik → *aztarnik* (L.B.-10): r epentetikoa erori

jayerarik → *jayerik* (L.B.-18): r epentetikoa erori

Ordenako → *Ordengo* (I.A.-5): permutazioa

egikeratako → *egikeretako* (I.A.-6): e epentetikoa jarri

– Hirugarrenik, erakusleene epen tetiko azuzentzaileak ezabatuegi-
ten du, adibidez:

onetatik → *ontatik* (L.B.-2)

onetan → *ontan* (L.B.-3) (L.B.-5) (L.B.-25)

onetarako → *ontarako* (L.B.-25)

– Laugarrenez, Antiak soziatiboaren plurala azaltzeko -ak kiñ
akkiñ forma erabiltzen du. Zuzentzaileak bietako k bat ezabatzen
du, pluralerako marka -akiñ geratuz.

lagunakkiñ → *lagunakiñ* (I.A.-4)

– Azkenik, fenomeno fonetiko batzuei buruzkoak

Jaungoikoana → *Jaungoikoagana* (L.B.-33)

billereetako → *billereetako* (L.B.-24)

Kasu edo deklinabide atzikiaren aldaketei buruz edo deklina-
ziozko anomaliari buruz, hona hemen R. M. Azkuek dioena: “*Es fre-
cuente dar a nuestras desinencias la misma extensión que se les da en
castellano a sus correspondientes preposiciones*” (11). Hauxe bera
ematen da adibidez, soziatiboa, laguntasuna eta konpainia soilik adie-
razten bait du, erdarako con preposizioaren balio askorekin nahastera-
koan. Garrantzitsuena eta ugariena, soziatiboa eta instrumentalaren ar-
teko nahasketa da. Zorionez, zuzentzaileak era egokian ezartzen ditu.
Hona hemen nahaste honen adibide batzu:

deadarrakkiñ → *deadarrez* (L.B.-24)

arreta guziarekiñ → *arreta guziaz* (L.B.-15)

bere buru ernayarekiñ → *bere buru ernayaz* (L.B.-19)

Hona hemen ere, -kin atzikia gaizki erabilia dagoelakoaren ustez
zuzentzaileak egiten dituen aldaketak:

¿Nola utzi zezakean bedeinkaziozko seme ura besteren eskue-
tan bular arrotzetan, galtzeko aín arrisku aundiarekin? →
¿Nola utzi zezakean bedeinkapenezko seme ura besteren
eskuetan bular arrotzetan, galtzeko aín arrisku aundian?
(L.B.-16)

Asisko uriak gerra zeukan Perusakoarekiñ —>

Asisko uriak eta Perusakoak gerra zeukaten. (L.B.-30)

Zorigaitz onekiñ galai gazte aek erori ziran —>

zorigaitz onegatik galai gazte aek... erori ziran (L.B.-30)

berarekin geyago ez tratatzea —> *berari geyago ez tratatzea.*

(L.B.-31)

ibillera guziz azkarrarekiñ —> *ibillera guziz azkarrean.*

(L.B.-36)

R. M. Azkuek beste anomali bat deskribatzen digu: “*Sucedee a nuestros escritores que piensan por lo general en castellano o en francés y traducen “sobre esto” (aunque signifique “de esto”) onen gañean*” (12). Antiak berdin dagi eta zuzentzaileak zuzendu ere.

S. Franziskoren gañean —> *Franzisko santuaz* (I.A.-3)

eman zien zuzembidearen gañean —> *eman zien zuzenbideaz*

(L.B.-15)

Eta azkenik, orain R. M. Azkueren arabera anomalia betetzen duena zuzentzailea da. “*La confusión que algunos hacen entre la desinencia del caso activo y la del instrumental*” (13). Hauxe bera gertatzen da hain zuzen ere.

Mundu guziak onratua —> *mundu guziaz onratua.*

(L.B.-30)

3. Komuzadura

Koordinazio kopulatiboa, bai disjuntiboa bi edo sintagma gehi-goien artean ematen denean, Antiak mugatzailea eta erlazio atzizkia sintagma guztietan ezartzen du. Zuzentzaileak ordea, joera honen aurka azkeneko sintagma soilik jartzen ditu mugatzailea eta erlazio atzizkia.

marmol miraritsua eta ponteoa —>

marmol miraritsu ta ponteoa. (L.B.-9)

itzuliko da lenago edo geroago —>

itzuliko da len edo geroago. (L.B.-18)

S. Franziskoren aurtasuna eta gaztetasuna —>

Franzisko santuaren aurtasun eta gaztetasuna. (L.B.-35)

4. Atributoa

Antiaren joera atributoa edo predikatiboa mugatua jartzea da, al-diz, zuzentzaileak mugagabeen.

Orobat izan zuen Berri-emailea ere bere erritar bat →
Orobat izan zuen Berri-emalle ere bere erritar bat.
(L.B.-8)

An izaera agertzen da aundi beziñ zoragarria →
An izaera agertzen da aundi bezaiñ zoragarri (L.B.-1)

5. Aditza

Zuzentzaileak aditz laguntzailearen baitan aldaketa batzuegiten ditu, orokorki Nor-Nori eta Nor-Nori-Nork kasuetan.

Nor-Nori kasuan ematen den aldaketa nabariena, Antiak izan aditzaren erro bezala -za- erabiltzen duen bitartean, zuzentzaileak -tza-. Horrela adibidez:

zizayotela → *zitzayotela* (L.B.-10)
cizayon → *zitzayon* (L.B.-14) (L.B.-19)
zizayozkan → *zitzayozkan* (L.B.-30)

Nor-Nori-Nork kasuan aldiz, Nori kasuko hirugarren pertsona adierazteko singularrako -o- ezaugarria eta pluraleko -e- ezaugarria behin ere, kendu egiten ditu.

ziozkala → *zizkala* (L.B.-9)
ziozkan → *zizkan* (L.B.-16)
ziezten → *zizten* (L.B.-20)

Berdin gertatzen da Nor-Nori-ko adibide batetan:

zizayozkatela → *zizaizkatela* (L.B.-11)

Antiak batzuetan aspektorearen atzizkiak ezartzerakoan oker batzuegiten ditu. Oker horiek zuzenduak izaten dira.

izandu → *izan* (I.A.-7), hots, izan erroari aspekto perfektua adierazteko ø atzizkia gehitzen zaio.

utzitzen → *uzten* (L.B.-20), hots, erroa utz da eta horri -ten gehitzen zaio aspektu ez-perfektua adieraz dezan.

Kasu batetan forma perifrastikoa forma sintetikora bihurtzen du zuzentzaileak, dakarren aldaketa bakarra aspektua ez-puntuala bihurtzea dala.

iristen da Umbria izendatzen den ibai eder eta zabal batera
iristen da Umbria deritzon ibai eder eta zabal batera.
(L.B.-1)

Bi alditan aditzaren denboraren aldaketak gertatzen dira. Lehenik:

Estago dudarik gerekiñ gendukala Bernardo Bessenen kondaira sonatu ura, zeñaren izaera eta egiatasuna Bolandotarrak ikusierazo duten, aen lembiziko itzak siñalatu dituztelako, eskuetaratu eziñ izan bazuten ere. —> *Eztago zer esanik gerekiñ gendukala Bernardo Bessenen izen aundiko kondaira ura. Bere izaera eta egiatasuna Bolandotarrak ikusierazo zuten, bere lembiziko itzak agertuaz, eskuetaratu eziñ izan bazuten ere.* (I.A.-3)

Nahiz eta erdarako testuan ekintzak hurbil egon eta Antiak zentzu hori gorde arren, zuzendua izaten den garaiaren arabera gertaerak denboran urrun daudelako agian jazotzen da denbora aldaketa hau.

Beste denbora aldaketan alderantziz gertatzen da: lehen alditik orain aldi historikora igarotzen da.

gero eta geyago sentitzen zan, zeruko itzal gizako batek inguratzen zuela —> *gero eta geyago sentitzen da, zeruko itzal antzeko batek inguratzen duela* (L.B.-27)

6. Perpaus bakunak

6.1. Galderak

Baiezko edo ezezko erantzuna eskatzen duten galderetan, zuzentzaileak AL partikula ezartzen du laguntzailearen aurrean.

¿orrela bialtzen dezu...? —> ¿orrela bialtzen al dezu?
(L.B.-26)

¿konbeni zan...? —> ¿on al zan....? (L.B.-27)

6.2. Harridurazko perpausak

Harridurazko proposizioa eraikitzeko Antiak galdetzailea hasieran eta aditzari -n atzizkia ezartzen ditu. Zuzentzaileak, apika, forma honek erdarakoarekin duen antzogatik, Bai adberbioa galdetzailearen ordeztu eta -ela atzizkia -n ordeztu ezartzen ditu, hots,

¡Cer poza sentitzen duen...! —>

¡Bai poza sentitzen duela...! (L.B.-36)

7. Perpaus elkartuak

7.1. Proposizio konpletibak

Proposizio txertatu konpletibetan Antiak gehienetan -ela atzizkia baiezko kasuan eta -enik ezezko kasuan aditz konjugatuari loturik dabil. Baina kasu oso gutxi batzutan, Pierre Laffiteren "*Les anciens auteurs commençaient volontiers par "ezen" ou "baizik-eta" les propositions susordonnées complétives en -la*" (14) esanak adierazten duen joerari jarraituz, proposizio konpletiba luze asko gertatzen denean adibidez, eta perpaus nagusiaren ondoren doazenean, perpaus nagusiaren aditza eta proposizio konpletibaren artean, Villasantek "*partícula introductoria*" deitzen dion "ezen" hitza ezartzen du. Hona hemen, bi kasu:

ezagutu degu, ezen, Fioretian arkitzen diran irakorgai eta gertaera geyenak (...) Bernardo Bessenaren kondairatik bat banaka artuta daudela (I.A.-5)

erantzun zidan, ezen, lirioak aditzera ematen zuela Franziskoren garbitasun aingerukoia (L.B.-33)

Nabaria da ezen partikulak perpaus nagusia eta perpaus txertatua garbiki banatzen dituela, ulermenaren onerako.

Zuzentzaileak aldiz, ezen partikula ezabatu egiten du. Aurreko enpenplua honela geratzen da adibidez:

erantzun zidan, lirioak Franziskoren garbitasun aingerukoia aditzera ematen zuela (L.B.-33)

“Esta partícula es fácil que haya sido introducida por analogía con el “que” castellano (y francés) y con el “quia”, “quod” del bajo latín” (15), dio Villasantek; eta hauxe bera izan liteke zuzentzaileak dagien ezabaketaren arrazoia.

7.2. Erlatibozko proposizioak

Antiak erlatibozko proposizioak hiru eratan erabiltzen ditu:

– Lehenik eta era arruntena dena, erlatiboa izenaren aurretik ezarriaz. Adibidez:

Erromatik Italiako Ifar alderonz dijoan bidelaria. (L.B.-1)

– Bigarrenez, laguntzen duten izenaren ondoren, aposizio eran agertzen diren erlatibozkoak. Adibidez:

...egia bat, iñola ere dudatu eziñ ditekeana. (L.B.-20)

– Hirugarrenez, izenaren ondoren ere, bain erlatibozko izenordainez eta galdetzaileaz sortutako erlatibozko proposizioak edo zeharkako erlatiboak. Adibidez:

...bere erritar bat, zefia dembora aldi batean ibili zan
(L.B.-8)

Lehenengo multzoari buruz, guzti hauek erlatibo murrizgarriak dira, izenlagunaren funtzioa betetzen dute eta perpaus txertatuari -n atzizkia erantsiz eratzen dira.

Bigarren multzoan dauden proposizioen egitura honako hau da: lehenik, IS aurkitzen da eta jarraian, IS hori laguntzen duen erlatibozko proposizio sustantibatua; sinboloak erabiliz, {IS + IS} edo gehiago sakonduz {(Izlg) + IM + (Det), P + erl + Ø + det}. Nabarienez, bi IS horiek determinantea daramate, hortaz ezin daiteke esan “Jaun zerukoa”-ren antzera izenaren ondoren jarririko Izlg-a denik, hobe litzateke aposizioa dela pentsatzea.

Zaila da perpaus hauen artean zein den murrizgarria eta zein ez erabakitzea. Dena dela, kontu handiz esan daiteke bi motatakoak neurri berean topatzen direla. Adibide batzu jartzekotan hona hemen murrizgarriak kontsidera daitezken erlatibo batzu:

...eskuskribu balioso bat, XIII garreneko beste baten era-
koa, kondaira billakindetarako bide berriak agertzen zituena.
(I.A.-3)

...gertatzen da... ez dagoela lumarik, ez pinzelik aren antz-
irudia ondo atera dezaqueenik. (I.A.-7)

...zeukan itzal eta mendetasun bat, ifork ukatzen etziona.
(L.B.-24)

...au izandu zan asmoa bere bizitza guzian leyalki kumplitu
zuen (L.B.-26)

Eta ez-murrizgarriak:

...Umbriak eta Españiak sortuko zituztela bi Orden Erlijioso
berri, Ebanjelioko argia mundu guzira eramateko eginkisuna
artuko zutenak. (L.B.-8)

...munduak eskeintzen zion atseginezko edontzi urreztua,
beste zenbaiti eriotza erakarri ziona. (L.B.-25)

...bizitza mundutar eta iskambillazkoa, Santuak berak peka-
tuzkoa deituko diona. (L.B.-32)

Baña iritsi au da utsegite gorrotagarri bat, dembora artako
kondairatzalleak berak desegiti zutena. (L.B.-33)

Antiak erlatibo era hau erabili izan zezakeen itzulpenaren ez-
murrizgari balioa gordetzarren behar bada (gainera kontutan har ez
duela ekialdean murrizgarriak ez diren erlatiboetako proposizioak
sortzeko bait- aurizkia erabiltzen, agian ezagutu ere ez). Bestalde,
erlatiboetako proposizioa era honetan gehiago nabaritzen da, ulermena
erraztuz.

Hirugarren mota, hizkuntzerromanikoen erara, erlatiboetako izenor-
dainez, izenaren ondoren ezarririko erlatiboetako perpausa da. Erabil-
tzen dituen izenordainak edo galdetzaileak hauek dira: *zeña* eta bere
deribatuak, *zeñak*, *zeñaren*, *zeñek*, *zeñazaz*, *zeintzuetan*; eta lekuzko
non eta denborazko *noiz*. Gainera, proposizio txertatuko aditza -n
atizkiak amaitzen du.

Zein erlatiboetako izenordainari buruz, Antiak beti mugatuan erabil-
tzen ditu, -a mugatzaile singularra erantsiz, eta plurala eta singularra-
rako izenordain ezberdinak erabiltzen ditu, adibidez, nor kasuko
singularrean *zeña* eta pluralean *zeñak*. Baita ere, *zein* honi -*tzu* atizki

kolektiboa gehitzea, Villasanteren hitzetan Bizkaiko joera dena (16) darabil, *zeintzuetan* adibidez. Eta izenordain hauen deribazioei azkenik deklinabide atzizkiak gehitzen ditu.

Esan ere, zein eta bere deribatuak erabiltzeko era hau Villasanteren ustez okerra dela. Hauxe dio berak: "*Este zein se declina según el paradigma de la declinación indefinida. Por tanto, el caso nominativo pasivo es simplemente zein, el ergativo zeinek (no zeinak), el posesivo zeinen, el datibo zeini*" (17). Litzatekeena da Antiak erdarazko "el cual" izenordainaren artikulua eraginez mugatuan ezarri izatea.

Bestalde, Villasantek horrela dio: "*Este procedimiento (zein erabiltzearena) vale únicamente para las adjetivas explicativas, o sea, para las no restrictivas*" (18) eta Goenagak ere: "*Galdetzaileaz baliatuz sortzen ditugun erlatibo berezi hauek erlatibo ez-restriktiboak edo ez-murrizgarriak deitzen ditugu*" (19). Antiak orokorrean arau hau betetzen du, baina badaude bi kasu betetzen ez dituenak. Hauek dira:

Zorionekoak echeak, non amak aĩn ongi ezagutzen duen bere egiñ bidia. (L.B.-18)

Oraĩn kateaz lotua ikusten banazute ere, etorriko da egun bat, noiz ikusiko nazuten mundu guziak onratua. (L.B.-30)

Zuzentzaileak erlatiboko hiru joera hauen aurrean ezberdin jokatzen du.

Lehenengo joeraren aurrean ez du zuzenketarik egiten.

Bigarren joeran aldiz, bai. Kasu hauetan aposizio gisan dagoen erlatibo sustantibatua, mugatzailea kendu ondoren, esplikatzen duen izenaren aurrera eramaten du Izlg funtzioa betearaziz. Murrizgarriak ziren proposizioak berdin jarraitzen dute, hots, ez da zentzua aldatzen. Adibidez, honela gelditzen dira zuzendu ondoren murrizgarrien artean eman diren azken hiru enpluak:

...gertatzen da... aren antz-irudia ondo atera dezaqueen lumarik, ez pinzelik ez dagoela (L.A.-7)

...iñork ukatzen etzion zeukan itzal eta mendetasun bat
(L.B.-24)

...au izandu zan bere bizitza guzian leyalki bete zuen asmoa
(L.B.-26)

Baina ez murrizgarriak zirenak zuzentzaileak murrizgarriak bihurtzen ditu. Ezberdinak dira adibidez,

...Umbriak eta Españiak sortuko zituztela bi Orden Erlijioso berri, Ebanjelioko argia mundu guzira eramateko eginkisuna artuko zutenak

eta

...*Umbriak eta Españiak sortuko zituztela Ebanjelioko argia mundu guzira eramateko eginkisuna artuko zuten bi Orden Erlijioso berri* (L.B.-8)

...bizitza mundutar eta iskambillazkoa, Santuak berak pekatuzko deituko diona

eta

...*Santuak berak pekatuzkoa deituko dion mundutar eta iskanbillazko bizitza*. (L.B.-32)

Kasu batetan ere, proposizio erlatiboa izenaren aurrean jartzera-koan -ko atzizkiko Izlg arruntean bihurtzen du zuzentzaileak; adibidez,

...munduak eskeintzen zion atsegiñezko edontzi urreztua, beste zenbaiti eriotza erakarri ziona —> *beste zenbaiti eriotza erakarritako munduak eskeintzen zion atseginezko edontzi urreztua*. (L.B.-25)

Zuzentzaileak era honetako erlatiboak aldatzerakoan aldaketa semantiko batzu egiten ditu. Hona hemen batzu:

...eskuskribu balioso bat, XIII garreneko beste baten erakoa, kondaira billakindetarako bide berriak agertzen zituena —> ...*eskuskribu eder bat, kondaira billakindetarako bide berriak agertzen zituen XIIIgarreneko beste baten erako*

(I.A.-3)

Adibide honetan, Antiaren testuan bigarren aposizioa “eskuskribu balioso bat”-i buruz ari da, eta “zuzendu” eta gero, aposizioa XIIIgarrenekoa laguntzen du.

...jakindu zuen seme bat jayo zizayola poz aundia eman ziona → *jakindu zuen poz aundia eman zion seme bat jayo zizayola* (L.B.-13)

Antiaren kasuan, *seme bat jayo zizayola jakiteak poz aundia eman ziola* esan nahi du; aldiz, bigarren kasuan poz aundia semeak ematen dio.

Hirugarren joerari buruz, esan zuzentzaileak ez duela erlatibozko izenordainik onartzen eta denak ezabatzen dituela, proposizio erlatiboa era ezberdinetan moldatuz. Zihur aski izenordain hauek kentzeko arrazoiak duten erdal kutsua dela.

Izenordain hauek kendu eta gero, gelditzen den proposizioa gramatikalki egokitzeko hiru bide erabiltzen ditu:

–Lehena, maizena darabilena, erlatibozko izenordainak proposizio txertatua betetzen duen funtzioa eduki dezakeen izenordain pertsonalaz edo adverbioaz aldatzea eta perpaus txertatuko aditzaren -n atzizkia kenduz, perpaus koordinatu eta yustaposizio-koan bihurtzen da. Adibidez: *zeñak onechek*-gatik ordezkatur da, *zeña au*-gatik, *zeñazaz oyezaz*-gatik, *zeintzuetan ayetan*-gatik, *non hemen* edo *an*-gatik, *zeñaren bere* edo *ango*-gatik... Bide honetan, proposizio txertatua zena, orain yustaposiziozkoa edo koordinatua bihurtzen da. Hona hemen adibide batzu:

...kondaira ura, zeñaren izaera → *kondaira ura. Bere izaera...* (I.A.-3)

...erlikario bati bezala, zeñaren edergarriak adierazten dituzten → *erlikario bati bezala, angoo edergarriak adierazten dituzte* (I.A.-5)

...Botsanora, non egun oro meza entzun eta erasaten zuen → *Botsanora, eta hemen egun oro meza entzun eta erasaten zuen* (L.B.-20)

Izenordain horiek ezabatzeko era egokiena hauxe izan daiteke. Zergatik? Hona hemen Goenagak dioena: “*Hizkuntzalariak ados daude erlatibo murrizgarriak, edo restriktiboak, perpaus txertatuak, menpekoak diren bezala, beste hauek (zeharkako erlatiboak), funtsean perpaus koordinatuak direla*” (20). Eta zuzen-

tzaileak hori egiten du, hau da, koordinazioan edo yustapozioan jarri, horrela sakoneko egitura aldatzen ez delarik.

- Bigarrena, izenordaina ezabatzea eta laguntzen duen izenaren aurrean, erlatibo arruntaren gisan, ezartzea da. Honek arazo hau dakar: murrizgarria ez den proposizioak tasun hori irabazten du, zentzu aldaketa sortuz noski. Hona hemen bi adibide:

...marmol miraritsua eta ponteoa, nun dauden otallatuak itz oroitgarri oek → *itz oroitgarri oek otallatuak dauden marmol miraritsu ta ponteoa.* (L.B.-9)

...egun bat, noiz ikusiko nazuten... → *ikusiko nazuten egun bat.* (L.B.-30)

Azken adibidean ez da zentzu aldaketa hain garbi ikusten, lehen esan bezala, adibide hori Antiaren testuan murrizgarri bezala kontsidera daitekeelako.

- Hirugarren bidea, izenordaina ezabatzea eta erlatibozko proposizioa dena, beste proposizio txertatu batean bihurtzea da.

...zorionezkoak echeak, non amak aini ongi ezagutzen duen bere egiñ bidea → *zorionezkoak echeak, amak bere egiñ bidea aini ongi ezagutzen dutenean.* (L.B.-18)

Adibide honetan erlatibozko proposizio txertatua, denborazko proposizio txertatua bihurtzen du zuzentzaileak.

...aditzen da itz egiten duela Santuak oi duten moduan, zeñek negar egiten duten lenagoko utsegiteakgatik ezezik, alperkeria eta epeltasunean egon ziran demboragatik ere → *aditzen da itz egiten duela Santuak oi duten moduan, bada, negar egiten dute langoko utsegiteakgatik ezezik, alperkeri ta epeltasunean egon ziran utsegiteakgatik ere* (L.B.-34)

Adibide honetan proposizio txertatua, proposizio txertatu kausalan bihurtzen da.

7.3. Proposizio kausalak

Antiak proposizio kausalak adierazteko lau era darabil:

–Lehena, *-elako* atzizkia izango litzateke. Adibidez:

...Irugarren Ordenakoak diralako eta kordoya daukatelako
(I.A.-9)

–Bigarrena, *zeren* partikula erabili jarraian aditzari -n atzizkia ezarriz:

...zeren Franzisko zan Aingeruen Erregiñari egindako orazioen bitartez irichitako semea (L.B.-16)

–Hirugarrena, *bada* konjukzioa erabiliz, zein Villasanteren hitzetan: *“Lo mismo que el equivalente castellano “pues”, el “bada” vasco tiene a veces causal y a veces consecutivo”* (21). Adibidez:

...kontu egiozu ongi aur oni, bada irichiko da aundi izatera Jaungoikoaren aurrean. (L.B.-10)

Liburu au eskeintzen diogu konfianzarekiñ Obisko Jaunai, bada seguru gaude S. Franziskoren umiltasunak eta Aita Santuarenganako agertu zuen jayera eta mendetasunak on biderik asko emango diotela. (I.A.-8)

–Laugarrena, *-gatik* atzizkia erabiliz.

...atsekaberik ez emategatik (L.B.-26)

Zuzentzaileak ez du zeren partikula onartzen. Arrazoia Villasantek ematen digu: *“Los gramáticos contemporáneos han visto en este uso un calco alienígena o imitación de lo que se hace en las lenguas románicas, y, por ende, lo han proscrito, juzgándolo incorrecto”* (22).

Badirudi Wadingok etzuela izan onen aditzerik, zeren ez duen aitatzten Bernardo Besseren lan bakar bat baizik → *Badirudi Wadingok etzuela izan onen aditzerik, bada aitatzten ez du Bernardo Besseren lan bakar bat baizik* (I.A.-3)

...zeren Franzisko zan Aingeruen Erregiñari egindako orazioen bitartez irichitako semea —> *Franzisko Aingeruen Erregiñari egindako orazioen bitartez irichitako semea zelako* (L.B.-16)

7.4. Proposizio kontsekutiboak

Proposizio kontsekutiboak espresatzeko Antiak *aiñ... non...* gehienbat, *ainbesteraino... non...* eta *alako moduan non...* alokuzioak erabiltzen ditu, eta ondorioaren aditzari *-n* erlazio atzizkia ezarriz.

Zuzentzaileak ez ditu forma hauek onartzen, zihur aski erdal ereduaren antza dutelako. Horrela bai graduatzailea (ez beti), bai *non* forma ezabatzen ditu, graduatzailea edo intentsiboa daraman perpausaren eta ondorioaren perpausaren artean yustaposiziozko edo koordinaziozko erlazioa emanez. Hona hemen adibide batzu:

...Ain prestu eta noble ikusten dut, non sentierazten dizkidan esperanzarik atsegingarrienak —> *ain zintzo ikusten dut, eta esperanzik atsegingarrienak sentierazten dizkit* (L.B.-20)

...pekatarien artean aiñ umilla, non edozeñek artuko zuen oetako aunditzat —> *pekatarien artean umilla. Edozeñek artuko zuen oetako aunditzat* (L.B.-23)

...bere palaguakkiñ alako moduan gozatu eta eskuratu zuen, non galai aek... —> *...here itz legunez eskuratu zuen eta galai aek...* (L.B.-31)

Kasu batetan aipaturiko formak kentzen dira, baina oraindik *-raño* atzizkiaren bitartez, proposizio txertatu kontsekutibo bezala jarraitzen du.

...alako moduan non, Asisko biztanleak pozgarrizko deadarrakkiñ deitzen zioten Galayen errege —> *Asisko biztanleak pozgarrizko deadarrez Galayen errege deitzeraño* (L.B.-24)

Zuzentzeko beste era, proposizio txertatu kontsekutiboa beste proposizio txertatu batetan bihurtzea da. Adibidez:

Bere klima edo aietorkia da aifn beraa non elurte luzerik eziñ iñoiz izan ditekean —> *Bere aietorkia beraa elurte luzerik inoiz izan ez lezakeena da* (L.B.-1)

Adibide honetan, kontsekutiboa erlatibozko proposizio sustantibatu bihurtzen da.

7.5. Helburuzko proposizioak

Aldaketa bat egiten du zuzentzaileak helburua adierazteko atzizkia aukerazterakoan, *-ko* atzizkia *-ra* atzizkiagatik, hain zuzen.

Gera gaitezen begiratzeko —> *Gera gaitezen begiratzera*
(L.B.-22)

Villasantek horrela dio: "*Con verbo que indica movimiento material o espiritual se aplica el sufijo directivo -ra al nombre verbal*" (23). Baina geratu aditzak mugimendua adierazten al du?

Lehenago ikusi dugunez, zuzentzaileak proposizioen funtzioa aldatzen ditu, arrazoia Antiaren espresatzeko moduaren ez onartzea zela, adibidez, kontsekutibarekin gertatu dena. Baina badago beste funtzio aldaketa bat, arrazoia dirudienez ulermena hobetzea delarik. Hauxe da:

Eztago dudarik gerekiñ gendukala Bernardo Besseren kondaira sonatu ura, zeñaren izaera eta egiatasuna Bolandotarrak ikusierazo duten, aren lembiziko itzak siñalatu dituztelako —> *Eztago zer esanik gerekiñ gendukala Bernargo Besseren izen aundiko kondaira ura. Bere izaera eta egiatasuna Bolandotarrak ikusierazo zuten, bere lenbiziko itzak agertuaz.*

Hau da, helburuzko proposizioa moduzkoa bihurtzen da.

7.6. Proposizio esplikatiboak

Zuzentzaileak adibidea aurkezteko Antiak darabilen "*nola diran*" forma ezabatu egiten du, horren ordez bi puntu jarriaz.

Kondairazko utsegiteen batzuek, nola diran, "S. Franziskoren Ordena... —> *Kondairazko utsegiteen batzuek: "Franziskoren Ordena... (I.A.-3)*

Prenda oezaz gañera bazituen beste batzu..., nola diran, jonio alegere... —> *Gauz oezaz gañera bazituen beste batzu...: izakera alai (L.B.-23)*

8. Perpausaren elementuen ordena

Antiak perpausaren elementuak ordenatzeko orduan, sarritan aditz sintagmako elementuak aditzaren ondoren ezartzen ditu, eta ez bakarririk sintagmak luzeak direnean, motzak direnean ere bai baizik. Aditzaren ondoren predikatuko elementu guztiak edo bestela, predikatua aditzaren aurrean eta atzean banatuaz ezartzen ditu.

Gaur egun arraroa gertatzen den eta askotan erderismoa (24) deitu izan den ordenamendu hau, hiru arrazoiez batik bat adieraz daiteke.

Lehenengoa Villasanteren hitzetan haxe da: "*Ocurre que cuando los complementos son varios o largos, por este solo hecho, se tiende a colocarlos detrás del verbo*" (25). Adibidez:

...seguru gaude S. Franziskoren umilltasunak eta Aita Santuarenganako agertu zuen jayera eta mendetasunak on biderik asko emango diotela (I.A.-8)

...igarotzen zuen jostaketatan echeko lanbideak uzten zioten dembora guzia (L.B.-20)

...poztutzen ziran ikustean aren garaipenak eta ezagun guziak ekartzen zioten errespetu amoriozkoa (L.B.-21)

...darama ezpañetara munduak eskeintzen zion atsegiñezko edontzi urreztua, beste zembaiti eriotza erakarriko ziona (L.B.-25)

Baina hau ez da arrazoi garrantzitsuena, gehienetan aditzaren ondoren jartzen diren konplementuak ez bait dira asko, ez eta luzeak ere. Hona hemen adibide batzu:

Liburu au eskeintzen diegu konfianzarekin Obispo jaunai
(I.A.-8)

...deritzat onduko dala (L.B.-20)

Gurasoak maite zuten Franzisko amorio biguñenarekiñ
(L.B.-21)

...eta Franziskok eta bere lagunak irichi zuten ostera liber-
tadea (L.B.-31)

Bigarren arrazoia, Villasanteren hitzetan hau ere, hauxe da: *"En el estilo narrativo, es decir, cuando se cuentan sucedidos, es frecuente la anteposición del verbo, y ello se explica fácilmente: cuando se narran sucesos, la misma enumeración de los sucesos se concibe generalmente como lo interesante"* (26).

...karzelatu aetako batek zeukan jenio bizia, eta zeraman zor-
rigaitzarekin sumiñdurik, aimbesteraño aserraerazi zien lagun-
nai, non erabaki zuten, berarekiñ geyago ez tratatzea... erre-
gutzen zien arren, barkatu zezayotela, baña ikustean etzuela
ezer aurreratzen, joan zizayon aldamenera (L.B.-31)

Asisko choro ergel batek egiten zion santu gazte oni, dudarik
gabe Jaungoikoak gogargiturik garaipen siñale onrotsu bat,
kondiaretan alakorik irakortzen ez den modukoa (L.B.-28)

Hirugarren arrazoia, Villasanteren hitzetan baita ere, hau izan
daiteke: *"Una de las principales causas o motivos del apartarse del orden normal es el deseo del hablante de hacer resaltar una determinada palabra juzgada por él como de mayor interés en un caso dado"*
(27). Adibidez:

...utzi az aldameneko malletan bere belauen siñaleak
(L.B.-9)

...eta graziara jayotako aur artan ikustean Jaungoikoak autu
bat (L.B.-10)

...Santua bere gazte demboran merkatar izan zala da egia bat
iñolaere dudatu eziñ ditekeana (L.B.-20, oharra)

...galai gazte aek erori ziran barrengo tristura aundi batean
(L.B.-30)

Zuzentzaileak, aldiz, predikatua aditzaren aurrean nahiago du eta
horrela aditzaren aurretik elementu gehienak ezartzen ditu, elementu
ugari daudenean bateren bat ondoren uzten duelarik, edota elemen-

tuak luzeak direnean ere. Baita ere, zuzentzaileak hirugarren mailako subordinatuak bigarrenekoaren aurretik ezartzen du, baina, esan bezala luzeegia dalako agian, bigarren mailakoa ez du aditz nagusiaren aurrean jartzen. Adibidez:

...ikusi nuen gure Aita doatsua zegoela mendi tontor batean, lorategi baten erdian, lirio ederra eskuan zeukala → *gure Aita doatsua ikusi nuen lorategi baten erdian lirio eder bat eskuan zeukala, mendi tontor batean zegoela* (L.B.-33)

...poztutzen ziran ikustean aren garaipenak, eta ezagun guziak ekartzen zioten errespeto amoriozkoa → *poztutzen ziran aren garaipenak, eta ezagun guziak ekartzen zioten errespeto maitasunezkoa ikustean* (L.B.-21)

Bestalde, aditzaren aurrean galdegaia edo elementu garrantzitsua ezartzen saiatzen da.

...gurasoak eman nairik bere bizitza erosoai zegokion moduko aziera on bat → *gurasoak bere bizitza erosoai zegokion antzeko aziera on bat eman nairik* (L.B.-19)

...agertzen zuen zetorrela berez bizkorra, atsegille eta buru azkarrekoa → *agertu zuen berez bizkorra, atsegille ta buru azkarrekoa zetorrela* (L.B.-19)

...deritzat onduko dala → *onduko dala deritzat* (L.B.-20)

Baina oso joera markatua du aditzaren aurrean aditzlaguna ezartze-ko eta batez ere, adberbioa:

...kondairatzalleak ozta ezer esaten digute → *kondairatzalleak ozta esaten digute ezer* (L.B.-15)

...erantzuten zion leyalki → *leyalki erantzuten zion*
(L.B.-17)

...ikasiaz chit erraz latinez eta prantzesez → *latinez eta frantzesez chit erraz ikasiaz* (L.B.-19)

...joan zizayon korrika pobreari → *pobreari lasterka joan zitzayon* (L.B.-26)

...gogorkiro egun batean bera tratatuaz → *egun batean gogorkiro bera tratatuaz* (L.B.30)

Izenlagunaren kokapenari buruz, Antiak izenaren eskubiko aldean, nahiz ezker aldean jartzen ditu. Eskubialdean gertatzen diren gehien-gehienak *-ko* erlazio atzizkiak amaitzen dira, ondoren eskubialdean izateagatik izen sintagmaren determinantea hartzen dutelarik. Bestalde, eskubialdean agertzen diren Izlg gehienak, edo deiturari loturiko lekutasunezko aditzlagunaz osaturiko Izlgak dira (*Bartolome Pisako, Mario Florenziako eta Markos Lisboakorenak ere*) (*Bernardo Besse Akitaniako probinziakoak*), edo instrumentaleko atzizkiak dutenak dira (*Orden erlijiozkoaren, iturri egiazkoetara, beste doai Jainkozko bat*). Izenaren ondoren aurkitzen diren Izlg gehienak, eta aurretik agertzen direnak ere, laguntzen duten izena dagoen IS bakarren barne daude, dena dela, aposizio gisan jarrita daude beste batzuekin, bi IS osatuz. Adibidez:

...asmo eragillea / iñori ez ukatzeko limosnik

...garaipen siniale onrotsu bat, / kondairetan alakorik irakortzen ez den modukoa.

Zuzentzailearen jokabidea eskubialdean dauden Izlgak, bai ISren barnean daudenak, bai aposizio gisan daudenak, ezker aldean kokatzen dira. Hona hemen adibide batzuekin:

...Bartolome Pisako, Mario Florenziako eta Markos Lisboakorenak ere → *Pisako Bartolome, Florenziako Mario eta Lisboako Markosenak ere* (I.A.-6)

...emalle geyegirañokoa → *geyegirañoko emallea*
(L.B.-20)

...asmo eragillea iñori ez ukatzeko limosnik → *iñori limosnik ez ukatzeko asmo eragillea* (L.B.-26)

...bizitza mundutar eta iskambillazkoa → *mundutar eta iskambillazko bizitza* (L.B.-32)

Gertatzen den beste ordena aldaketa garrantzitsu bat, Antiak aposizio eran ezartzen dituen erlatiboetako proposizioak, izenaren aurrera igarotzean datza. Honetaz lehanago ere mintzatu gara. Adibidez:

...egia bat iñola ere dudatu eziñ ditekeana → *iñola ere dudatu eziñ ditekean egi bat* (L.B.-20, oharra)

Beste ordenari buruzko aldaketa batzu pertsonaiak izendatzera-koan gertatzen dira. Adibidez:

Aita San Franzisko Asiskoaren bizitza → *Asisko Franzisko Santuaren bizitza* (Tituloa)

Aita Leopoldo Cherancé → *Leopold Cherancé Aita*
(Subtituloa)

...Luzio IIIgarrena Aita Santu zela → *IIIgarren Luzio Aita Santu zela* (L.B.-3)

9. Lexikoa

Gertatzen diren zuzenketatik ugariak lexikoaren arloan ematen dira. Orokorki, hitza mailegua delako baztertzan du, batzutan ezabatuz eta gehienetan beste hitz batez aldatuz. Adibidez:

prenda oezaz → *gauz oezaz*
enkarguak → *aginduak*
libre → *azkatuak*
prestu → *zintzo*
moduko → *antzeko*
gisako → *antzeko*
testamentua → *azkenaya*
lekutan → *tokitan*
millagroaz → *mirariz*
amorioarekiñ → *naitasunarekiñ*
palakariena → *lilluragarriena*
pausorik-pauso → *oinkadaz oinkada*
ez dira falta → *badira*
benturaz → *agiyan*
dudarik → *zalantzik*
konbeni izan → *on izan*
kanpoak → *lurrak*
señalatua → *izendatua*
istant → *une*
pobrezaren → *beartasunaren*
merezi → *irabazi*

kumplitu → *bete*
korrika → *lasterka*
partetik → *aldetik*
giza nobleren → *aundiren*
pensamentu → *gogorapen*
edadean → *adiñean*
palagu → *gainchuritze*
motiboren bategatik → *zerbaitegatik*
pasatzen → *igarotzen*
sentitzen → *nabaitzen*
konbertitu → *biurtu*
giatu → *zuzendu*
estimazio eta kariñoa → *naitasuna*
jenio → *izakera*
alegere → *alai*
galairi → *gazteri*
erretratoa → *irudi-antza*
alchatu → *jaso*
gonbite → *bazkari*
pestak → *jolasketak*
gustu → *gogo*
billaukeri eta gaiztakeriaz → *gaiztakeriaz*
gozatu eta eskuratu zuen → *eskuratu zuen*
gazte piadoso onen → *gazte onen*
portaera eta ibillera → *ibillera*

Afijoren bat mailegu izatea nahikoa du askotan zuzentzaileak hitza aldatzeko.

desagertu → *ezkutatu*
burutzioa → *gogoa*
desegin → *apurtu edo ezereztu*

Bitxikeria bezala, aipatu zuzentzaileak "dembora" hitza ez duela onartzen. Ikus dezagun orain nola aldatzen duen "dembora" hitza.

demboraren buruan → *urte askoren buruan*
erreboluzioko denboraraiño → *erreboluzioko urteetaraño*
dembora artan → *garay artan*

demborarekiñ —> *garaiz*
dembora guzia —> *beta guzia*
bere gazte demboran —> *bere gaztetan edo gaztearoan*
dembora berean —> *bide batez*
dembora aldi onetan —> *aldi onetan*
gure demborako gaiztakeriaz —> *gure bizitzako gaiztakeriaz*

Ondorioz esan beharra dago, begiratzen ari garen zuzentzailearen erretratua —> *irudi-antza* osatzeko, lexikoari dagokionean ere garbizale aski nabaria dela, nahiz ez neologismo zalea (zuzenketetan ikusten den bezala) ez eta gutzizkoa ere (aldatu gabe utzi dituen hizkuntza erromanikoetatiko hitzen zerrenda begiratuko balitz ikusiko litzatekeen bezala).

Ikusten dugunez, zuzentzaileak erdararen kalko izan daitezken joskerak, ordena, sintaksi osagaiak, zeña, zeren, zein... non..., zer, ezen, nola diran,... formak, atzizkiak, eta maileguak baztertzen ditu gehienbat, beste batzuk jarri horien ordean.

Euskara bere era garbienean ezartzeko joerak, XX. mendeko hasieran indar handia hartu zuen, purismoa edo garbizalekeria deritzan fenomeno sortuz, bertatik bi eskola nagusi sortu zirela: Sabino Arana eta R. M. Azkuerena.

Hortaz, zuzentzailea XX. mendeko hasierako purismo fenomenoaren barnean koka genezake.

IV. Zuzentzailea nor ote?

Laugarren zati honetan, zuzentzailearen izena ematen saiatuko gara, horretarako izenaren hipotesia jaurtiki ondoren, frogatzen lehia-tuz.

Besterik gabe, izena edo hipotesia esango dugu: ustez, Antiarren **Aita San Franzisko Asiskoaren bizitza** itzulpenaren zuzentzailea PATRICIO ANTONIO DE ORCAIZTEGUI izan daiteke.

Hipotesi honen frogaketarekin hasi baino lehen, P.A. Orkazitegi jauna nor zen adieraziko dugu.

1840. urtean Andoainen jaio zen eta 1924.ean Tolosan hil. Bere ikasketak Arantzazun hasi eta Iruña eta Gasteizen jarraitu zituen.

Apeztu egiten da eta zenbait herritatik igaro ondoren, Tolosan finkatzen da artzapez bezala. Ekintza anitz burutu zituen. Editore bezala Lardizabalaren **Testamentu zar eta Berriko kondaira** eta Mendiburu Aitaren **Otoitz gayak** argitaratzen ditu. Autore bezala, prosa, poesia, antzerki lantxoak idazten ditu eta katekesiseko testuak zuzentzen. Arazo linguistikoez idatzi zituen artikuluak **Euskalzale, Ibaizabal, Euskalerrria, Gipuzkoa** eta **Euskal Esnalea** aldizkarian batez ere, daude banaturik. 1906 urtean **Observaciones para hablar y escribir tolerablemente en nuestro idioma euskaro** liburua argitaratzen du Tolosan.

Lehen froga edo gauzak ildo lojikitik eramanak direla adieraz diezaiyukena haxe da: G. de Zumuarregui jaunak artikulu batetan P. Orkaiztegiren bizitzaren lan garrantzitsua azaltzen digu: *"Trabajó de nodadamente por desterrar del idioma giros y locuciones extrañas, y recopiló sus instrucciones sobre este punto en un librito, modelo de concisión y claridad, que publicó bajo el título de Observaciones para hablar y escribir tolerablemente en nuestro idioma (1906). En un folleto fustigó duramente una versión desgraciada del catecismo y escribió él mismo varios, purgados de los errores lingüísticos y hasta doctrinales de que otros, demasiado vulgarizados adolectan"* (28).

Ikusi ahal dugunez, P. Orkaiztegi Purismoaren bidetik joan zitezketenzuzenketetan aritzen; eta beraz, Antiaren itzulpenaren zuzenketak berak burutua izateko posibilitatea bada.

Posibilitateak zabaldu egiten dira, P. Orkaiztegi Tolosako Eusebio López editorearekin, Antiaren eskuzkribua jaso zuen editorearekin hain zuzen, harremanak zituela kontutan hartzen badugu. P. Orkaiztegi Eusebio Lopezen bitartez liburu anitz argitaratu zituen; hona hemen batzu: **Cristabaren icasbide** edo **doctrina aita Gaspar Astete Jesuitak erderaz ipiñi zuanetic Guipuzcoaco eusquerara itzuliya**. Orain arguitara ematen da lengo utšune batzubez ordainduric (1904); **Jesusen amore-nekeei dagozten zenbait otoitz-gai**. **Jesusen Konpañiko A. Sebastián Mendiburuk egiñak** (1904); **Observaciones...** (1906); **Una versión desgraciada** (1914) eta oraindik gehiago (29). Harreman honen iduri garrantzitsua P. Orkaiztegi E. Lopezi idazten dion eskutitza litzateke. Eskutitza osoki erakusten dugu, euskararekiko bere pentsamoldearen adierazgarri delako.

Sr. D. Eusebio López

Tolosa, 12 de Junio de 1901.

Muy Sr. mío: Me pregunta V. si me parecería conveniente la reimpresión en su casa de la obra *Jesusen amore-nekeei dagozten otoitz gayak* del Rev. P. Mendiburu de la Compañía de Jesús; y, sin vacilar un momento, contestaré que prestaría V., en mi concepto, un importante servicio á los bascongados en general, y al Clero de estas provincias en especial, con reproducir esta obra en que se trata y desarrolla admirablemente una materia siempre trascendental sobremanera, oportunísima para los católicos en los tiempos que corremos, y de mucho provecho también por otra parte para el estudio práctico de la lengua euskara en que aparece escrita, por abundar dicha obra en giros castizamente bascos, que no he visto empleados por muchos otros autores, aún los reputados como de primera nota. No es aquí mi intención culpar de ello á estos señores, porque, habiendo hecho sus estudios en castellano, latín, francés, ó lo que fuese, y nunca en bascuence; habiendo adquirido la costumbre de pensar y expresarse en idiomas neo-latinos; y respirando constantemente una atmósfera nada vasca (anti-basca para el caso) debía serles bien difícil sustraerse de la influencia de sintaxis extrañas, similares todas entre sí, y antagónicas, á más no poder, á la composición euskara. Pero el P. Mendiburu hizo esfuerzos sobre-humanos indudablemente por discurrir en bascuence lo que en bascuence se proponía decir, procuró, á mi entender, olvidar cualquier otro idioma que no fuese el de Aitor; y preciso es confesar que logró en gran parte lo que se proponía, puesto que vemos que consigue evitar un vicio de locución, que desgraciadamente ha venido empañando las producciones de casi todos los bascófilos que nos ponen en la triste necesidad de leer palabra vasca embutida en moldes y nexos absolutamente anti-euskaros. Me refiero principalmente al intolerable uso del supuesto pronombre relativo *zeñ-zeñek*, *zeña-zeñak*, *zer-zerk*, *zera-zerak*, *nor-nork-norek* al hacer de otras lenguas á la nuestra versiones serviles del pensamiento que hallaron elaborado con enlaces que el euskara rechaza

en absoluto. La versión en esas condiciones será siempre imposible, por la sencillísima razón (á más de otras) de no existir siquiera en bascuence ese pronombre relativo tal cual lo aceptan y usan multitud de traductores: pronombre que en nuestra lengua no hace falta ninguna, pronombre que estorba, pronombre que divide lastimosamente un pensamiento que, sin él, resulta único, sencillo, perfectamente aglutinado, y por consecuencia mucho menos trabajoso, y más comprensible sin comparación.

Si en la lengua basca no ha de reconstituirse su sintaxis originaria (antes y hoy tan estropeada) sería preferible la desaparición del idioma mismo hasta en sus últimos elementos. Quien de otro modo siente no ha dedicado seguramente mucho tiempo á reflexionar en serio sobre este particular. Y cabalmente sería bastante más asequible la reparación del nexos primitivo de la frase que el rebusque de ciertos vocablos sueltos, y que el estudio analógico, en que poseemos ya valiosos trabajos publicados por escritores modernos, de paciencia inconcebible á fé. Estos, fatigados probablemente de su penosa y larga labor de exámen microscópico, llegaron á quererse ocupar luego en la parte sintáctica, y hubieron de contentarse con dictarnos en compendio algunos preceptos de construcción, cuya importancia no responde, ni con mucho, á lo que hasta allí nos habían enseñado con tanta maestría.

Volviendo de esta mi pequeña digresión á la obra del Rev. Padre, debo añadir que no pretendo declararla exenta en absoluto de defectos de expresión genuinamente basca, puesto que, si *quandoque bonus dormitavit Homerus*, también decae alguna vez el P. Mendiburu, usando construcciones que nada tienen de bascongadas, v. gr.: al formar, según estilo evidentemente neo-latino, las oraciones llamadas causales por los gramáticos. En el tomo 1º pág. 52 (edición 1760 en Pamplona, imprenta de J.A. Castilla) dice: *Orra: gañerako gauza guziak... diraute zeren Jaungoikoak daduzkan bere eskuz*; y bien hubiera podido huir esa frase castellana con decir: *Orra: gañeraño gauza guziak diraute Jaungoikok bere eskuz daduzkalako*. En la misma página, y su aparte final, escribe también: *¿Zergatik ote? Zeren ekusten duten batetik beren ezer-eza, ta asiera*

berria... siéndole fácil este otro giro basco: ¿Zergatik ote? Batetik, beren ezer-eza ta asiera berria ekusten dutelako... El zeren y zergatik, que están muy en su lugar al inquirir y preguntar, resultan inadmisibles en lo asertivo.

Más estos defectillos son perfectamente subsanables por el lector. Los defectos serios, los que no reciben corrección sin cambiar totalmente la cadena del pensamiento extraño, sin destruir la frase viciosa resultante de una versión servil, sin deshacer el tejido extraño volviendo á tejer á lo basco, ocurren principalmente en el empleo de los relativos (supuestos) *zeñaren laguntzarekin, zeñari esan niyon, zeñarekin joan nintzan*, y demás, y demás. Todo depende del funestísimo error de haberse creído en la posibilidad de traducciones literales entre idiomas cuyos nexos en nada se parecen, sino que son completamente antagónicos. Por desgracia es antiguo este error, y alcanza á muchos escritos; y... como cada uno es padre de sus obras, posible es que á todos no agrade se llame error á lo que realmente es tal, y de consecuencias deplorables, por cierto. Los pronombres interrogativos no consienten relativación para un oído bascongado: otra muy distinta, más delicada y de superiores ventajas, es la sutura basca que puede quien quiere estudiar en Mendiburu y en Guerrico. Este último señor, el más parecido al Jesuita oyarzunense en la expresión bajo el punto de vista que nos sirve para el exámen de composiciones bascas, era ciertamente digno de mayor y mejor aprecio que el que nos ha merecido á algunos bascongados. Su colección de pláticas, de nutridísima doctrina en dos gruesos tomos, no se pudo dar á la imprenta en vida del laborioso Beneficiado de Mutiloa, á causa de condiciones irrealizables, onerosas, evidentemente injustas, que se le exigían para autorizar la publicación.. Murió, pues, sin el consuelo de ver editado su trabajo, y cuando alguna vez fué posible publicarlo, se le infirió otra injuria: la de ingerir en su hermoso catecismo un pegote, de construcción á todas luces inconciliable con la que el autor empleó en cuanto había escrito. Aludo á la hojita comprensiva de la explicación de las variantes que la Santa Bula sufriera después de la obra, y antes de su edición. Esa hoja postiza se encuentra allí dando de bofetadas á Guerrico, porque este construye las oraciones

relativas en pleno basco; mientras que el editor no acertó á escribir sus cuatro líneas sin recurrir al *zeña zeñaren*. ¡Cuánto mejor hubiera sido respetar la castiza frase del difunto, sin manchar aquella ni ofender á este, y publicar en folio aparte cuanto fuese necesario!

Y... ¿habrá por ventura quienes aleguen, haciendo ascos de la lectura de Guerrico y Mendiburu, que el primero escribe en el dialecto goyerriano y el segundo en el de Nabarra; y que, por consiguiente, no son sus obras inteligibles para los bascos de ciertas otras regiones? Serán, tienen que ser poquísimos, los que opongán este reparo, porque, si de ese modo llegamos á discurrir, podemos de hecho vivir en Basconia, habremos nacido en Basconia, de padres y abuelos bascos, descendemos quizás por línea directa del primero que habló bascuence aquí y en otra parte; pero, ciñéndonos á tan estrecho pensar y obrar, escasos serán de fijo nuestros progresos en el idioma basco, y bien poco será lo que el bascuence haya de agradecer nos hoy ni mañana. Las diferencias accidentales de dialecto á dialecto nunca debieran ser obstáculo serio para el que se siente con algún cariño á la lengua que aprendió de su madre.

Tenga V. la bondad de incluirme en la lista de suscritores á la obra basca cuya reproducción he de ver con gusto preferente; y hago votos por que reuna V. pronto suficiente número de ellos, para poder emprender enseguida, sin temores de un resultado ruinoso, la nueva edición.

No puedo terminar sin advertir á V. que al final de esta podría añadirse una tabla ó nota que indicase las materias que los predicadores podrían elegir para sus pláticas festivas de entre año, pues que á esto, y aun á algo más, se presta en mi concepto la obra del Reverendo jesuita.

De V. at.º S.S. y capellán que le desea buen éxito en su laudable pensamiento,

PATRICIO ANTONIO DE ORCAIZTEGUI. (30)

Bigarren froga multzo bezala, froga gramatikalak edo linguistikoak emango dira. Aipatu bezala, P. Orkaiztegik 1906. urtean **Observaciones para hablar y escribir tolerablemente en nuestro idioma euskaro** liburua argitaratzen du. Liburu honetan, izenburuak dioen bezala, euskaraz ongi mintzatzeko eta idazteko erregelak, bai linguistikoak, bai euskalzaleek jarrai behar lituzketen jokatibideekikoak, azaltzen ditu, 48 hain zuzen. Frogaketa aurrera eramateko, lan honen bigarren zatian egin den azterketa linguistikoarekin liburu hau gonparatuz, zuzentzaileak egiten dituen zuzenketak eta P. Orkaiztegik proposatzen dituen erregelak guztian bat datozela ikusi ahal izango dugu.

III apartatuaren hasieran jarri dugun azterketaren klasifikazioa jarraituko dugu, ordena errespetatuz.

Ortografiari buruz, Antiaren testu gainean ematen diren hiru aldaketa P. Orkaiztegik bere liburuaren 33, 36 eta 39. erregelekin bat datoz. Hona hemen 33. erregelak diona: "*Cuando una palabra provenga de otra, que tuviese consonante doble en su origen, conviene no formar empeño en que la derivada siga con aquellas dos consonantes, si de suprimir una de estas no se falta á la claridad -Otza, latza, gatzatienen dos consonantes en sus segundas sílabas, ó en sus únicas otz, latz, gatz, y sin embargo se dirá mejor oztuba, laztuba, lakastuba, gatzituba, que otztuba, latztuba, gatzituba*" (31). Erregela hau zuzentzaileak betetzen du, 36. erregela: "*Evítase la confusión de la z con la s*" (32) betetzen duen bezala, ortografiari buruzko -k- apartadoan nabari daitekeenez. 39. erregelak -l- apartaduan agertzen diren "eta" juntagailuaren aldaketataz mintzatzen du, esanez: "*La conjunción copulativa eta debiera usarse en mi concepto bajo las cuatro formas eta, ta, et, t; y realmente se emplean en el hablado dichas cuatro formas, aunque nunca he visto la et en impresos, y rara vez la t sola (...) azpitik eta gañetik; garbi ta chukun; azkar et'arñi; ogui-t-ardo.*" (33).

Zuzentzaileak azken -a berezkoak kendu egiten ditu. P. Orkaiztegik ere horrela jokutzen du: "*cualquier palabra de carácter limitador hace que el nombre á que acompaña deba ir sin otro limitativo, v. gr.: gauz asko, diru guchi (y de ningún modo gauza asko, diruba guchi) (...) Hay excepciones de esta regla pero no excepciones gramaticales sino debidas únicamente á la fonetica, en que el baskuence es muy exigente: por regla debería decirse bab gordiña, gatz biguña, etc., y decimos por excepción eufónica baba gordiña, gatz biguña. (...)*"

“Síguese de aquí que la a en tales casos no es orgánica sino una letra de ligadura” (34). Eta aztarnik esateko a hori behar ez omen delako ezabatu egiten da.

Atzizkiei buruzko III.2. zatian azaldu dugunez, *des-* aurritzkiaren orde, gabezia adierazteko *-ge* atzizkia zehazki esplikatua ikusten dugu parrafo honetan: *“Hay que desterrar por completo el prefijo erdérico des, sin usarlo nunca en palabras bascas. (... Opino que el prefijo des habría de sustituirse con una sufijación traductora de ese mismo des. Mas ¿dónde hallar el equivalente? (...) Se oye a los aldeanos decir: sagar ori chertatu gabea o chertaka da. En Bizkaya dicen y escriben: deungea, dongea. ¿No se podría uno, atendiendo á estas y otras palabras semejantes, poner en camino de buscar la sustitución del des? Estas locuciones me hacen pensar que el erderico des puede perfectamente suplirse con la sufijación ka, ke, ge segun las reglas fonéticas requieran en cada clase. Podríamos decir argigetu, argigea; por privar de luz, privado de luz; berdingetu, berdingea por desigualar, desigualado.”* (35)

Zuzentzaileak kasu sozietibo eta instrumentalaren arteko nahasketak zuzendu egiten zituen. P. Orkaiztegik, deklinabideko bi kasu hauekin izan beharreko jokaera azaltzen digu esanez: *“Cuando quepa sustituir el caso unitivo, por el caso instrumental o mediativo es bueno hacerlo así. Suena mejor sin género de duda: urez garbituta que urarequin garbituta.”* (36)

Aditza aztertzerakoan aditz perifrastikoa forma trinkora igarotzen dueneko kasua ikusi dugu III.5. atalean. P. Orkaiztegi jokaera honekin ados agertzen zaigu: *“se esfuerza uno a crear costumbre de ir conjugando aquellos verbos en su forma arcaica (aditz trinkoak), sin recurrir en lo posible á la perfrasis”* (37).

III.6.1. atalean zuzentzaileak baiezko edo ezezko erantzuna eskatzen duten galderetan *al* partikula ezartzen zuen. Honetan ere bat dator P. Orkaiztegi: *“Muchas preguntas, que requieren contestación terminante, resultan elegantes y graciosas con la partícula al. (...) Cuando la pregunta contenga otra partícula inquisitiva como non, zeñ, nor, noiz, etc., no cabe el uso de al, que ha de ser sustituido en tales casos por ote”* (38).

III.7.2. atalean erlatiboetako proposizioetan ematen ziren aldaketak ikustean zuzentzaileak *zeña*, *non* galdetzaileak zehar erlatiboak osatzeko ez zituela onartzen nabaria iruditzen zitzaigun. P. Orkaiztegik ere,

Purismoko joera horretan gidaturik erlatibo hauek salatuz artikulu asko idatzi zituen (39); lehenago eman dugun eskutitzean agerian dago hau. Bere "obserbazio"tan honi buruz ere mintzatzen da: "*Las oraciones llamadas de relativo son inadmisibles en baskuenze con zeñ, zeña, zeñak; nun, non, zeñtan; zeñetan, zeñsubek, nortsu, nortsubek, nuntsu, zer, zerk, zertsu, zertsuk, zertsubek, y otras partículas ejusdem furfuris. Este pronombre relativo, imitación servil del relativo de los idiomas neolatinos, especialmente del español, es el mayor borrón que nuestros abuelos pudieran aceptar en el euskara. (...) El zeñ, nor, etc., están perferamente para inquirir, para preguntar; pero es preciso ponerse antes sordo, y totalmente sordo, sordo como una tapia, para tolerar se use en presencia nuestra como relativos.*" (40).

Eta III.7.3. ataleko proposizio kausaletako zeren partikularekin antzekoa gertatzen da. P. Orkaiztegi dio: "*Las causales asertivas de la contestación se harían pésimamente con dicho zergatik. Si el interlocutor respondiese: zergatik amak zazpiyak arte esnaratu ez naun cometería un crimen antieuskérico: primero, porque es imposible despojar al zergatik de su caracter esencialmente interrogativo; segundo, porque la -n final de naun es de suyo dubitativo, continuativa, suspensiva. Por consiguiente el concepto no se termina, no puede cerrarse con el naun, y es preciso responder así: amak zazpiyak arte esnaratu ez naulako. (...) El zeren que muchos sustituyen al zergatik es aún más desatinado*" (41).

Proposizio kontsekitibotaz, hona hemen III.7.4. atalean azaldu-riko aldaketen arrazoa izan daitekeena: "*Son intolerables las oraciones ponderativas en la forma que vienen teniendo en escrotos vascos. Solo nuestro poco amor á la lengua natal, y la consiguiente irreflexión y falta de exámen, han podido consentir se diga Ainbeste amatu zuan munduba Jaungoikoak non eman zion bere Seme bakarra; Añ aundiya zan gurdi ura non atetik ezin sartu izan genduan; añ bero zakarra egiten zuan ze guziyok arboladi batean pozik gelditu giñan. Pero ¡señor! qué significan, á que se refieren, qué oficios desempeña ahí ese non ese ze, un noiz y otros adornos por el estilo?*" (42). Gainera, kontsekitiba azaltzeko testu zuzenduaren espresiotan jartzen den *-raño* atzikiaren ere aurkitzen dugu adibide bat: "*Ainbeste amatu zuan Jaungoikoak munduba non...! en vez de Bere seme bakarra emateraño ainbat maite izan zuen munduba Jainkoak*" (43).

III.8. atalean perpausaren elementuen ordena aztertzerakoan ondorio nagusia predikatua aditzaren aurretik ezartzearena zen. P. Orkaiztegik berdin dio: "*Terminense los conceptos con el verbo catal del pensamiento, ó sea, con el verbo que entraña significación más imperiosa, decisiva, concluyente. Digase por consiguiente: badatorrela diyote, ekarriko dutela diyote en lugar de diyote badatorrela, diyote ekarriko dutela.*" (44).

Beste joera garrantzitsua zuzentzaileak adberbioa edo edozein aditzlagun aditzaren aurretik jartzeko zuena zen. P. Orkaiztegi honetan ere bat dator zuzentzailearekin. "*El lugar propio del adverbio basco en las oraciones afirmativas es el inmediato antes del verbo.*" (45) eta "*El destinativo, locativo, unitivo, causativo, privativo, mediativo ó instrumental, y ablativo se han de colocar antes de su verbo regente*" (46).

Izenlagunaren ordenari buruz, zuzentzaileak eta P. Orkaiztegik koinziditu egiten dute. P. Orkaiztegik dio: "*Los posesivos y sus análogos, así como también las palabras que llevan ko, zko, go y cuanto, vertido al castellano se diría con de se antepone: arrizko echea, nere semea, goiko giltza, ango sagarra, gure soroa, Beasaingo alka-tea; y no eche arrizkoa, seme nere, etc.*" (47).

Eta berdin gertatzen da pertsonaien izendatzearekin. P. Orkaiztegik dio: "*Los cualitativos se deben posponer al nombre que califica: su andiya, eguzki beroa, mutill egokiya. Por esto no es correto (ni mucho menos) decir en nuestro idioma: San Anselmo, Jaun Alkatea, Jaun apaiza, On Policarpo, sino Anselmo santuba, Alkate jauna, Apaiz jauna, Policarpo ona (mejor jauna) (...) De dos nombres que vengan juntos se ha de anteponer el más limitador, v. gr.: Mendiburu Aita, y no Aita Mendiburu. (...) Los numerales ordinales tienen también que preceder a los sustantivos cuyo orden designan y se dirá: irugarren eguna, laugarren naigabea, seigaren alaba, amargarren Pio, y no á la inversa*" (48).

Lexikoari buruz, ez dago gauza handirik gonbaratzeko. Dagoen bakarra, zuzentzaileak aldaketa hau egiten duela: "Bezala —> Letz" (L.B.-15) eta honi buruz P. Orkaiztegik hau diola da: "*Creo que haríamos buen servicio al mejoramiento de la locución eúskara, usando el letz de la alta Guipúzcoa y de Vizcaya en lugar del bezela de la parte baja de nuestra provincia. El letz, variante agradable de la e sin duda más antiguo y mejor que el moderno bezela*" (49).

Gonbaraketa honen bidez, zuzentzailea eta P. Orkaiztegiren artean euskara tratatzerakoan berdintasun asko daudela ikusi dugu. Berdintasun batzu arruntki ematen diranak izan daitezke, txistukarien ortografiari dagozkionak adibidez, baina frogaketan ziurtasunaren seinale diren berdintasun berezi batzu, *-ge* atzizkiaren erabilera esate baterako, badaude bestalde.

Ondorioz, zuzentzailea eta P. Orkaiztegi, bi pertsonai hauek batu litezkeela, hots, pertsona bera direla pentsa daiteke.

OHARRAK

- (1) Luis Villasante. *Historia de la Literatura Vasca*. 226. parrafoa.
- (2) J. Zabaleta. *Euskal Itzulpenaren Antologia-1*. 132. orr.
- (3) EGAN 1956. 55. orr.
- (4) *Ibidem*.
- (5) J. Zabaleta. *Euskal Itzulpenaren Antologia-1*. 211. orr.
- (6) SENEZ aldizkari 3. aleko 53. orr.
- (7) Nomenklatura: I.A. Itz-Aurrea, L.B. Lenbiziko Bereziaria eta zenbakia paragrafoa esan nahi dute. Paragrafo bakoitza punto eta aldez banatua dago.
- (8) Oharra: Geziaren ezker aldean doana Antiaren itzulpenekoa da eta esku bialdean doana zuzenduriko testukoa. Ohar honek III. atal osorako balio du.
- (9) Ikus L. Mugika. *Origen y Desarrollo de la Sufijación Euskérica*. 31. orr.
- (10) R.M. Azkue. *Morfología Vasca*. 155. orr.
- (11) R.M. Azkue. *Morfología Vasca*. 320. orr.
- (12) R.M. Azkue. *Morfología Vasca*. 320. orr.
- (13) *Ibidem*. 325. orr.
- (14) P. Lafitte. *Grammaire Basque*. 758.
- (15) L. Villasante. *Sintaxis de la oración compuesta*. 52. orr.
- (16) L. Villasante. *Sintaxis de la oración compuesta*. 89. orr.
- (17) *Ibidem*. 92. orr.
- (18) *Ibidem*. 87. orr.
- (19) P. Goenaga. *Gramatika Bideetan*. 294. orr.
- (20) P. Goenaga. *Gramatika Bideetan*. 295. orr.
- (21) L. Villasante. *Sintaxis de la oración compuesta*. 165. orr.
- (22) *Ibidem*. 144. orr.
- (23) L. Villasante. *Sintaxis de la oración compuesta*. 139. orr.
- (24) Ikus S. Altube. *Erderismos*.
- (25) L. Villasante. *Sintaxis de la oración simple*. 239. orr.

- (26) Ibidem. 240. orr.
- (27) L. Villasante. *Sintaxis de la oración simple*. 237. orr.
- (28) G. de Zumuarregui. *Don Patricio de Orcaiztegui. Su fallecimiento*. Euskal Esnalea, XIV, 1924, 230-233 orr.
- (29) Ikus J. Arana. *Don Patricio de Orcaiztegui y el idioma vasco* artikulua. Euskal Esnalea, 154-157. orr.
- (30) *Interesante carta (al) Sr. D. Eusebio Lopez (sobre la reimpresión de Mendiburu, Jesusen amore...)*. Euskal Herria, 1961, XLV, 477-480. orr.
- (31) P. A. Orkaiztegi. *Observaciones para hablar y escribir tolerablemente en nuestro idioma euskaro*. 45-46. orr.
- (32) Ibidem. 49. orr.
- (33) Ibidem. 50. orr.
- (34) Ibidem. 84. orr.
- (35) Ibidem. 28-29 orr.
- (36) Ibidem. 41. orr.
- (37) Ibidem. 10. orr.
- (38) Ibidem. 55. orr.
- (39) *El relativo en el euskera*. Euskal Esnalea, 1908, I, 9-10, 20-22, 36-38, 51-53, 88-90, 123-125. orr.
- (40) P. Orkaiztegi. *Observaciones para hablar...* 15-20. orr.
- (41) Ibidem. 23. orr.
- (42) Ibidem. 24. orr.
- (43) Ibidem. 26. orr.
- (44) Ibidem. 41. orr.
- (45) Ibidem. 37. orr.
- (46) Ibidem. 39. orr.
- (47) Ibidem. 36. orr.
- (48) Ibidem. 35-37. orr.
- (49) Ibidem. 52. orr.

BIBLIOGRAFIA

- Sebero ALTUBE. *Enderismos*, Bermeo, 1929. Bigarren argitaraldia, Bilbao, 1975.
- J. ARANA. "*Don Patricio de Orcaiztegui y el idioma vasco*", Euskal Esnalea, 1926, XVI, 154-157, 174-177.
- Resurrección M^a de AZKUE. *Diccionario vasco-español-francés*, 2. argitaraldia, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1969.
- Resurrección M^a de AZKUE. *Morfología Vasca*, 2. argitaraldia, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1969.
- ENCICLOPEDIA GENERAL ILUSTRADA DEL PAIS VASCO. Literatura I eta II tomoak, Hiztegia.

- Carmelo ECHEGARAY. "Antia". *Euskalzale*, 1899, III, 65. orr.
- Carmelo ECHEGARAY. "Manuel Antonio de Antia". *Euskal Herria*, 1894, XXX, 113-115. orr.
- Patxi GOENAGA. *Gramatika bideetan*, 2. argitarapena, 1980, Zarautz.
- IÑARRA. "Ill-arri batian" (M.A. Antiaren omenezko olerkia), *Euskal Herria*, 1894, XXX, 116. orr.
- Pierre LAFITTE. *Grammaire Basque*. Elkar, 1978.
- Xabier MENDIGUREN. "Itzulpen kritikaz", *SENEZ*, 2, 1985.
- Patricio Antonio de ORCAIZTEGUI. *Observaciones para hablar, y escribir tolerablemente en nuestro idioma euskaro*, Tolosa, 1906.
- Patricio Antonio de ORCAIZTEGUI. *Interesante carta al Sr. D. Eusebio Lopez*, *Euskal Herria*, 1961, XLV, 477-480. orr.
- Patricio Antonio de ORCAIZTEGUI. *El relativo en el euskera*. *Euskal Esnalea*, 1908, I, 9-10, 20-22, 36-38, 51-53, 88-90, 123-125.
- Patricio Antonio de ORCAIZTEGUI. *Por el euskera*. *Euskal Esnalea*, 1909, II, 20-25, 33-36. orr.
- Fr. Luis VILLASANTE. *Sintaxis de la oración simple*. Editorial Franciscana Aránzazu, Oñate, 1980.
- Fr. Luis VILLASANTE. *Sintaxis de la oración compuesta*. Editorial Franciscana Aránzazu, Oñate, 1976.
- Fr. Luis VILLASANTE. *Estudios de sintaxis vasca*. Editorial Franciscana Aránzazu, Oñate, 1978.
- Fr. Luis VILLASANTE. *Historia de la Literatura Vasca*. Editorial Aránzazu, 1979.
- J.M. ZABALETA. "Informazio irabazi eta galera testu juridiko baten itzulpenean. Usurbilgo erriyaren ordenantzak (1888)", *SENEZ*, 3, 1985.
- J.M. ZABALETA. *Euskal Itzulpenaren Antologia-I*. Itzultzaile Eskola, 1984.
- G. ZUMUARREGUI. "Don Patricio de Orcaiztegui". *Euskal Esnalea*, 1924, XIV, 230-233.

SINTESIS

El año 1.983 fue hallado en el archivo del Ayuntamiento de Tolosa (Guipúzcoa) el texto manuscrito de la traducción al euskara de la *Vie de St. François d'Assis* (de Fray Leopoldo de Cherancé) llevada a cabo por M. Antonio Antia, traductor asimismo de otras varias obras de piedad y uno de los principales promotores del renacimiento literario en euskara de finales del s. XIX.

Este hecho no sería por sí más relevante, si no fuera porque dicho manuscrito fue corregido (empezado a corregir; sólo se corrigieron la Introducción y el I Capítulo) a comienzos de este siglo, en vistas a su publicación. Dichas correcciones constituyen, en efecto, una de los más precisos testimonios de los debates sobre el modelo de lenguaje literario que en esa época se dan entre las diversas escuelas literarias y lingüísticas: tradicionalistas, puristas neologistas, puristas, etc., dando lugar a una ruptura con la tradición literaria en euskara, cuyas consecuencias todavía hoy día se dejan sentir.

J. M. Garmendia expone en un primer apartado la vida del traductor. M. A. Antia; analiza seguidamente la traducción, según un modelo comparativo desarrollado en un número anterior de esta misma revista por J. M. Zabaleta, tanto en lo que respecta a la transmisión precisa del mensaje (ampliaciones o restricciones) del texto original, como en lo referente a los cambios estilísticos que en la traducción se han operado, y su significado, sobre todo en cuanto pueda indicar sobre la postura comunicativa y las interferencias ideológicas en el traductor.

A continuación, en lo que constituye el capítulo más importante de este artículo, lleva a cabo una comparación casi exhaustiva de todas las correcciones que se han efectuado en el texto original. Establece una tipología de tales correcciones en los distintos niveles ortográfico, lexical, sintáctico y estilístico. Desde esta tipología es posible trazar el retrato del corrector: moderadamente purista en lo referente al léxico, extramadamente restrictivo en todo lo referente a la sintaxis y al estilo, sobre todo en todos los puntos que precisamente desde la crisis de ruptura con la tradición escrita que tuvo lugar en la época de esta traducción hasta prácticamente nuestros días han sido los más debatidos en la gramática tradicional vasca (sobre todo en ciertos tipos de proposiciones subordinadas: proposiciones relativas, causales, consecutivas, completivas...). El corrector aparece, sobre todo en los puntos referentes a la sintaxis, como uno de los antecesores de lo que posteriormente se ha dado en llamar la tendencia de S. Altube.

En el último capítulo de este artículo, J. M. Garmendia propone la hipótesis de que el corrector del texto traducido pudiera ser P. Orcaiztegui, coetáneo del traductor, corrector de varios otros libros para la misma casa editorial a la que acabó perteneciendo el manuscrito comentado y autor de un librito "Observaciones para hablar y escribir tolerablemente en nuestro idioma euskaro" y otros varios artículos, en los que se vierte una teoría gramatical que coincide punto por punto con las correcciones observadas en el manuscrito, tal como pone de manifiesto J. M. Garmendia.

SYNTHESIS

In the year 1983, in the archives of the Town Hall in Tolosa, a manuscript was found of the Basque translation of "La Vie de St. François d'Assis"

(by Fray Leopoldo de Cherancé). The translation was done by M. Antonio Antia, who also translated various other religious pieces of work and who was one of the main promoters of the literary renaissance in Basque in the late XIXth century.

This fact in itself would not be so important, were it not that the manuscript was corrected (only the introduction and first chapter were actually corrected) at the start of this century, with a view to its publication.

These corrections, in fact, constitute one of the most precise testimonies on the discussions on the type of literary language which at that time was used in the various different literary and linguistic schools: traditionalist, neologicist purist, etc. which brought about a break with the literary tradition in Basque, the consequences of which can still be felt nowadays.

J.M. Garmendia in the first section tells of the life of the translator, M.A. Antia. Then he goes on to analyze the translation, according to a comparative model looked into one of the previous editions of this journal by J.M. Zabaleta, with respect to the exact transmission of the message (lengthening or shortening) of the original text, as well as stylistic changes used in the translation, and their meaning –taking special note of what changes may be seen in what is actually communicated and any ideological interference made by the translator.

Following this, comes perhaps the most important chapter in this piece of work where an almost exhaustive comparison is made of all the corrections that have been made and the original text. A typology is set out of these corrections according to whether they are orthographical, lexical, syntactical or stylistic.

From this typology, it is possible to make up a picture of the translator. Fairly purist in lexical terms, extremely restrictive when dealing with syntax and style – especially on the points which have been so debated in traditional Basque grammar (above all to do with certain types of subordinate clauses: relative clauses, causal clauses, consecutive clauses, object clauses...) since the break with the written tradition which took place at the time this translation was made, up until the present time. The corrector, when dealing with syntax, seems like one of the antecedents of what has previously been called the S. Altube tendency.

In the last chapter of this article, J.M. Garmendia brings forward the hypothesis that the corrector of the translated text could be P. Orcaiztegui, a contemporary of the translator, and corrector of various other books for the same editorial to which the commented manuscript came to belong to, and author of a booklet called "Tips on speaking and writing tolerably our Basque language" along with other articles where a grammatical theory is laid out, which coincides point for point, with the corrections made in the manuscript, as J.M. Garmendia points out.

Itzultzaileen eta itzulpenen babes juridikoaz

Pello M. Zabaleta

1976ko Urriaren 26tik eta Azaroaren 30era arte UNESCOk biltzar nagusi bat egin zuen Nairobin. Eta biltzar horretan itzultzaileen eta itzulpenen babes juridikoaz eta itzultzaileen egoera hobetzeko egin beharrez ihardun zuten, 16 puntu dituen agiri bat argitara emanez.

Ez dira legeak UNESCOk ematen dituenak, bai ordea gomendioak, eta azpimarratzekoa da gomendiook gutxieneko bat besterik ez direla, agiriko 16. puntuan bertan adierazten den bezala. Gomendioa, noski, UNESCO baitan dauden herrialde guztiei zuzentzen zaie, eta ohi bezala batzuk arretaz hartuko dituzte, beste asko ordea ez dira enteratu ere egin.

Laburpen gisara, beraz, esan daiteke, hasiera batetan Gomendio horrek itzultzaileen zeregina ezinbesteko bezala aitortzen duela batez ere zabalero gutxiko hizkuntzei dagokienez. Eta areago, aitortzen du agiriak Itzultzaileak babestea ezinbestekoa dela itzulpenek ere duintasun jakin bat izan dezaten, kulturaren eta aurrerapenaren zerbitzari zeregina egiaz ongi bete dadin.

1. Zer den itzultzailea, zer den itzulpena.

Finkatu beharreko bi kontzeptu hauek garbi azaltzen dira agiriaren lehen puntuan.

ITZULPENA DA: obra literario edo zientifiko bat, areago obra tekniko bat ere, hizkuntza batetik bestera aldatzea, liburu bezala, edo aldizkaritan, egunkaritan edo beste edozein modutan argitaratzeko egina, edo bestela antzerkian antzestua, edo zineman, irradian edo telebistan erabiltzeko egina.

Beraz, komunikabide edozein batetan erabiltzeko egiten den testu-aldaketa oro sartzen da alor honetan, eta hori, hizkuntza batetik beste batera egite hutsarekin.

ITZULTZAILEAK DIRA: obra literario, zientifiko edo teknikoak hizkuntza batetik beste batera aldatzen dituztenak.

Eta azkenik: **ERABILTZAILERAK DIRA:** itzulpena eskatzen duten pertsona fisiko nahiz moralak.

2. Itzultzaileen egoera juridiko orokorra

Agiri honetara heltzeko eztabaida luzeak izan ziren, eta horietan batetik garbi azaltzen zen idazle edo kreatoraileen eskubideak zaindu beharra. Baina une berean, baita ere itzultzaileen egoera ez zela alde guztietan bera.

Horregatik, itzultzaileei daokienez, agiri honek eskatzen die bazkide diren lurralde guztiei idazlearen parean jar dezaten itzultzaileen egoera, noski idazlearen eskubideei ezer kentzeke. Horregatik eskatzen du:

- a) Komenigarriadelaitzultzailearen eta erabiltzailearen artean kontratu bat egitea. Eta gainera, ahalik, kontratu mota bat finkatu dadila itzulpenen mundua arautzeko.
Horregatik, itzultzaileari zor zaio dagokion lansaria, itzultzaile hori inoren kontura lanean ari bada, edo berekasa ari bada.
- b) Itzultzaileari zor zaio salmentaren arabeko lansari bat, edota itzulpenaren erabilerari dagokiona. Eta gainera, dirua aurreratu egingo zaio itzultzaileari bere lana egin dezan.
Eta bestalde, lansaria eskasa den lekuetan, gehi bat ordaindu beharko litzaioke itzultzaileari. Eta gainera: Uste baino lan zailagoa gertatzen denerako, sari berezi bat eman beharko omen litzaioke (oh, zein merkea den itzaropena!).

- c) Itzultzaileak eskubideak berak eskuratu ez baditu, erabiltzaileak eskuratu beharko lituzke.
- d) Jakingarria dena: Itzultzailearen testua ezin alda daiteke, beronen baimenik gabe, idazlearena alda ezin daitekeen bezala.

3. Publizitateaz

Puntu honek izan lezake gure artean garrantziarik, eta horregatik azpimarratzen dut nire aldetik ere, nahiz Nairobikoan beste zenbaiten artean datorren.

Itzultzaileari eta itzulpenari autoreari ematen zaion publizitatearen proportzaioan egin behar zaio publizitatea. Eta horrela, liburuetan, itzultzailearen izena nabarmen eman behar da. Baina gisa berean, antzerki karteletan, irratieta eta telebistan, edo filmeen fitxa teknikoan...

Beraz, une batez hasi pentsatzen zein jokabide daramaten inguruan ditugun telebista eta irratiak... Frantziakoak bakarrik jartzen du zein den itzulpena egin eta moldatu duen taldea... Hemengoetan ez dator datorik batere...

Eta gisa berean, adibidez, itzulpenari dagozkion eskubideak ere alde guztietan jarri beharko lirakeke... Baina...

4. Itzulpenaren kalitateaz

Itzulpenaren balioaz izan liteke eztabaidarik. Eta horretarako herrialdeetako legedian halako figurarik ez balego ere, komeniko omen litzateke -dio agiriak-, eztabaida hauek argitzeko edo konpontzeko erakunderen bat, azkar lanegingo lukeena eta kostu gutxikoa.

Gisa berean, arrazoizko epe bat eman behar zaio itzultzaileari bere lana burutu dezan, eta ahalik baliabide guztiak eskainiko, informazio aldetik edo bestela, jatorrizko testua ulertu eta itzulpena erredakta dezan.

Ahalik, itzulpenak jatorrizko hizkuntzatik egingo dira, eta bigarren hizkuntza batetik, ezinbestekoa denean bakarrik.

Eta azken ohar bat, azpimarratzekoa gure artean ere: itzultzaileak bere ama-hizkuntzara edo bere ama-hizkuntza bezain ongi menderatzen duen hizkuntza batera itzuliko du...

5. Erakunde publikoentzat

Itzultzaileen beren erakundeak sortzeko eskubide osoa izango dute, eta baita ere erakunde publikoak joera hori bultzatuko dute.

Baina Erakunde publikoen laguntzaz, itzultzaileen elkarrekin zer egin beharko luketen ere finkatzen du agiri honek.

Alde batetik, itzulpenaren kalitatea bultzatuko dute. Gero, itzultzaileen lan-sariak ikertu, eta erabiltzaileekin horretaz eztabaidatu. Beraz, itzultzaileei beharko lituzketen aholku guztiak eman, soldata duin bat eskura dezaten.

Gisa berean, beste itzultzaile elkarrekin harremanak bideratu eta sendotu.

Eta, itzultzailea autoreen parera jartzen bultzatu, eta areago itzultzaileen formaziorako programa bereziak antolatu.

Bada, ordea, gauza bat itzultzaile askorentzat interesgarria, eta Erakunde publikoei, batzuri behintzat, dagokiena: Itzultzaileek idazleek dituzten babes sozial berberak izan beharko lituzkete, segurantza sozialaren edo etxe-laguntzen aldetik, eta gisa berean, autoreek duten sistema fiskal bera izan beharko lukete.

Eta azkenik, eta gaurregun agian itzultzaile asko kezkatzen duen arazo bat: Kontratupean edo inorentzat lanean ari diren itzultzaileen beren maila profesionaleko pertsonen kobratzen duten soldata bera kobratu beharko lukete. Galdera da, zein den beren mailari dagokion maila profesional hori. Alegia, askok hartzen duten bezala: Tekniko soil bezala? Laguntzaile bezala? Hala, egiaz, itzultzaile elkarrekin errei-bindikatu beharko luke gure artean itzultzailearen kategoria eta beronen statusa, batez ere Erakunde Publikoen aurrean.

6. Azken amets batzu

Agiriak eskatu, bai, eskatzen du adibidez terminologia bankuak eta eratu daitezen, itzultzaileen arteko trukaketak egin daitezen, batez ere herrialde bateko hizkuntza eta ohiturak ezagutzeko bidea egiteko... Baina guzti horiek amets lirerateke, nire ustez, gaurkoz gure artean.

Edozein modutan, eta 15. puntuak Desarroilo bidetan dauden herrialdeak aipatzen dituzenez, nik ere horiek aipatuko ditut, gu ere tar-

tean ote gauden susmo bizia dut eta. Hala dio: Desarroilo bidetan dauden herrialdeek Gomendio honetan aipatzen diren arau eta printzipioak onartu beharko lituzkete beren beharrak asetzeko beharrezko iruditzen zaien moduan.

Ez dakit hemen ere bide horretan gauden edo. Baina azken batean, gomendioak gomendio, hasieran esaten nuena errepikatuko dut: Batzuk arretaz jaso badituzte, beste asko eta asko ez dira enteratu ere egin oraindik... batez ere gure artean.

Samaniegoren fabula edo alegien itzulpen bilduma (Euskal itzulpenaren historiaren zatitxo bat)

Lurdes Auzmendi

1784. urtean argitaratu zen lehen aldiz **Fábulas en verso castellano para uso del Real Seminario Vascongado** izenburua zeraman Félix María de Samaniegoren liburua. Bertan guztira 177 fabula daude; batzuk Samaniegok berak asmatuak dira, eta beste batzuk Esopo, La Fontaine, etabarren itzulpenak.

Samaniegoren fabula edo alegiak hizkuntza askotara itzuli ziren, baita euskarara ere. Agustin Iturriaga izan zen alegia hauetako batzuk euskaratu zituen lehena. 1824ean argitaratutako **Ipuyac eta beste moldaera batzuec** liburuan bildu zituen gehienak, bere heriotzaren ondoren **Cancionero Vasco**-n bertsio ezezagun batzuk argitaratu zirelarik. Iturriagaren itzulpenak eta honek idatzitako jatorrizko beste batzuk, guztiak Auspoa argitaldariaren liburu sailean argitaratu ziren 1967. urtean.

Baina Iturriaga izanik ere Samaniegoren alegia gehienak itzuli zituen, beste batzuk ere ihardun zuten lan horretan, hala nola Felipe Arrese Beitia, Jose Antonio Uriarte, Mateo Zabala, Josu Egea, etab.

Joan den mendean, alegiak euskararatzeko zaletasun handia egon zen Euskal Herian. Samaniegoren fabulen itzulpenez aparte, aipatze-koak dira J. B. Archuk 1848. urtean eta L. Goyhetchek 1852an eza-gutzera eman zituzten La Fontaineren itzulpenak. 1921. urtean hasita berriz J. Altunak **Euzko Deya** aldizkarian Esoporen zenbaitzuren itzulpenak argitaratu zituen.

Esan bezala, Samaniegok bai Esopo eta baita La Fontainerenak ere itzuli zituen gaztelerara, zaila gerta daiteke beraz kasu batzutan euskaraz emandakoak jatorrizkotik ala Samaniegoren itzulpenetik itzulita dauden jakitea.

Baina, itzulpenei buruzko beste xehetasun batzurekin jarraituz esan, liburu edo bilduma gisara Iturriaga eta Egearenak bakarrik argitaratu zirela. Egearenak hain zuzen Arabako Foru Aldundiaren laguntzarekin 1979. urtean argitaratu ziren eta oraindik liburutegiren batean aleren batarkitu daiteke, baina Iturriagarenak aurkitzeko biblioteketara jo behar da, azken argitalpena ere erabat agortuta bait dago. Beste itzulpenak berriz, Arrese Beitia, Uriarte, eta besteenak XIX mendearen bukaerako edo XXaren hasierako aldizkarietan argitaratu ziren; Iturriagaren batzuk, Uriarte, Iza y Aguirre, Serafin Baroja, Mogel, etabarrenak **Cancionero Vaso-n**; Arrese Beitiarenak **Euskal Erria-n**. **Euskerea** eta **Euzko Deya** izan ziren Samaniegoren fabulen itzulpenak argitaratu ziren beste aldizkari batzuk.

Kasu gehienetan itzulpenaren forma jatorrizkoarena da, bertsoz daude, baina batzutan prosaz ere itzuli ziren.

Euskal itzulpenaren historia ezagutzeko, euskararen erabilpena, itzulpenen eboluzioa aztertu eta ikasteko eta nola ez, itzultzen ere ikas-teko, material interesgarria izan daiteke hori guztia.

Material honen interesa zertan datzan ikusi ahal izateko, hona hemen datu batzuk: La Fontaine-Samaniegoren **La Lechera** fabula eza-gunaren sei itzulpen desberdin daude, sei itzultzaile desberdinen lanak dira. Iturriagak berriz, alegia batzuren itzulpen desberdinak egin zituen, honela **Aizkora** eta **kirtena**-ren bi bertso daude, **Mendia aurgiten** alegiaren bi bertso baita ere, eta **Otsoa** eta **artzanora**-renak hiru bertso. Itzulpen guztien bilketak izan dezakeen garrantzia era erakuts ditzakeen bitxitasunak ikusi ahal izateko, hona hemen azkeneko fabula horren hiru bertsoen zati bana:

Otsoa eta artzanora

Otso handi bat
Mendiak gora
Zijoala goiz batean,
Artzanor andi
Batekin topo
Egin zukean bidean;
Zeuden lekuan
Gelditu ziran
Biak elkar ikustean.
Gaitz egiteko
Griña gaiztoa
Batek badakar jatorriz,
Gaztetandika
Ez badu uzten
Gaitza egingo du berriz,
Emandezala
Mila eta milla aldiz.

Artzanora eta otsoa

Otsoak zijoala
Bein mendia gora
Topos topo arkitu
Zuen artzanora.
Gelditzen dira biak
Elkarri begira,
Ez batak ez bestea,
Ez nairika jira.
Egoteaz bakoitza
Nekatu zanean,
Lotsaren ordean,
Asi ziran egiten
Elkarri agura,
Lenbizi otsoa,
Azkena zakurra.
.....
Maiz badirade ere
Sermoiak aditzen
Jatorrizko griñak
ez oi zaie uzten.

Otsoa eta artzanora

Artzaiak zeukazkiten
Mendian zepoak
Otso gaizto andi bat
Arrapatzekoak;
Artzanorak zebiltzan
Gañera or emen
Non ta nola otsoa
Atzemango zuten.
Onek jaten zizkaten
Ziran arkumeak
Eta arras galtzera
Zoaien artaldeak.

Otsoak ta artzanorak
Elkar topos topo
Egin ondoren, daude
Nork nori erasoko.
Biak ziraden guztiz
Mutil balienteak,
Faltarika egiten
Ez zien korajeak.
Griña gaiztoak badira
Gaztetandik artzen
Bizia dan artean
Ez dirade usten.

Hauek dira beraz Samaniegoren **El Lobo y el Mastín** fabularen itzulpenaren hiru bertsioren zatiak; berorien hasiera eta moraleja edo alegia jaso ditut. Ikus dezagun jatorrizko bertsiota:

El Lobo y el Mastín

Trampas, redes y perros
los celosos pastores disponían
en lo oculto del bosque y de los cerros,
porque matar querían
a un Lobo por el bárbaro delito
de no dejar a vida un cabrito.
Hallóse cara a cara
un Mastín con el Lobo de repente,
antes de la batalla muy serenos,
Anibal y Scipión, ni más ni menos.
Con una represión, con un consejo
se pretende quitar un vicio añejo?

Hiru itzulpenetan amaia berbera da, nahiz eta zenbait deskribapen desberdinak izan. Lehenengoa da halere desberdinena, metrika bera ere desberdina delarik. Hirugarrena da jatorrizkoari gehien lotzen zaiona, halere jatorrizkoa baino deskribatzaileagoa, zabalagoa da, eta orohar hau da Iturriagaren itzultzeko era, jatorrizkoa beti aberastu egiten bait du. Hau da noski hemen ikusten denari buruz egin daitekeen azterketarik laburrena.

Itzulpen bilduma hau Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen diru-laguntzarekin burutu ahal izan dut eta momentuz bertako bibliotekan aurkitzen da.

Esperantoa eta itzulpengintza

Xabier Mendiguren

Aurten bete dira ehun urte L.L. Zamenhofek Esperantoa sortu zuela, edo zehatzago esateko, bere "lingvo internacia"ri buruzko lehen obra argitara eman zuela: errusieraz lehenbizi eta polonieraz, frantsesez, alemanieraz eta ingelesez ondoren.

Sarreran bertan Zamenhofek dio denbora, diru eta lan ugari kostatzen dela hizkuntza bat ikastea eta aberastasun handia izango litzatekeela nazio desberdinetako gauzarik hoberenak adierazteko hizkuntza amankomun bat izatea. Bi hizkuntza bakarrik ikasteak -ama-hizkuntza eta nazioartekoa- lehendabizikoa sakontzeko aukera handiagoa eskuratuko omen luke eta gainerako guztiak berdintasunez tratatzeko era ere bai.

Hurrengo urtean, 1888an, Zamenhof okulista judu-poloniarrek "Nazioarteko Hizkuntzaren Bigarren Liburua" argitaratzen du eta urte bete geroago "Bigarren Liburuaren Osagarria". Familiako ezbeharrak eta larrialdi ekonomiko guztiak gorabehera, 1894ean "Universala Vortaro" (Hiztegi Unibertsala) agertzen da, hitzen itzulpena bost hizkuntzatan dakarrela. Geroxeago "Ekzercaro" (Ariketa-bilduma) eta 1903an "Fundamenta Krestomatio" (Oinarrizko Antologia) argita-

ratzen ditu; azken liburu hau artikuluz, poemaz eta prosazko atal jatorrizko eta itzuliz eraturiko antologia bat da. 1905ean "Fundamento de Esperanto" sonatuak, bere hamasei arauko gramatikarekin, lehen aldiko gailurra ezarri zion Esperantogintzari.

Nabari denez, Esperantoaren sortzailearen asmoak ezezik egintzak ere hasieratik bertatik itzulpen-praktikari lotuak ageri zaizkigu eta gramatika zehatz bat egin ordez, L.L. Zamenhofek nahiago izan zuen ahalik eta maisulan literario gehienak itzultzea esperantora hizkuntza asmatuberria aberasteko. Eta honela epe laburrean Shakespearean "Hamlet" (1894), Goetheren "Ifigenia Tauriden" (1908), Schillerren "Bandidoak" (1908), Molieren "George Daudin", Gogolen "Inspektorea" eta E. Orzeszkowaren "Marta" (1910) itzuli zituen, geroago Andersenzenbait ipuin eta Bibliaren Itun Zaharra jatorrizko hebraieratik esperantoratzeko.

Zamenhofen iritzian, itzulpengintza on zitzaien Esperantoari hizkuntza naturalen sotiltasunaz eta fiabardurez jabetzeko eta horregatik garrantzizko obrak hautatzeko eta leialtasunezko helburuari atxikitzeko gomendatzen ziren itzultzaile esperantistek, inolako hizkuntz zailtasun edo eragozpeni iskintxo egin gabe. Hasierako lan eskerga honen emaitza eta ondorioa, hitz-altxorraren aberaste harrigarria izan zen. 1887an zituen 912 monematatik 2.126 tara igarotzen da hizkuntza sortuberria, eta era berean 1.294 hizperri edo neologismo sortu bide zituen Zamenhofek itzulpengintzari esker, 1908 eta bere heriotza bitartean.

1970ean argitaratu den "Plena Ilustrita Vortaro" hiztegiak 15.250 sarrera ditu, eta bertan termino tekniko eta izen berezi ugari badago ere, gehienak hitz berriak dira. Literaturgileek begi onez ikusten dituzte ugaltze hauek baina beste zenbait beldur da edozein klazisismok berekin dakarren joritasun eta oparotasun hauek kalte ez ote dioten egingo Esperantoaren sinpletasun eta ikaserrzetasunari.

Esperantoak beste hizkuntzetako nazio-literaturak itzultzerakoan gainditu behar izan duen herronkatik atera duen probetxu eta etekina adierazkortasuna eta nortasuna areagotzea izan dira. Zamenhofek aurrez ikusten zuenez, ez da aski izan hitz berriak asmatzea, moldatu eta egokitu egin behar izan dira obra handietan irudikaturik dauden sentimentu eta ideien adierazpen zehatzago bat lortzeko. Horretarako Esperantoak berezkoak dituen baliabideak erabili behar izan ditu eta harremanetako hizkuntza izatetik arte-hizkuntza nabari izatera iritsi da

Itzulpen-erakuspen zabalena

10.000tik gora jotzen dira Esperantora itzulitako obrak; izan ere sorreratik bertatik hasita atergabe ekin bait dio itzulpengintzari bi Mundu-Gerrateek ezinbestez sortutako etenaldiak salbu. Jendemasen erabilerarako inoiz burutu den kultura unibertsalaren antologia zabalena bihurtu dira itzulpen hauek. Letra Ederren sailari dagozkio gehienak eta ia ez dago literatur obra entzutetsurik Viena, Rotterdam, Praga, Londres edo Tokyoko liburutegi esperantistetan itzulpenen bat ez duenik. Nahiz eta itzulpen-masa hau hau oraindik irakurle urriren eskuetara iristen bada ere, halere harrigarria gertatzen da ekintza honen handinahia. Seguraski ezinezkoa gertatuko zaio irakurle bati inongo hizkuntzatan Lermontoven "Ipuin Kaukasiarrak", finlandiarren "Kalevala", Ihara Saikakuren "Bost gortesanak", Lu Sinen "Nobela Laburrak", Imre Madachen "Giza tragedia" eta abar irakurtzea "Fausto", "Otelo", "Edipo Errege", eta "Komedia Jainkotiaria"z gainera.

Bestalde, esan beharra dago, Mendebaldeko herrialde askotan ere ez dela erraza izango aurkitzea itzulirik Esperantoak bere baitan dituen obra asko eta asko. Honela, bada, esperantistak gizateriak sortu dituen literatur obra nagusienen aukeramen orekatu bat dauka bere eskura, eta gertaera hau, elebitasun eta hirueletasun guztiak gorabehera, kultura unibertsalerantz munduan eman den urratsik sendoentako bat da.

Nazio desberdinen literatur ondarrerako irispidea izateko, antologia ugari daude Esperantoz eta berauetan egundoko informazio-kopurua aurkitzen du irakurleak. Banaka batzu aipatzearren, kataluniar, txinatar, brasildar, bulgariar, japoniar, portugaldar, ingeles, suediar, txekiar eta abar bezalako antologiak dabilta barreiatuak esperantisten artean, herrialderik desberdinetako kulturaren mezulari eta mandatari gisa. Ikus daitekeenez, berauetako zenbait kultur gutxiengoei dagozkienak dira eta antologia hauen merituetako bat orain arte espezialista edo aditu batzuren eskura egon den zerbait irakurle-multzo zabalagoen irispidean jartzea izan da.

Europatik Asiarra

Baina ahalegin hau ez da mugatzen antologietara. Adibidez, Jovkov, Stamatov, Karaslavov, Vaptzarov eta abar bezalako idazle

bulgariarrak esperantistek ongi ezagutzen dituztenak dira itzulpenei esker. Janis Rainis letoniarraren eta T. Hamri islandiarraren poesia, kataluniar edo frisiar prosa, esperantisten eskura daude, beste zenbait herrialdeetako irakurleagoak susmorik ere ez duen bitartean. Esan beharrik ez dago zeinen kultur giro pribilegiatua daukaten esperantistek beren itzulpen-politika zabalari esker. Honela Esperantoa hizkuntzazubi gerta daiteke kultura desberdinen artean. E. Orzeszkowaren "Marta" nobela Esperantora itzultzeak aukera eman du ondoren japonierara eta txinerara ere itzultzeko eta "Kon-tiki" obraren Esperantozko itzulpena beste zenbait itzulpenetarako abiapuntu gertatu da. Egia da, egia esateko, oraindik fenomeno aski mugatua da hau, eta hala izaten jarraituko du literatur mailan, baina heda liteke zientzi argitalpenetara, zeinean Ingelesaren monopolioa konprometituri aurkitzen den aurrerantzean.

Esperantoak European arrakasta izatea ulergarritzat jo daiteke, zeren eta lexikoa batipat Europako hizkuntzetan oinarritzen bait du, baina geografiko hain urrun eta askotan kolonialismopean zeuden asiar herrialdeetako kultur egoera eskasean nekez amets egin zitekeen Esperantoaren premia handirik senti zitekeenik eta hizkuntza honek aurrerapenik egin zezakeenik. Baina ez da hala izan, 1905ean Boulogne-sur-Mer, frantses hirian lehen Biltzarrea egin zenez geroztik, Esperantoak hedadura handia hartu zuen prentsa-mailan eta Europaz kanpo ere ezaguna gertatu zen. Txinan, Japonian eta Indian 1905 eta 1910 bitartean ezagutu zuten eta batez ere lehendabiziko bi herrialdeotan bizitza sendoa izan du Esperantoak eta azken aldiotan Iran eta Hego-Korean ere aurrerapen nabariak egin dituela ematen du.

Normalean lau norantzatan lan egiten dute Esperantistek: 1) nork bere nazio-hizkuntzatik Esperantora itzuliz, 2) beste nazio-hizkuntza batetik Esperantora itzuliz, 3) jatorriz Esperantoz idatziriko testu bat norbere nazio-hizkuntzara itzuliz, edota 4) aurretik nazio-hizkuntza batetik Esperantora itzulia izan den testu bat nork bere nazio-hizkuntzara itzuliz.

Normalean lehendabiziko norantza izan da emankorrena; bigarrenari buruz irakurleagoak erreserbak izaten ditu eta oso Esperantolari onen testuak bakarrik onartzen ditu eta hiru eta laugarren kasuak bakanak gertatzen dira, baina esan behar da Asian bereziki nabarmena gertatu dela Esperantoaren zubigintza hau.

Japoniari dagokionez, "Japanaj Rakontoj" (Japoniar Kontakizunak) (1910) izan zen hizkuntza honetatik itzultitako lehen liburua eta Berlinen agertu zen Chief Toshioren eskutik. 10.000 ale salteraino iritsi zen hiru argitaralditan. N. I. Ivanovek errusierara ere itzuli zuen. Japonian bertan agertu zen lehen liburua "En mezo de l'bruego" (Zarramaltzaren erdian) izan zen eta 1913an argitaratu zen. Lehen eta bigarren Mundu-Gerrateek etenaldiak sorterazi zituzten baina, halere, 1972 urtera arte 7.215 titulu ageri dira Japonian Esperantoz (2).

Esperantozko beste itzulpen-zentru nagusi bat Txina da Asian eta batez ere 1949. urteaz geroztik indartu da ekintza mota hau nahiz eta lehen liburua 1913an agertu. Poesia klasikoa eta filosofiazko liburuak itzuli izan ziren hasieran. Baina 1949az geroztik Txinako bizimodu berria deskribatzen duten obrak gero eta gehiago itzuli dira Esperantora "Txinatar Antologia" (1960) izan zen ahalegin eskerga honen fruitua eta bertan hogeitamar poeta garaikideren poemak eskaintzen dira. Azken aldian buruturiko lanik nagusienetako bat Mau Zedongen obrak (Liburu Gorria) eta Lusinenak itzultzea izan da. Esperantoratze hauek ez dira beti Txinera Mandarinetik egiten baizik eta nazio-gutxiengoen hizkuntzetatik ere bai. Aldizkariak eta haurrentzako liburu irudizatuak ere erruz argitaratzen dira Txinan. "El Popola Cinio" deritzan aldizkariak 600 orrialde argitaratzen ditu urtero. Beste hizkuntzetako obrak ere txineratzen dira Esperantoaren zubiaz baliatuz, adibidez, Sandor Petofi hungariarraren "Jon Kementsua" itzuli dute sistema honi esker.

Vietnam 50. urteetatik aurrera hasi zen Esperantoz liburuak argitaratzen baina kopuru handiak sortzera iritsi da; batez ere, liburu politikoak itzultzen ziren hasieran, baina literatur obrak ere ugari agertu dira azken boladan Vietnametar literaturaren antologia zabal bat ere argitaratu da dagoeneko.

Asiako beste herrialde batzutan ez da lortu aipaturiko herrialde hauetan adinako sormenik baina Iranen eta beste zenbait herrialde islamikotan ere bultzada nabaria hartu du, batez ere, Korana Esperantora itzuli denetik.

Bistan dago, oraindik ere Europa dela Esperantozko itzulpenen zentrua, baina Asiaren protagonismoa gero eta garrantzizkoagoa gertatzen ari da, Txina buru dela, Japonia eta Vietnamerekin batera eta

argi dago esperantisten lanak asko laguntzen duela herri eta kultura asiar desberdinak elkarrengana hurbiltzen.

Esperantoa non dago?

Seguraski Esperantoaren erabilerak gailurrik gorena 1920. urteetan harrapatu zuen, idealistek bakearen aldeko urrats bezala hizkuntza hori ikasteari ekin ziotenean. Zenbait intelektualentzat hizkuntza desberdinek sortzen zuten ulertuezinaren konponbide egokia zen eta garai hartan Ingalaterrako zenbait eskolatan haurrek Esperantoa ikasteko aukera zuten; baina Bigarren Mundu-Gerratearen ondoren interesak behera egin zuen, neurri handi batean gobernuak laguntzarik eman ez ziotelako eta Ingelesa negozio eta bidaiarako "lingua franca" bihurtzen hasi zelako. Esperantistek eskatu zieten Nazio Batuei Esperantoa onartzeko baina antolamendu honek nahiago izan du sei hizkuntza ofizialekin aritzea.

Uztailaren 27ko TIMEn "The Hope of Esperanto (La Espero de Esperanto)" izenburupean (3) agertu zen artikuluan Humphrey Tonkin, Rotterdameko Esperanto-Elkartearen Presidenteak dioenez "lingvo internacia" popularra da ongi bidaiatzen ez duten hizkuntzak dituzten herrialdeetan. Adibidez: Iran, Brazil, Herrialde Behereak eta Eskandinaviar Herrialdeetan. Japonian esperantista-mordo nabaria aurkitzen da, non batzutan Esperantoa erabili den hizkuntza desberdinetako zientzilarientzabaidetarako. Txinak Iparraldeko eta Hegoaldeko dialektoen artean komunikazioa errazteko erabiltzen du eta argitalpen-programa sendo bat du. Mundu-literaturako maisulan ugari itzuli da hizkuntza desberdinetatik Esperantora, Korana eta Shakespeareren teatroak barne direla. Baina Mary Davies, Heysham, Ingalaterran hotel bat daukan Esperantistak dioenez kezuka, "Ez daukagu batere irakurgai aririk". Batzuentzat hiltzen ari den hizkuntzarik gazteena den bitartean beste batzuentzat zenbait milioi hitzun, idazle eta irakurle dituen hizkuntza da eta belaunaldi gazteen ekarpena erabakiorra izango da Esperantoaren etorkizunerako. Gauza bat dago argi, tresna gisa funtzionatu egiten duela eta zenbait garai eta herrialdetan fruitu nabarmenak eman dituela. Aurrerantzean emango dituen ala ez, aldian aldiko gizon-emakumeen eskuetan eta borondatean dago. Espero dezagun Carlo Bourlet-ek garai batean esaten zituen hitz haiek

baliozko eta sinesgarri gertatuko direla askorentzat etorkizunean eta Esperantoak bizitza luzea izango duela: *"Nia dolca lingvo naskas novan homan senton; gi anstatauigas la sencelan detruantan internaciismon per daura frata interkonsento de homoj, kiuĵ, fine sin komprenante, sin amas reciproke. Lasante al ciu popolo gian individuecon, ec protektante gin kontrau la fremdaj enkuroj, kiuĵ minacas gian ekziston au liberecon, gi alportas al la mondo tiun neutralan fundamenton, kiu ebligas internaciajn interrilatojn humiligante nenian rajtan nacian fierecon"*) (4). Gure hizkuntza eztiak giza sentipen berri bat sortzen du; nazioartekotasun antzu eta suntsitzailearen tokian gizonen elkarrulertze anaikor eta iraunkorra ezartzen du, zeinek elkar ulertuz elkar maitatzen duten. Herri bakoitzari bere indibidualtasuna utzirik, eta bere existentzia edo askatasunari mehatxu egiten dioten inbasio arrotzetatik babestuz, eskuratzen dio munduari, nazioarteko harremanak posible egiten dituen oinarri neutral hori, bidezkoa den nazioharrotasuna inola ere umilarazi gabe).

OHARRAK

- (1) JANTON, Pierre, El Esperanto, 102-105.
- (2) BENCZIK, Vilmos, Esperanto Translation in Asia, in BABEL, nº 3/1979, 152-154 or.
- (3) REED, J.D. "The Hope of Esperanto-La Espero de Esperanto" in TIME, nº3), 27-VII-87, 21 or.
- (4) INGLADA-LOPEZ VILLANUEVA, Manual y Ejercicios de la Lengua Internacional Esperanto, Barcelona, VI or.

IRUZKINAK

Itzulpenari buruzko zenbait aldizkariren berri ematea

BABEL. Revue Internationale de la Traduction. Organe Officiel de la Fédération Internationale des Traducteurs. Publié avec le concours de l'UNESCO. Organe trimestriel d'information et de recherche dans le domaine de la traduction. International Journal of Translation. Official Organ of the International Federation of Translator. Published with the Assistance of UNESCO. Quarterly Journal devoted to information and research in the field of translation. Vol. XXXII. N. 3/1986.

Sommaire-Contents

Editorial

Articles

MURIEL VASCONCELLOS: A Functional Model of Translation:
Humor as the Case in Point.

W. TERRENCE GORDON: Translating Word-Play: French-English, English-French.

GEORG TRÜBNER: Johann Joachim Christoph Bode - führender Vermittler zwischen der englischen und deutschen Literatur und einflußreicher Übersetzer der vorklassischen Zeit.

Le monde de la traduction – The World of Translation

La Vie de la FIT – The Life of FIT

Les Organes de la FIT – The Organs of FIT

Revue et bulletins des sociétés de la FIT – Reviews and Newsletters of FIT member societies.

Climats de la traduction: faits et chiffres – Climates of Translation: facts and figures.

Collection UNESCO d'œuvres représentatives – UNESCO Collection of Representative Works.

Informations Bibliographiques et Lexicographiques Bibliographical and Lexicographical Information.

JEAN DELISLE: Au cœur du triologue canadien.

HENRY G. BURGER: The Wordtree (GYÖRGY RADO).

J.C. SANTOYO: El delito de traducir (GYÖRGY RADO).

RONNIE APTER: Digging for the Treasure. Translation after Pound.

WERNER CREUTZIGER: In Dichters Lande gehen. Übersetzen als Schreibkunst (GYÖRGY RADO).

EDMOND CARY: Comment faut-il traduire? (GYÖRGY RADO).

JANKOMODER: Slovenski Leksikon novejšega prevajanja (GYÖRGY RADO).

JACQUES DERRIDA: Des Tours de Babel.

ANTOINE BERMAN: L'épreuve de l'étranger: culture et traduction dans l'Allemagne romantique (YVES GAMBIER)

Dictionary of Electrical Engineering and Electronics. German-English.

Dictionary of Animal Production Terminology, by the European Association for Animal Production. English-French-Spanish-German-Latin.

GUIDO GOMEZ DE SILVA: Elsevier's Concise Spanish Etymological Dictionary.

ROLF SUBE: Dictionary of Radiation Protection. Radiobiology and Nuclear Medicine.

Terminologie – Terminology
JEAN MAILLOT: *Le mot juste.*

Forum

Nos auteurs – Our authors

Babel aldizkariaren zenbaki honek hiru artikulu eskaintzen ditu literatur itzulpenaren arazoei buruz.

Muriel Vasconcellosek ahalegin bat egiten du aditzera emateko posible dela umorea itzultzea eta zer zentzutan den ere argitzen du. Metodo estrukturalista erabiliz brasildar portugesezko testu-corpus bat eskaintzen du.

W. Terrence Gordonek ingeles eta frantsesezko adibide konkretuekin lan-tzen du arazoa eta iradokizun praktikoak eskaintzen ditu literatur-itzultzaileentzat.

Hirugarren artikuluak Europako itzulpenaren historiari ekarpen bat egiten dio J.J. Ch. Bode (1730-93) ingeles eta frantsesezko literaturaren itzul-tzaile alemaniar izan zenaren berri emanez.

BABEL. *Revue Internationale de la Traduction. Organe Officiel de la Fédération Internationale des Traducteurs. Publié avec le concours de l'UNESCO. Organe trimestriel d'information et de recherche dans le domaine de la traduction. International Journal of Translation. Official Organ of the International Federation of Translator. Published with the Assistance of UNESCO. Quarterly Journal devoted to information and research in the field of translation. Vol. XXXII. N. 4/1986.*

Sommaire-Contents

Editorial

Articles

GONIE BANG: *The Imagination of the Writer and of the Literary Translator.*

KATHARINA REISS: *Ortega y Gasset, die Sprachwissenschaft und das Übersetzen.*

INGRID KURZ: Dolmetschen im alten Rom.

HENRI VAN HOOFF: La traduction aux Pays-Bas et en Flandre.

Le monde de la traduction – The World of Translation

La Vie de la FIT – The Life of FIT

Les Organes de la FIT – The Organs of FIT.

Revue et bulletins des sociétés membres de la FIT – Reviews and Newsletters of FIT member societies.

Climats de la traduction: faits et chiffres – Climates of Translation: facts and figures.

Collection UNESCO d'œuvres représentatives – UNESCO Collection of Representative Works.

Informations Bibliographiques et Lexicographiques

Bibliographical and Lexicographical Information

Translation Perspectives 11, ed. Marilyn Gaddis Rose.

RIA VANDERAUWERA: Dutch Novels Translated into English (MARILYN GADDIS ROSE).

K. NENTWIG: Elsevier's Dictionary of Opto-Electronics and Electro-Optics.

HUGHES VAUCHER: Elsevier's Dictionary of Trees and Shrubs.

GORDON LOGIE: Glossary of Planning and Development.

Terminologie – Terminology.

CHR. LAUREN: Nordterm.

S. LØLAND: The Nordic Language Secretariat.

Forum

Prizes Awarded to Translators.

Nos auteurs – Our authors.

Zenbaki honetan bereziki azpimarratzen da Ekialde Urruna eta Euramerikaren arteko itzulpena, eremu hispanikoa eta beste eremuen arteko itzulpena eta baita antzinatea eta Aro Modernoaren artekoa ere.

Hego Koreako Gorie Bangek Txinako Errepublikan Herritarrean dagoen itzulpen-giroaren berri ematen du eta Ekialde Urruneko itzultzaileak egiten

dituzten ahaleginen berri ematen digu munduaren beste alderdi batzuekiko harremanak ezartzeko.

Bang profesoreak itzultzaile literarioaren bokazio unibertsala azpimarratzen du eta Txinako Herri-Errepublikari buruz ematen dituen datuek nahiko ongi deskribatzen dute herrialde hartako itzultzaileen statusa eta antolamendua.

Katharina Reiss, alemaniar traduktologo sonatuak, Ortega y Gasseten "Esplendor y Miseria de la Traducción" saiakeraren bertsio berri bat egin duelarik, aurretik zegoenarekin konparatetik sortutako oharrek eskaintzen ditu eta gainera saiakeraren analisi bat egiten du.

Ingrid Kurzek, Aintzinako Erroman interpretaritzakasuak aipatzen dituzten autoreen aipamenak dakartza. Eta Henri van Hoof, holandar traduktologoak holanderarako itzulpenaren historia orokor bat egiteko datuak biltzeari ekin dio obra literario eta zientifikoak barne direla. Erdi Arotik hasi eta gure egunotara arteko europar kulturaren ikuspegia ematen du.

Terminologi zutabeak oraingoan eskandinabiarr herrialdeei buruzko informazioa dakar, eta FORUMen itzultzaileek irabazitako sarien berri ematen da.

BABEL. Revue Internationale de la Traduction. Organe Officiel de la Fédération Internationale des Traducteurs. Publié avec le concours de l'UNESCO. Organe trimestriel d'information et de recherche dans le domaine de la traduction. International Journal of Translation. Official Organ of the International Federation of Translator. Published with the Assistance of UNESCO. Quarterly Journal devoted to information and research in the field of translation. Vol. XXXIII. N. 1/1987.

Sommaire-Contents

Editorial

Articles

GYÖRGY RADO: A Typology of LLD Translation Problems.

ELENA NIKOLOVA: Bulgarian Literature in Translation. Problems of a Language of Limited Diffusion.

BOGNA OPOLSKA-KOKOSZKA: Pour un modèle interdisciplinaire de la traduction.

HENRI VAN HOOFF: La traduction aux Pays-Bas et en Flandre II

Le monde de la traduction – The World of Translation

La Vie de la FIT – The Life of FIT

Les Organes de la FIT – The Organs of FIT

Revue et bulletins des sociétés de la FIT – Reviews and Newsletters of FIT member societies.

Climats de la traduction: faits et chiffres – Climates of Translation: facts and figures.

BELGIQUE: La traduction administrative en milieu national et international.

Collection UNESCO d'œuvres représentatives – UNESCO Collection of Representative Works.

Informations bibliographiques et lexicographiques

Bibliographical and Lexicographical Information

JUSTA HOLZ-MÄNTTÄRI: *Translatorisches Handeln*.

Ed. CATRIONA PICKEN: *Translation and Communication*.

Ed. ÉVA H. STEPHANIDES: *Contrasting English with Hungarian*.

HELEN THOMAS - JUDIT MOLNAR: *Hungarian into English and Back. A Book of Exercises in Translation and Style*.

PAUL BENNETT and others: *Multilingual Aspects of Information Technology*.

DETLEV BLANKE: *Internationale Plansprachen. Eine Einführung*.

Terminologie – Terminology

Three important books in the field of terminological research:

Ed. WOLFGANG NEDOBITY: *Terminologies for the Eighties*.
With a special section: 10 years of Infoterm.

Ed. MAGDALENA KROMMER-BENZ: *Second Infterm Symposium - Deuxième Symposium d'Infoterm*.

KLAUS BAAKES: *Theorie und Praxis der Terminologieforschung Deutsch-English*.

Forum

An International conference on "Translation Theory and the Training of Translators and Interpreters" in Berlin GDR.

Prizes awarded to Translators

Manifeste de Tours (Guillemette Belleteste).

Nos auteurs – Our authors

Babel aldizkariaren ale honetan badira bi artikuluko behintzat, euskal itzulzailearentzat, eta euskal itzulpenak ardura dion ororentzat, bereziki interesgarriak direnak.

G. Radó, aldizkari honen beronen zuzendariak, bera ere hedadura txiki baten hiztuna izanik, hungariarra hain zuzen, artikuluko labor bano trinko baten, hedadura txikia duten hizkuntzetako itzulpena definitzen eta hizkuntza horietatik eta horietarako itzulpenaren ezaugarri eta arazo nagusienak aipatzen ditu.

Hedadura txikiko hizkuntza, berorren hiztunen, bestelako erabiltzaile eta ikasleen kopuruaren arabera definitzen du.

Hedadura txikiko hizkuntz hauetako arazoak sei iturburu-modutatik datozela dio G. Radó: hizkuntzen ezaguera, itzulpen gogor edo egoskaitzaren papera hizkuntza hauetan; beste itzulpen batetik eta ez jatorrizkotik egindako itzulpenarena; jatorrizko eta xede hizkuntzako antzeko adierazkizunen esanahi desberdintasunak; itzulzailearen ama hizkuntzatik bestetara egiten diren itzulpenak; hedadura txikiko hizkuntzetako itzulpenak mundu-literaturarekin duen zerikusia. Sei arazo moduko labor eta zehatz aztertzen ditu G. Radó bere artikuluan.

Elena Nikolovak Bulgariako literaturan itzulpenak izan duen papera aztertzen du, hedadura txikiko hizkuntzetako itzulpenaren adibide bat emanez horretan.

Hedadura txikia duten hizkuntzetako itzulpenaren gai honetatik aparte, Bogna Opolska-Kokoszka teorilariak itzulpenaren ikerketarako disziplinar-teko modelo bat proposatzen du. Itzulpenaren teorilari honek dioenez, ohituegiak gaude itzulpena ikuspegi linguistikoko soil batetik begiratzen. Ikuspegi orekatu batetara iristeko, ordea, ikuspegilinguistikoko honez gainera, ikuspegi filosofikoa, psikologiazkoa eta soziokulturala ere kontutan artu beharrekoak dira.

Henri van Hoofek, bere aldetik, Babel aldizkari honen aurreko alean hasia zuen neerlandera-ko itzulpenaren historia laburrari jarraipena ematen dio.

CONTRASTES. Revue de l'Association pour le Développement des Etudes Contrastives. N° 12. Mai 1987

C. BOISSON: L'auxiliaire "faire" comme trace anoniative et le concept de maîtrise.

A. BENELAC: Différents modes d'expression de l'intensité affective utilisée en Jaquéia.

- R. AIT-OUMEZIANE: Grammaire et enseignement du français aux arabophones: la solution d'une pratique contrastive.
- A. MINGUZZI: Les interférences sur le système linguistique second en formation.
- A. MURIAS: A propos de quelques résultats théoriques et pratiques de la théorie de la valence appliquée au portugais et à l'allemand.
- A. RAULIN: Langues et espaces: les "phrasal verbs" en anglo-américain.

Comptes rendus et colloques.

Courrier des lecteurs.

CONTRASTES aldizkaria beti da interesgarria. Ale honetan hala ere badira zenbait artikulua euskal irakurlearentzat interes berezia dutenak, Senez-en ale honetan bereziki, beronen gai ia monografikoa itzulpena eta hizkuntzen irakaskuntzaren arteko erlazioa delarik.

Hala, R. Ait-Oumeziane-ren artikuluan gramatikaren erabileraren edo gramatikazko kontzeptuen errebindikazio bat egiten da hizkuntzen irakaskuntzarako. Autoreak bere esperientzian erreparatu ahal izan duenez, arabe hiztunek frantzes ikastea izaten dituzten interferentziak eragozteko eta itzurtzeko, praktika horretan antzematen diren interferentziak eragiten dituzten hizkuntzarteko desberdintasunak sistematikoki tratatuko dituen estrategia bat prestatu behar da. Horretarako ez dute askorik balio xede-hizkuntzaren mekanismuak deskribatzen dituzten ohizko gramatikek, bistan da.

A. Minguzzik, zentzu berean, Contrastes aldizkariaren aurreko alean hasiera eman zion ikerketarari jarraipena ematen dio, frantsesa ikasten ari den italianoak izan ohi dituen interferentzia ohizkoenak banan banan aztertuz eta interpretatuz.

Augusto Múrias irakasle portugesak, hizkuntzen irakaskuntzarako metodologia berrien eraikuntzan garrantzia handia izan duen balentziaren kontzeptua aztertzen du. Helbig/Schenkelek alemanierazko aditzen deskribapenerako erabili izan duten balentzia sintaktikoaren kontzeptua aditzera eman ondoren, modelo hori osatu eta hobetzeko zerbait proposamendu egiten ditu.

Cuadernos de Traducción e Interpretación. Quaderns de Traducció i Interpretació. E.U.Y.I. Escuela Universitaria de Traductores e Intérpretes. Universidad Autónoma de Barcelona. Bellaterra, 1986. N. 7.

Indice

Informe: Traducir a los clásicos.

Las dos fases de la traducción de textos clásicos latinos y griegos.

Valentín García Yebra.

Sobre las traducciones de la "Biblioteca Clásica Gredos". *Carlos García Gual.*

Tres traducciones de un mismo texto poético latino. *Virgilio Bejarano.*

Cor d'entrada de les Suplicants d'Esquil. *Manuel Balasch.*

"El rapte d'Hèlena", Col·lut (traducció de Francesc J. Cuartero i Iborra).

De arte translationis. *Francesc J. Cuartero i Iborra.*

Entrevista a mossèn Manuel Balasch i Recort. Els clàssics en català; La Fundació Bernat Metge. Lourdes Mañé i Martí.

Artículos

P. NEWMARK: La enseñanza de la traducción especializada.

PHILIPPE CURVERS, JEAN KLEIN, NINA RIVA et CLAUDE WUILMART: La traduction à vue comme exercice préparatoire et complémentaire à l'interprétation de conférence.

AGUSTIN COLETES BLANCO: Pérez de Ayala, traductor del inglés.

LIDIA ANOLL: Les traduccions catalanes de l'obra de Balzac.

ALEX ALSINA i AURORA BEL: Els pronoms personals en català i en castellà: Anàlisi i contrast.

MIGUEL REQUENA: Ida y vuelta a Venecia: Viajes en solitario de un joven poeta.

JOSE ANTONIO ZABALBEASCOA: Un drama nuevo y Yorick's Love.

MANUEL A TOST PLANET: Claude Simon y "la materia de España".

Entrevista

Entrevista amb David Rosenthal. *Amalia Rodríguez Monroy.*

Reseñas.

Aldizkari trinko eta mamitsua da hau. Lehenengo atalean zenbait klasi-koren itzulpenak dakartza, batzuetan soilik, batzuetan zenbait konparaturik, eta beren jatorrizko testuak; bestalde ere, testu klasikoen itzulpenerako sortzen diren gramatika eta interpretazio arazoak komentatzen dira eta baita hauei aurre egiteko era desberdinak, joera desberdinen abantailak eta desabantailak. "Biblioteca Clásica Gredos" sailaren zergatia, asmoak eta ezaugarriak esplikatzeko beraren asesore den Carlos García Gual-ek. Manuel Balasch i Recort-i egiten dioten elkarrizketa ere oso interesgarria da.

Hala ere, bigarren atala iruditzen zait interesgarriena, artikulua alegia. Hemen ageri direnetan, Pérez de Ayala-ri buruzkoa gustatu zait gehien. Idazle honek oso jarrera garbia zuen itzulpenari buruz eta baieztapen borobilak eta ausartak egiten ditu idazteaz eta itzulpenaren alderdi eztabaidatuenez. Esate baterako, hona bere esaldi batzuk: *Si una traducción cualquiera, sobre todo en verso, anda frisando siempre en traición y crimen de lesa majestad poética, ¿qué no ocurrirá couando sobre este natural riesgo se añade el surplus de aquellas caprichosas exigencias?* Geroroago: *Toda obra literariamente buena es traducible, porque su bondad y su aptitud para ser traducida vienen a ser la misma cosa. Su bondad es su sustancia.* Gaztelera zko literaturaren frakasua atzerrian ea idazleen itzulezintasunari zor zaion galdetzean honela erantzuten du: *Es que si son intraducibles no merecen ser leídos en la lengua original. Toda lectura es una traducción mental. Yo divido los escritores de mi país en traducibles e intraducibles. Uno de esos matueros del idioma, puristas y classicistas a tontas y a locas, eligirla al intraducible. Por el contrario, yo pienso que el bueno es el traducible.* Pérez Ayala-rentzat, beraz, mami bera azal desberdinez ematea da itzulpena. Mami hau —bertsio originala, kasu honetan— unibertsala da esentziaz, baina formaz alda daitekeena. Hala behar ere, gainera, transzendente izango bada. Ondoren, bere itzulpen batzuk ematen dira, bere ideiak praktikan erakustearren, eta, egia esan, oso dotore eta onak dira, esannahi aldetik zehatzak. Artikulu horretarako, egileak, Ayala-ren liburu askotatik atera ditu iritzi eta komentario horiek. Beste artikulua guztiak edo gehienak irakaskuntzaren ikuspuntutik hartuak daude gehienbat.

J. L. Agote

La traduction. De la théorie a la didactique. Etudes réunies par Michel Ballard. Université de Lille III. Travaux et Recherches.

Table des Matières

MICHEL BALLARD: Présentation.

MICHEL BALLARD: La Traduction relève-t-elle d'une pédagogie?

- GEORGES MOUNIN: Pour une Pédagogie de la Traduction.
JEAN-RENE LADMIRAL: Pour la Traduction dans l'enseignement des langues, "Version" moderne des humanités.
CLAUDE TATILON: Place de la Linguistique en Pédagogie de la Traduction.
MAURICE PERGNIER: La Traduction, les structures linguistiques et le sens.
MARIE-CLAUDE et GUY BOURQUIN: Les problèmes de la Traduction Automatique.
GEORGES GARNIER: L'Aspect Verbal en Anglais et en Français. Note de systématique comparée.
MICHEL BALLARD: Le Syntagme Prépositionnel expansion du Syntagme Nominal dans sa Traduction de l'Anglais au Français.
MICHEL KRZAK: Traduction et Terminologie.
JEAN-RENE LADMIRAL: Traduction et Psychosociologie.

APETI. Boletín Informativo de la Asociación Profesional Española de Traductores e Intérpretes. Diciembre 1986. N. 26.

Sumario

Apeti informa

Creación de una Escuela de Traductores Jurídico-Administrativa en el País Vasco.

Admisiones.

Balance General de 1986 - Tesorería.

Clasificación OIT/Ginebra.

Nota necrológica.

Congresos - Efemérides

Reunión del Consejo y Bureau de la FIT en Granada.

I Simposio Internacional de Traducción en Lengua Catalana.

Encuentro de traductores peninsulares en Santiago de Compostela.

Colaboraciones

Traducción y enriquecimiento de la lengua del traductor (continuación).

L'aiuto del computer al lavoro del traduttore.

La formación de Traductores e Intérpretes (Universitat Autònoma de Barcelona).

Le problème de la traduction des noms propres.

La prensa informa

Premio Nacional de Traducción a la de "Shih Ching" al castellano.

Distribuidas las subvenciones de Cultura a la traducción.

El proyecto de ley de propiedad intelectual, a las Cortes.

Piden más traducciones de las lenguas peninsulares.

Ovidio y los traductores.

"Colaboraciones" atalaz gainera ezer gutxi esan daiteke Apeti-ren ale honi buruz, goiko aurkibide edo sumario horretan ageri diren izenburuak laburki azaltzera mugatzen bait da beste gutzia.

Aipatutako ataletik lehen artikulua da interesgarriena, Valentín García Yebra-k "Itzulpena eta Itzultzailearen hizkuntzaren aberasteaz" egiten duena. Aurreko alean hasitakoaren jarraipena da eta, itxura denez, luzea izango da guztira, zeren oraindik ere gaztelaniazko itzulpenak historian zehar gaztele-raren finkapenean izan duen eragina esplikatzeko du, gaingiroki, erreinuz erreinu eta menderik mende, bitxikeriak eta garai desberdinetako iritziak azalduaz. Ale honetan XII. eta XIII. mendeetatik Errege Katolikoengana (1471-1504) doan aldia hartzen du aztergai, eta bukaeran dioenez hurrengoan hasiko da esplikatzeko "zeintzuk diren eta nola funtzionatzen duten itzulpenak adierazpide bezala darabilen hizkuntza moldeatzen eta aberasten duten mekanismoak".

Itzultzaile eta interpretarien eskolatzeari dagokion artikulua Kataluniako Itzultzaile eta Interpretari Eskola Unibertsitarioak egina da eta bertan esaten denez, gaurko egunean eskola hori lotzen duen marko juridikoa ez da egokia itzultzaileak ongi prestatzeko eta, horrenbestez, proposamen bat egiten da "Itzultzaile eta Interpretari Eskola Unibertsitarioak" berregituratuz Europako Elkartearen arauerako "Itzultzaile eta Interpretarien Goimailako Institutuak" sortzeko. Ikasketa Plangintza berriko ikastaldia lau urtetakoa da eta bertan emandako titulua lizentziaturaren baliokide litzateke. Gainera, Europako Elkarteak laguntzak ematen ditu europar unibertsitateekin kolaboratuz ikasketa programa komunak eragiten dituzten unibertsitateentzat, etorkizunearan elkarren artean ikasleak trukatu eta elkarren osagarri izatera lagunduko duen zubia eraikitzearen.

Beste artikuluan batean, konputadorak itzultzailearen lanerako ematen duen laguntza handia omen dela dagoeneko dio Carol Chisholm-ek eta, zenbait programaren esplikazio labur bat eman ondoren, esaten du etorkizunean ere itzultzailea ezinbestekoa izango dela baina ordenagailuak zeregin handia izango duela itzulpenean.

Izen propioei buruzko artikuluan, senide arteko loturez, generoaz, maiuskula eta minuskularen erabileraz, instituzioen izenak itzultzeaz edo ez itzultzeaz, etab. mintzo zaigu Jiri Elman.

J. L. Agote

Bibliografia

MICHEL BALLARD: "La traduction de la théorie à la didactique". Université de Lille III. Travaux et Recherches. 1984.

Lilleko unibertsitatean itzulpenaren inguruan antolatutako mintegiari esker Michel Ballardek bildutako estudioez osatutako liburu honen aurkezpenaren hasiera bertatik, eta Jean René Ladmiraletan hitzak hartuta, esaten digu Michel Ballardek berak: "Instituzio pedagogikoaren barruan itzulpenak eduki dezakeen lekuaz hainbestetan egin den galderari erantzutea zen mintegi hau zabaltzerakoan genuen helburua". Liburua osatzen duten hamaika artikuluek, itzulpena eta pedagogiaren artean ematen diren harreman aunitz azaltzen digute; horrela, bada, Michel Ballard lehenengo artikuluan: "La traduction relève-t-elle d'une pédagogie?" hirugarren artikuluan J.R. Ladmiraletan bezala, itzulpenari hizkuntza biziaren irakaskuntzan leku egiten saiatzen da. Hizkuntza biziaren irakasteko metodo berriek, hizkuntza hilen irakaskuntza tradizionalaren oposizioan sortu direla eta hurrek ama-hizkuntza ikasteko ibili ohi duten bidetik jo nahirik, itzulpena baztertu egin dutela adierazten digu, ikasleak hizkuntza berriaz beste sistema linguistikoren erreferentziarik gabe jabe daitezela.

Baina Michel Ballarden ustetan bi hizkuntza-sistemen arteko interferentziak ezinbestekoak dira ikasle helduengan, hurrek ez bezala sistema baten jabe bait dira hizkuntza arrotza ikasten hasitakoan, eta hartara jotzen bait dute etengabe; horregaitik, bada, itzulpena joera naturala da eta bi hizkuntzen disimilaziorako balio haundikoa gertatzen da. Erreflexio linguis-

tikoaren beharra azpimarratzen du, horretan itzulpen teoriari leku handia eginez: Georges Mounin, Maurice Pergnier, etab. ezagutu behar direla esaten digu, ondoren itzulpena praktikatzera pasatzeko Vinay-Darbelnet, Nida, etab.en eskutik. Profesionalen itzulpenak aztertzea proposatzen digu ikasleek bereak egiten hasi aurretik. Itzulpenari, beraz, eta bertsioari batez ere, ama-hizkuntzan egiten den sistema arrotzaren esplorazio arrazonatua bezala, erabateko garrantzia ematen dio, hizkuntza arrotzaz jabetzeko beharrezkoa den erreflexio linguistikoaren gidari bezala.

Itzulpena didaktika baten tresna bezala agertzen duen artikulua honen ondoren, bigarren artikulura pasatakoan, itzulpena didaktikaren helburu bihurtzen zaigu: Georges Mouninek "Pour une Pédagogie de la Traduction" izenpean Lilleko unibertsitatean emandako hitzaldi honetan, itzulpenari buruz garai batean zegoen iritzi fatalista -itzultzeko gaitasuna dohai misteriozua bait zen, inolako metodologiak eragiterik ez zegoena- gaintutua dela dio, eta dagoeneko gaitasun hori lantzeko metodoak, praktikak, esperientziak eta doktrinak han hemenka aztertzen hasiak direla. Esfortzu kolektibo nahiz banakako horietatik sortu diren lanen erreferentzia ematen digu 1971-1981 hamar urteotan sortu diren gauza interesgarrienak komentatuz; ondoren itzultzeko eta itzultzen irakasketeko dagoen linguistikaren beharrez arituko zaigu, eta amaitzeko itzultzaileak ezagutu behar dituen oinarriko obra batzuk proposatzen dizkigu, bakoitzari komentariotxo bat eskainiz: E. Nida, M. Wandruszka, J.C. Catford, R.W. Jumpelt, Jean Maillot (bi hauek itzulpen tekniko eta zientifikorako), Vinay eta Darbelnet, etab. J.R. Ladmiraletan "Traduire: Théorèmes pour la traduction" lana aparte hartu eta luze-xeago komentatzen du. Eta obra hauez gain beste zerbait ere gomendatzen digu: itzulpenari buruzko aldizkariak irakurtzea hain zuzen.

Hirugarren artikulua, Jean René Ladmiraletan "Pour la Traduction dans l'enseignement des langues, 'Version' moderne des humanités", itzulpenaren funtzio pedagogikora itzultzen da berriro, baina Senezeko ale honetan bertan irakur dezakezuen ez digu hemen komentatuko.

Hurrengo Claude Taitilonen artikulua motz bat da: "Place de la linguistique en pédagogie de la traduction". Testu pragmatikoen itzulpenaz arduratzen da eta teorizatorako bideak zabaltzeko hizkuntzalaritzaren beharra seinatzen duelarik ere, teorizazio horretan beste disziplinak ere kontutan hartu behar direla dio, itzulpenaren arazoak ez bait dira hizkuntz-arazoak soilik.

Hurrengo artikulutxoan ere hizkuntzen estudiantatik harantzago dagoen "situazioa"ren garrantzia azpimarratzen zaigu (Maurice Pergnier: "La Traduction, les structures linguistiques et le sens"). Itzulpenean bilatu behar diren baliokideak esangurazko unitateen artean bilatu behar direla esaten digu Maurice Pergnieren, eta ez egituren unitateen artean. Itzultzeko makinaren garapenari buruzko eta garapen horren une bakoitzak suposatzen duen teorizazio mailari buruzko ohar batzuk egiten dizkigu ere amaitzeko.

"Les problèmes de la Traduction Automatique: Aspects de l'expérience anglais-français du Centre de Recherches Linguistiques en Traduction automa-

tique de l'Université de Nancy II. (CRAL: CELTA)" artikuluan Guy Bourquin eta Marie-Claude Bourquinek itzulpen automatikoaren nondik-norakoa azaldu nahi digute: zein zailtasunei aurre egin behar izan dien, zenbateraino lan enpiriko horrek itzulpenaren teorizazioa bultzatu duen, zein nolako aurrerapenak egin diren, eta zein puntutan dagoen gaur egun eta zein bidetik abiatzen den, batez ere ingelesa eta frantsesaren arteko itzulpen teknikoan beraiek egin dituzten eta egiten ari diren ikerketetan oinarrituz. Azalpen teorikoaren ondoren beren ikerketen berri zuzena ematen digute. Lehen esan dugun bezala ingelesa eta frantsesa erabiltzen dituzte, ingelesa jatorrizko hizkuntza dute eta frantsesa xede-hizkuntza. Lehenik jatorrizko testuaren azterketa deskribatzen digute, ondoren transfert lexikala eta sintaktikoarena eta azkenik xede-hizkuntzazko testuaren sorkuntza. Bukaeran itzulpen automatikoak ikerketa teorikorako duen garrantzia azpimarratzen dute. Badirudi inoiz "itzulgailu" deituko omen duguna momentuz "ikergailu" dugula oraindik.

"L'aspect verbal en Anglais et en Français. Note de systématique comparée" izeneko Georges Garnieren artikulua itzulpenaren azterketa dinamikoaren alde mintzatuz hasten zaigu. Vinay eta Darbelnetek ("Stylistique comparée du français et de l'anglais", 1958) eta Malblanckek (Stylistique comparée du français et de l'allemand", 1961) zuten ikuspuntu estatistikotik Ljudskanoven ikuspuntu dinamiko edo operatibora emandako aurrera pausoa seinalatu ondoren, sistematika konparatuaren bitartez aditzaren aspektua aztertzeari ekingo dio, eta aspektuaren beraren definizioari doakionean hizkuntzalariak bat ez datozela azpimarratzen duelarik, berak kategoria gramatikal bezala, modua eta denboraren parean jarriko du, beraiengatik berezia eta areago oraindik, haien gainetik ere jarriko du, inmanentzia eta transzendentziaren arteko oposizio bitartean kokatua. Ondoren ingelesaren eta frantsesaren aspektuaren sistematika aztertzen du eta konparaketak eta itzulpenak dituzten arazoak ere azaltzen dizkigu, adibide askorekin hornitzen dituelarik azalpenak.

Hurrengo artikulua Michel Ballarden eskutik datorkigu berriro. "Le syntagme prepositionnel expansion du syntagme nominal dans sa traduction de l'anglais au français. Elements de morphosyntaxe différentielle pour une utilisation didactique de la traduction" izen luzeak adierazten duen bezala ingelesaren preposizio-sintagmaren frantseseko baliokide funtzional eta semantiko posibleen bilatzeari ekingo dio. Horretarako, lehenengo preposizio-sintagmaren morfologia, funtzioa eta semantismoa aztertuko ditu, gero frantsesera pasatzerakoan geratzen diren aldaketa morfosintaktikoen arauera itzulpenen sailkapena egiteko: zero gradua suposatuko lukeen egituren kalkotik hasita, gerta daitezkeen aldaketen mailaketa egiten du eta banan banan aztertzen, lehenengo I.S.ren osagaien banakako aldaketak: preposizioarenak (konmutazioa, modulazioa) eta izen sintagmarenak (determinatzailearen ezabatzea, transposizioa); bigarren mailan osagaien arteko interferentzia morfosintaktikoa aztertzen du; hirugarrenean preposizio-sintagmaren konmutazioa; laugarren mailan modifikazioa proposatzen digu, beraren

azalpen eta azterketa luzea eginik; eta aldaketa morfosintaktiko haundiena bezala eta amaitzeko preposizio-sintagma osatzen duen izen-sintagma konplexuaren berregiturapena azaltzen digu. Pauso guztiak zenbait adibidekin hornitutako lan sistematikoa da Michel Ballarden hau.

Ondorengo lanean "Terminologie et traduction" Michel Krzak itzulpen-gintzan lexikologiako arazoez duten garrantziaz arituko da: Itzultzailearen betebeharrean prezisioak duen garrantziagatik, lexikologia eta baliokidetasun arazoak oso maiz sortzen direla dio, eta itzultzaileak hesparru hain diferente eta hain aldakorretan aritu behar duenez, espezialisten laguntza beharko duela etengabe, kontsultarako material idatzi oparoaz gain. Lexikoa zaintzearen betekizun honetan bi adibide eta eredu aipatzen dizkigu: Quebecoko hizkuntza frantsesaren garapenerako ofizina eta Otawako estatuko idazkaritzako itzulpen bulegoa; elebitasunerako politika fermuan oinarriturik lanean ari diren erakunde ofizialak, hain zuzen.

Terminologoen beharra eta egitekoa azaltzen dizkigu eta Quebecen egindako esperientzien berri ematen; ondoren Frantziara dator bertan lexikoz arduratzen diren erakundeen berri emateko; arlo honetan eman diren pausoak azaltzen dizkigu, bai eta sortzen diren arazoak ere, horrela, bada, esaten digu gauza bat dela terminoak proposatzea eta bestea proposamen hori jendartean onartua izatea, erakunde publikoek bere gain hartuko beharko dutela, beraz, behar bezalako terminoak aukeratzea eta zabaltea, eta ardura haundiz hartu ere. Itzultzaileak ere lan horretan zeregin haundia duela dio, hizkuntzaren finkatzaile dela esanez. Azkenik hizkuntzaren malgutu beharra, muga estuegiak hautsi beharra aipatzen du, aurrerapen teknologikoen eskakizunei erantzuteko gauza izango ba da.

Erreflexio guzti hauek frantsesaren gainean egiten dituen arren euskarari buruz ari dela dirudi askotan, hala nola zenbait produktuen fitxa teknikoak ingelesez eta frantsesez emanak izan arren frantses askok eta askok ingelesezko azalpenak irakurtzen dituztela dionean.

Liburuarekin amaitzeko Jean René Ladmiralet beste artikulu bat dator: "Traduction et psychosociologie". J.R. Ladmiralet artikulu honetan, itzulpena psikolinguistika kolektiboaren ikuspuntutik aztertzeari ekiten dio: Taldeen bizitzan elebitasunaren hizkuntza bariabilea ezartzeak duen eragina ikertu nahian zenbait alemaniar eta frantses gazte bildu eta beraien arteko harremanei begira jartzen zaigu. Esperientzia honen begira psikosozilogoez gain etnologoak, filosofoak, soziologoak, psikologoak eta hizkuntzariak daude eta bertan parte hartzen dutenak, berriz, maila sozial, ekonomiko, kultural, etab. desberdinetako gazteak dira. Hipotesia da elebitasunaren eta nazionalitatearen bariabileak ezartzeak taldearen dinamika erabat aldatu egiten duela. Talde hauek elebitasuna aztertu ohi den talde naturalen oso bestelakoak dira, artifizialak, denbora mugatua dute, partaideak boluntarioak dira eta bi hizkuntzak maila berean dira, pareko prestigioa dute, talde esperimentalak dira. Partaideen artean ez dute zertan guztiek elebidunak izan behar, denetarik dago eta egoera honetan sortzen diren komunikazio-arazoak taldearen arazo bihurtzen direlarik taldea hizkuntz arazo honen

inguruan eta konponbidea zaion itzulpenaren inguruan antolatuko dela dio. Honek taldetan gertatzen diren fenomenoak aztertzeko bidea zabaltzen duela dio: Nork itzuliko du, noiz eta zer? zein hizkuntza izango da nagusi? beti? zein kasutan? zeren arauera? Galdera hauek eta beste zenbaitentzako erantzun bila arituko zaigu J.R. Ladmiral liburuaren azken artikulua honetan.

Liburu honetan agertzen diren itzulpengintzara hurbiltzeko bide desberdinetatik azpimarratu beharra dago denetan nabari den itzulpenari tratamendu sistematiko eta zientifikoa eman nahia; traduktologia izango den eta oraindik hastapenetan besterik ez dagoen zientzia eratzearen bidean jarriak direla.

Bakartxo Arrizabalaga

**BERRI
ETA
ALBISTE**

Journées européennes de la traduction professionnelle

Paris 25-26 mars, 1987

Urte honetako joan den martxoaren 25 eta 26an, Parisen ospatu zen Europako itzultzaile profesionalen bilera, Europako Kontseiluak Eruopako Komunitateen Batzordearekin eta Unescorekin batera bul-tzatua eta antolatua, munduan hizkuntzen irakaskuntzari dagokionean dagoen erakusketarik garrantzitsuena den Expolangues-en inguruan. Seirehun itzultzaile bildu ziren bertara Europa guztitik: literatur itzul-tzaileak, zientzialorretako itzultzaileak, dibulgazio itzultzaileak, admi-nistrazio itzultzaileak. Euskal Herritik joanak, elkarren ezagunak be-hintzat, Itzultzaile Eskolatik, Herri Arduralaritako Euskal Erakunde-tik eta Gipuzkoa eta Bizkaiko Foru Aldundietatik joanak ziren.

Bilera hauetan —aldi berean bilera bat baino gehiago izaten bait ziren— aztertu ziren gaiak itzultzailearen tresneria, itzulpen automa-tikoa eta itzulpenaren antolamenduari buruzkoak izan ziren batik bat.

Itzulpenerako laguntzazko tresneriari dagokionean, ordenado-rezko testu tratamendua, itzulpenaren burotika, hiztegi elektronikoak, ordenadorearen laguntza itzulpen literarioan, datu eta dokumentazio baseak, datu bankuak eta terminologia sareei buruz hitzegin zen.

Itzulpenaren eta itzultzaileen antolamenduari dagokionean, itzul-tzaile literarioen nazioarteko kolegioak, itzulpena argitalpen sisteman,

itzulpen zerbitzuen antolamendua eta itzulpenerako dauden laguntza instituzionalak izan ziren hizlariak aztertu eta aditzera eman zituzten gaiak.

Itzulpen automatikoari dagokionean berriz, gaur egun erabiltzen ari diren sistemen aurkezpen kritikoa egin zen: itzulpen automatikorako sistema bakoitzaren oinarri teorikoak eta berorren emaitzak aurrez aurre jarriz. Horrela aurkeztu ziren Komunitateen Batzordean erabiltzen eta hobeto prestatzen ari den Systran sistema, eta LOGOS, ALP, CALLIOPE, MACROCAT, TAO eta STS sistemak.

Egun bi horietan bildu zen informazioarekin, luzaroagorako ikuspegia hartzen du itzultzaileak, etorkizuna nolakoa izango den asmatzen hasteko oinarria hartzen du. Guztiaren amaieran, hala ere, mahai inguru eta eztabaida publiko bat ospatu zen Itzulpenaren eta itzultzailearen etorkizunaz.

Txosten, aurkezpen eta ponentzia guztiak, antolamenduaren eredu izan behar lukeen batez, bilerak hasi ziren egunean bertan, sartzeko txartelarekin batera banatu zituzten antolatzaileek, **Encrages** aldizkariaren ale berezi batean bildurik, bertaratu guztiek eskura izan zituzten.

Euskal Herriko Itzultzaileen Elkarte (EHIE)

Eguneroko prentsan behin baino gehiagotan argitaratu da dagoeneko Euskal Herriko Itzultzaileen Elkarte (EHIE) sortua dela, eta bertan partaide izateko eskabide bat baino gehigo iritsi da Donostiako Itzultzaile Eskolara.

Senex aldizkari honen azkeneko zenbakiak, hain zuzen, euskal itzultzaileen elkarte bat sortu beharra zuen gai nagusia. Haren ondotik, Donostiako Itzultzaile Eskolak, Elkarte sortzeko inizatiba eta ardura osoa bere gain hartu nahi ez zuenez, dei bat egin zien azkenekourteotan liburuak itzuli eta argitaratu dituzten zenbait itzultzaileezaguni, elkarte sortzeko kargua eta karga Eskolarenak baino bizkar zabalagotan eror zedin. "Liburu-itzultzaileei" deitu zitzairen, hain zuzen, zeren bestelako itzultzaileei muzin egin gabe, badirudi liburu itzultzaileena dela oraindik gure artean gehien estabilizatuta dagoen itzultzaile-irudia, orain arte itzultzaile izan dena. Badirudi komunikabideetarako itzultzen ari direnek, ETBrako batik bat, ez dutela itzultzaile-irudi publiko horren finkatua; eta berdin administraziorako itzulpengintzan ari direnek; beharbada beraien itzulpenak beren izeenez sinaturik argitaratzen ez direlako, eta liburu-itzultzaileenak aldiz

bai. Horrela, bada, Euskal Herriko Itzultzaileen Elkarteak sortzeko iniziatiba, nahiz eta Donostiako Itzultzaile Eskolatik sortua izan, liburu-itzultzaile batzuren lana izan da.

Eta hala, lehen bilera bat egin zen, arazoaren egoera aztertu eta aurrerako urratsak zeintzuk izan behar zuten erabakitzeko. Bilera horretan, jectio-batzorde bat izendatu zen, Juan San Martin, Ramon Etxezarreta, Koldo Izagirre, Xabier Mendiguren batzordekide, Jesus M. Zabaleta idazkari eta Juan M. Lekuona lehendakari zituztela, lehen eginkizun bezala Elkarte horrek izango zituen Estatutuak prestatu eta bitarteko jectio guztia burutu zezan.

Joan den ekainaren 13an, berriro biltzarrera deiturik, bertaratuek batzordeak prestatu dituen Estatutuak onartu zituen. Estatutu horiek beren legezko onarpena izan dezaten Elkartearen Erregistroan aurkeztu dira, eta hango onespeneren zain daude une honetan.

Elkartearen xedeak, hauek dira, Estatutuetan aitortzen denez:

- a) Euskal Itzultzaileen babes juridikoa lortzea eta berauen lan baldintzak hobetzea.

EHIEak bere egiten ditu 1976ko azaroan UNESCOren Biltzarre Nagusiak itzultzaileen babes juridikorako egindako gomendioak.

– Jabego intelektuala, testuak ez aldatzea, autoreari egiten zaion publizitatearen horrenbesteko baterako eskubidea eta gomendio horretan aditzera ematen diren beste zenbait eskubide.

- b) Euskarara edo euskaratik egiten diren itzulpenen kalitatea zaintzea, jatorrizko testuarekiko leialtasunez eta euskarazko kalitate minimo bat eskatuz burutuak izan daitezen.
- c) Era guztietako obrak euskarara itzul daitezen ahalegintzea.
- d) Euskal itzultzaileak prestatu eta hobe daitezen saiatzeta.

Aipatu dugun legezko onspen hori iristen den bezain laster, Elkarteak legezkoturik, beraz, bazkideztza hasi ahal izango da, Estatutuetan beretan jarrita dauden baldintzen arabera, alegia:

- a) Azken bost urteotan euskarara edo euskaratik bi liburu itzuli eta argitaratu izana; edo beste horrenbesteko itzulpen kopuru bat burutu izana, behar diren ziurtagiriekin frogaturik,
- b) edo Euskal Herriko itzultzaile Eskola batean itzultzaile ikasketak burutu izana,
- c) edo Euskal herriaz kanpoko Itzultzaile Eskolaren bateko itzultzaile tituluaren jabe izatea,
- d) edo itzultzaile lanpostu batean urtebetean gutxienez lanean aritu izana, behar diren ziurtagiriekin frogaturik.

Horiez gainera beharrezkoa izango da:

- e) Zuzendaritza batzordearen onespena,
- f) eta Elkarteko hiru partaideren abala.

Horrela, bada, oso denbora laburraren buruan bazkidetza hasi ahal izango dela espero izatekoa da.

Itzultzailearen etxeak Europan

Itzultzailearen Etxea Tarazonan

Joan den urtarrileko 9tik 10era, Tarazonako Alkateak gonbidaturik herrialde desberdinetako itzultzaile-multzo bat bildu zen Aragoeko Tarazonan, dagoeneko Europa mailan lanean ari diren "Itzultzaile Etxe" deritzatenek nola funtzionatzen duten azaltzeko eta hauen gisako bat Espainiako estatuan ere irekitzeko.

Tarazonan bertan kokatuko den espainiar estatuko lehen "Itzultzailearen Etxe" honen sustatzaile Paco Uriz izan da eta udarako funtzionatzen hasiko delakoan zeuden antolatzaileak. Tarazonako Udalak, Zaragozako Aldundi Probintzialak eta Kulturako Ministraritzak eskaintzen dute bere laguntza egitasmo hau aurrera eramateko.

Horrelako etxeen betekizun idealena itzultzaile-bikoteei egoitzalekua eskaintzea izango litzateke edota autore-itzultzaileei beren lanak orrazteko eta bertan liburutegi espezialdu bat ezezik, konputagailu, idazmakina eta gaurko teknologiak lan hauetarako eskaintzen dituzten tresna baliagarri guztiak izango dira. Etxean egoteak 1.500 ptako kostu fisikoa izango luke baina gestio desberdinen ondorioz doanekoa izatea lortu nahi litzateke. Informazioa jaso nahi duten itzultzaileek Tarazonako Udalaren Turismo Bulegora idaztea dute onena.

Arlesko Itzultzailearen Etxea

Tarazonako bileran parte hartu zutenen artean Arlesko "Collège Internationale des Traducteurs littéraires" egoitzako kideak zeuden. Berauek eskuratu ziguten informazioaren arabera, aipaturiko "Collège" hau A.T.L.A.S. Elkarteak sortua da topaketa, gogoeta eta formazio-informaziorako leku gisa, eta kolegioa zabalik dago nazionalitate guztietako itzultzaileentzat, beren itzultzaileekin lanean ari diren autoreentzat, itzulpenaren teorilarientzat, hizkuntzalari eta lexikologoentzat eta ikasle eta ikastaldietako partaideentzat.

Bertan burutzen den eskaintza era askotakoa da: lan pertsonala, mintegiak, ikastaldiak, elkarriketak, fitxategi lexikologikoen erakuntza eta erabilera, testuen tratamendurako makinaren erabilera.

Behin-behinekoz kolegioak duen kokalekua, 18, rue de la Calade da eta Arlesen erdi-erdian aurkitzen da. Ondorengo zerbitzu hauek ditu: harrera-despatxua, idazkaritza, lan gela hornitua, liburutegia, bilera-aretoa, jantokia, sukaldea eta arropa-garbitokia.

Halere, datorren urtetik aurrera, kolegio hau Arlesko hirian dagoen Espace Van Gogh-en erdian lekutuko da eta zerbitzu-gela hauek izango ditu: hamar harrera-unitate, liburutegia, hitzaldi-aretoa, egongela, bulegoak, informatika-aretoa, gimnasi-gela, terrazak eta jantokia, sukaldea, arropa-garbitokia.

Ostatuko daudenei idazmakinak, testuen tratamendurako makinak eta fotokopiagailuak jartzen dizkie eskura erakundeak.

Liburutegian material hauek aurkitzen dira: hiztegi espezialdu eta entziklopediak, kontsulta-liburuak, dokumentazio-obrak, aldizkariak, jatorrizko testuak eta itzulpenak, hiriaren planoak etab.

Rodanoren hegian eta Hego-Ekialdeko hiri handietatik hurbil dagoen Arlesek badu ikusteko interesgarriak: adibidez, bere ondare arkeologikoa, museoetako bildumak, atergabeko kultur ekintzak eta Alpilles eta Camargue bitartean, aberastasun turistikoko handiko eskualde bat itsasotik hurbil.

Straelengo Itzultzaileen Etxea

"Europäisches Übersetzen-Kollegium" (Itzultzaileentzako Kolegio europar) hau Westfaliako Straelenen aurkitzen da (Kuhstrasse 15-17,

Postfach 1232, D-4172 Tf. 02834-1068/1069) eta lehendabiziko zentru nazioartekoa da, mundu-mailan, literatur eta espiritu-zientziazko obren itzultzaileentzat.

Beronen garrantziaz jabetzeko, aski bedi esatea liburutegiak 25.000 liburu eta 100 hizkuntza desberdinetako 2.000 hiztegi baino gehiago dituela; gainera, 8 testu-prozesadore, 20 apartamendu eroso eta gainerako zerbitzu guztiak behar bezala horniturik.

Elkartea 1978an eratu zen eta udal eta barruti ordezkari politikoak eta itzultzaileen ordezkari batzuek osatzen dute titulargoa. Zuzendaritza-Batzordeak hamaika kide ditu eta Elmar Tophoven da presidentea. Elkartearen helburua da "nazioarte-mailan kultur trukaketa bultzatzea, literatur eta zientzi obren itzulpenaren alorrean eta herrien arteko ulermena sendotzea".

Finantziaketa Elkarteko Kideen edo hirugarrenen borondatezko ekarpenez egiten da, batez ere Ipar-Renaniako Kultur Ministraritzak eta Straelengo Udalak ematen duen diruz.

Egoitza honetan urtean zehar baliatzen direnak 300 baino gehiago izaten dira eta mundu osotik etortzen dira erabiltzaileak.

Bertan itzulpen-lan ugari egiteaz gainera, zenbait glosario atondu eta argitaratu ere egin dira.

Bi eratako beka daude bertara joan nahi dutenentzat: A erakoak, egoitza eta mantenua ordaintzen dutenak eta B erakoak, egoitza eta mantenuaz gainera bidaiaria (joan-etorria) ordaintzen dutenak. Bekaskariak kolegiara zuzendu behar dira.

X. Mendiguren

EUSKALDUNON HIZKUNTZA EUSKARA

EUSKALDUNON PRENTSA EUSKARAZKO PRENTSA

ARGIA

**ARGIAREN HARPIDEDUN IZAN
NAHI DUT**

IZEN DEITURAK

Helbidea

Herria **Probintzia**

Banku edo Aurrezki Kutxa

Sukurtsala

Zenbakia

SINADURA

ARGIA astekaria
Ramonenea etxea, behea.
Virgen del Carmen, z/g

Donostia (12)
T. 28 33 99

ELHUYAR . Zientzia eta teknika

EZ GELDITU

AZALEAN

ZATOZ MUINERA

Elhuyar. Zientzia eta Teknika 80 orrialdetan zientziaren garapenaz informatuta egoteko behar duzun guztia bi hilabeteetan behin. Bi hilabetero.

- **Astronomia** sailean *Jesus Arregi* ren eskutik unibertso mugaezinen zorabioan murgilduko gara. Gainera, jira-biraka dauzkagun sateliteak zertan ari diren ezagutuko dugu.
- **Landuz egiten da zientzia** sailean *Jose Ramon Aizpuruak* etxean egiteko saio interesgarriak proposatuko dizkigu.
- **Osasuna** delakoan *Jabier Agirrek* aholku eta gomendioak emango dizkigu osasuntsu mantentzen gaitzen.
- **Jolas Matematikoak** izenekoan *Jesus Mari Goñi* eta *Juanito Etxeberriak* burua berotzeko problemak proposatuko dizkigute.
- **Zure etxeko ordenadorearekin** zer egin ez badakizu *Jesus Mari Iturriotzek etxeko ordenadorea* sailean zer egin planteiatuko dizu.

Gainera, liburuak, berriak, informazioa... eta interes biziko gaiak sakon eta modu ulergarri tratatuak.

bi hilabeteetan behin zure eskutan

Elhuyar. Zientzia eta Teknika aldizkaria jaso nahi dut. Urtean honen sei ale jasoko ditut gainera doan "Elhuyar" aldizkariaren bi ale.

Izena.....

Helbidea.....Lanbidea:

Hiria.....Telefonoa:

Ordainketa:

Errenboltoz
Kontu-korrontea k/k zenbakia:.....Bankua:.....

Urtebeterako 2.000 pta. Euskal Herria eta Frantzia
bi urterako 3.900 pta.
hiru urterako 5.800 pta.
urtebeterako 2.500 pta. beste herrietan.

HARPIDETZA TXARTELA

SENEZ aldizkariaren harpidedun egin nahi dut:

Izena

Kalea Herria

Urteko ordainketa (2.100 Pta.) nire Banku edo Aurrezki Kutxako kontuaren bidez egingo dut :

Banku edo Aurrezki Kutxa

Kontuaren zenbakia


Sukurtsala


Kontuaren jabea

Entitate horretako nire Kontuan zorpetu itzazue nire izenean doazkizuen erreziboak.

Sinadura

Helbidea





2-3

Gaiak:

Ale honetan / Itzulpena hizkuntzen irakaskuntzan; humanitateen "bertsio" modernoa / "Itzulpena" eta hizkuntzen didaktika / Itzulpena eta hizkuntz pedagogia / Hizkuntzen kontaktoaz eskolan / Neurolinguistika, psikolinguistika, elebitasuna eta itzulpenaz / Itzultzailearen elebitasuna / Itzulpen pedagogikoa eta itzulpen profesionala / Itzulpena haurrentzako liburugintzan / Erdal literatura euskaraz / Itzulpen literarioaz / Antologia de la narrativa vasca actual: itzulpenaren gorabeherak / Itzulpen baten eta bere zuzenketaren arteko konparazio-azterketa / Itzultzaileen eta itzulpenen babes juridikoaz / Samaniegoren fabula edo alegien itzulpen bilduma / Esperantoa eta itzulpengintza / Itzulpenari buruzko zenbait aldizkariren berri ematea / Bibliografia / MICHEL BALLARD: La traduction de la théorie à la didactique / Journées européennes de la traduction professionnelle / Euskal Herriko Itzultzaileen Elkarte (EHIE) / Itzultzailearen etxeak European.